



ttipi-ttapa

TOIKOKOM

2012ko uztailaren 12a | XXXII. urtea | 570. zenbakia

www.ttipi.net



Jon KANFLANKA

→ 51

Sega Txapelketaren finala igandean Leitzaan

Herriko bestak

Arano, Elgorriaga, Elizondo eta Ituren

ARANTZA → 27

Hilaren 27 eta 28an, 24 orduko futbito txapelketa

B.LABAIEN-DONAMARIA


Usategien enkantea abuztuaren 11n

BAZTAN → 43

Baztandarren Biltzarra besta uztailaren 22an

SARA → 49

Baserriko merkatua uztailaren 15ean



AMAIUR 2012

HAIEN AMETSA GUREA DA

UZTAILAK 21 | Amaiurko Gazteluaren magalean

AGORRILAK 10-11 | Mauleko Gazteluan

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoan ikuskizun artistiko-musikala prestatu dute Pier-Pol Bertzaizen zuzendaritzapean

ERREPORTAJEA → 4-5

Antolatzaileak:
GAZTELI ELKARTEA
AMIS DU CHATEAU FORT



Jabier PORTU | Bera

ELKARRIZKETA → 3

Baserritarrak haserre mendian zakurrak kontu eman gabe dabilzkitenekin. Maiz ardiak ausikituak eta kolpatuak dituztela dio.

GOIZUETA → 39

Frankismo garaian herritarrek egin-dako euskarazko antzerkiak berreskuratu dituzte

BERA → 26

La Miguel Indurain bizikleta proba uztailaren 21ean egingen da. Bi ibilbide izanen dira aukeran: 113 eta 186 kilometrokoa.

ZOZKETAK → 60



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

benta berri



BERAKO BESTAK

. MENU BEREZIA .

- Sarrerak
- Blijarrren platera aukeran
- Postrea
- Kafea

€
25,00

. MENU BEREZIA .

Aurtengo bestetan
zatoz gurekin ospatzera

Eta autobusez etorri nahi baduzu...

6€* gehiago ordainduta jatetxeraino ekarriko zaitugu

benta berri

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa

Tel. 948 63 07 08

MENDIKO

. SAGARDOTEGIA . ESRUTEGIA . JATETXEA .



BERAKO BESTAK

. SAGARDOTEGI MENUA .

- Txorizoa sagardo modura
- Bakailu tortilla
- Bakailua plantxan
- Txuleta
- Gazta intxaurrekin...

€
22,00

. SAGARDOTEGI MENUA .

Berako bestak direla eta, MENDIKO jatetxeak
Sagardotegiko Menu berezia hau eskaintzen dizue

Eta autobusez etorri nahi baduzu...

6€* gehiago ordainduta jatetxeraino

ekarriko zaitugu

* BEZ ez dago barnean

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa
www.mendikolbardin.com

Tel. 948 63 03 02

Mendian dabiltzan ardien gibeletik joaten diren zakurrek arazoak sortzen dizkiete Berako artzainei eta hauek «Aski da!» errateko tenorea dela uste dute. Ez da oraingo

arazoa, «gure aitatxi-amatxiek ezagutu zuten eta, zoritxarrez, gure bilobek ere ezagutuko dute», dio Kauleko Jabier Portuk, baina zerbait egin beharra dagoela uste du.

Sinadura bilketak, udal bandoak, kartelak... denarekin saiatu dira, baina arazoak hor segitzen du, «Beran bezala, inguruko herri gehienetan ere berdintsu».

Jabier PORTU 'Kaule' | Berako artzaina

«Zakurretik ihesi joaten dira ardiak eta gero bildotsak azeri-bazka dira»

Aitor AROTZENA

Ardiak erasotzen dituzten zakurrekin Beran arazo handia duzuela salatu duzue. Zer gertatzen da?

Aspalditik datorren arazoa da. Gauza normala bezala hartzen da. Behin eta berriz pasatzen da eta inork ez du deus egiten. Azkenean nardatu gara eta aski da! errateko garaia heldu da. Neurriak hartu beharko dira, edo jendea kontzientziatu edo nik zer dakit.

Berriki autsikituak ere agertu dira ardiak...

Zia auzoko baserri bati 12 ardi autsikitu zituzten gauez, errea zegoen eta hasiera batean ez genuela denuntziatu behar, baina azkenean forzuangoari denuntziatu genion. Kalteak erakutsi genizkien eta egoera azaldu, eta zakurren nagusiari idatzi beharko geniola erantzun ziguten, sinadurak bildu, Herriko Etxearekin egon... Bilerak egin ditugu, baina ez dugu nahi gure kontuan bakarrik gelditzea, inguruko jendea eta ondoko herrietan zer arazo dugun ohartzea nahi dugu. Mendian kontzen ditugu eta zer egin behar dugu? Eguner sartzu barrenean? Uda bete-betean gaude eta! Mendian igual, eguner bajak... Ez duzu ino-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Jabier Portu, zakurrak kontrolatuak eramateko eskatzen duen kartelaren ondoan.

lako laguntzarik baina halakoak egunero, azeria ez bada zakurra.

Azeriarekin ere arazoak dituzue, beraz...

Azeriarekin ere arazo handia izaten da, bai. Guk Larungo kaskoan kontzen ditugu etxeko ardiak eta negurako jausten ditugu, baina sasiardi horietan ere bertze horrenbertze izaten dugu eta horiek urte osoan mendian kontzen ditugu eta azeriarekin nahiko lan badugu.

Baina zakurrek eragiten dizuete burukomunik handiena...

Azeria naturan dugu eta hori onartu behar da, baina zakurraren jabe-

ZAKURREN HEZIKETA
«Zakurra mendira atera baino lehen hezi egin behar da eta gazte jendea ez dago horretarako prestatua. Ezin dira mendian esperimenduak egiten ibili, gure ardiak direlako».

NEURRI ZEHATZAGOAK
«Lehenago motoekin deskontrol handia izaten zen mendian eta orain ez. Zergatik? Foruzainak agertu eta hori gibeleratu delako. Zakurrekin gauza bera pasatuko zen».

en arduragabekeria da eta jendeari ez zaio inporta. Nik baditut kasuak pasatuak, eta nagusiari deitu eta ez dizute telefonoa hartzen, edo zure ustez kalteordaina balio duena eskatu eta irri egiten dizute. Larunbatetan eta igandetan jende aunitz ateratzen da mendira eta kristoren zakur pila. Batzuk, noski baietz, bere ondoan kontzen dute, baina bertze aunitzi ez zaie deus inporta. «Ez dute deus egiten, jostetan aritzen dira!», erraten dute, baina ez da hori kontua. Sasiardi horiek aunitzetan bildotsarekin izaten dira neguan

eta zakurra bere ondortikan arrankatzen duenean, akabo! Ahazten ditu bildotsak eta dena gero, bildotsak hori azeri-bazka da. Ez dugu erraten lotua eraman behar direnik zakurrak, baina kontrolpean! Zerbait egin beharra dago. **Lehendik ere bandoak atera ditu Herriko Etxeak...**

Herriko Etxetik ailegatu zaizu karta bat, baina karta hori hartu eta normalean zaborrera joan da. Duela bi urte auzolanean kartel batzuk ere jarri genituen, zakurra kontrolpean eraman behar dela adieraziz eta ongi dago, baina azkenean jendeak ahantzi egiten du. Nire irudikoz, hori eskolan hurrei erran beharreko zerbait da. Arbolak zaintzeko erraten diegu, birziklatu behar dela erraten diegu, eta hau ere erran behar diegu. Lau ardi gelditzen dira mendian eta abudo ez da bakarrik ere geldituko. Azaldu behar diezu zakur bat duzunean, kristoren arazoa bihurtzen ahal dela ez baduzu ongi kontrolatzen. Gero, haur hori bere gurasoekin mendira joatean erranen die, «Aizu atta!, eskolan erran digute mendian kontu eman behar dela zakurrekin, ardiak izaten direlako».



ARGAZKIA: NAFARROA BIZIRIK PLATAFORMA

Amaiurko Gazteluaren maketa ttikia.

AMAIUR → 'HAIEN AMETSA GUREA DA' LELOPEAN

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoan ikuskizuna prestatu dute Amaiurren

Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean uztailearen 21ean egingen da, Baztandarren Biltzarra bezperan

Haien ametsa gurea da lelopean ikuskizun artistiko-musikala prestatzen ari dira Amaiurko Gazteluaren magalean eskaintzeko.

Kanta, dantza eta poesiaren bidez, ehun bat lagunek parte hartuko duten ikuskizunean, Nafarroa euskalduna zela azaldu nahi dute.

G. PIKABEA | AMAIUR

Aurten 500 urte beteko dira Fernando Katolikoa Aragoi eta Gaztelako erregeak Nafarroa konkistatu zuenetik. Nafarroako errege titulua hartu zuen, errege legitimoei koroa kenduz eta Nafarroako erresumaren amaiera ekarri. 1512an

konkistatu zuen Gaztelak Nafarroa, baina gerora ere, erresuma berreskuratzeko hainbat saiakerak egin zituzten nafarrek. Amaiurren 1522an izan zen. Gaztelarrek 10.000 soldadu eraman zituzten Amaiurko Gaztelua setiatzera, gaztelu barrenean ehun lagun in-

guru bertzerik ez zeudenean, eta bertze ehun bat inguruetan. Hilabeteetan gogor borrokatu ondotik, Amaiurko Gazteluan zeuden 200 gudariak garaitu egin zituzten Gaztelak.

Geroztik, hainbat izan dira gudari haien

omenez Amaiurren egingandako ekimenak. 1920an, adibidez, Juan Iturralde Suit, Arturo Campion eta Julio Altadillek Nafarroako independentziaren aldekoen memoria berreskuratu nahi izan zuten eta orogarria egin eta 1922an inauguratu zuten. 1931n, ordea, Lizarrako Autonomia estatutua eztabaidatzen ari ziren egunetan, orogarria lehertu egin zuten. Estatutu hura onartu izan balitz, estatutu bateratua izanen lukete Nafarroak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak.

Frankismoa akitu zenean sortu zen Amaiurren Gaztelu Elkartea, 1978an, «monolitoa berreskuratzeko». Halaxe azaldu digu Juan Mari Aleman Gaztelu Elkarteko ki-deak. Eta 1982an lehen Gaztelua zegoen tokian orain dagoen monolitoa inauguratu zu-

ten. Gerora, Gaztelu Elkartea tartean zela, Aranzadi Zientzia Elkartea indusketa lanetan hasi zen Gazteluan.

Amaiurko gertaera haren 500. urteurrena 2022n izanen bada ere, konkistaren hasmenta 1512an izan zen, eta hortaz, zerbait berezia egin nahi izan dute Gaztelu Elkartek, eta ikuskizun artistiko-musikala prestatu dute uztailearen 21erako, Baztandarren Biltzarra bezperarako: «Nafarroa libre baten alde beren bizia eskaini zuten guztiak omenduz». Juan Mari Aleman eta Kike Otaegik eman dizkigute xehetasunak.

Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean eta *Haien ametsa gurea da lelopean*, kanta, dantza eta poesiaren bidez Nafarroa euskalduna zela azaldu nahi dute, eta nafarren borondatearen kontra, Gaztelak armak erabiliz konkista-

Amaiurko Gaztelua zegoen tokian, orain dagoen monolitoa.

UZTAILAREN 21EKO IKUSKIZUNAREN HARIA, LAU ATAL EDO GERTALDITAN BANATUA

1. gertaldia: Errege katoliko inperialistak

Aragoiko Fernandoren eta Gaztelako Isabelen ezkontzarekin hasiko da ikuskizunaren lehendabiziko atala (1469an ezkonduak) eta beraien eragina historikoki nolakoa izan zen kontatuko dute. Bi monarkek Espainiaren batasun osoa nahi zuten eta helburu horrekin, judutar eta mairuen aurka jo zuten «katolizismo garbia» bilatuz. 1492an Alhambra-ko itunaren ondorioz, judutarrak herbesteatuak izan ziren eta hori izanzen da eszenetako bat. Zati honek Ameriketako inperioarekin ere badu lotura, errege katolioek Espainiaren inperialismoaren alde egin baituzten, Cristobal Colonen Ameriketarako espedizioa babestuz. Gisa berean, 1500. urteko Amaiurko bestak ere gogoratuko dituzte, eta *Nafarroa*, *Arragoa* kantarekin itxiko dute ikuskizunaren lehendabiziko zatia.

3. gertaldia: Amaiurko setioa

Henri II.a, Albreteko Joanen semea, herritarren laguntzarekin, berriz bere erresuma berreskuratzen saiatu zen 1521ean. Baina bere tropen kapitaina, Azparroz, hil egin zuten Gaztelakoek Noainen. 1522an erori zen Amaiurko gaztelua, gaztelarren eskutik. Sei hilabetez borrokatu zuten Amaiurren, baina azkenean, Gaztela nagusitu zen eta Gaztelua ere erre egin zuten. Orduan galdu zuen independentzia Nafarroak. Hirugarren gertaldi honetan Xiberoko artzainak, Noaingo gerra, Amaiurko setioa eta Parisen Xabierko Frantses eta Loiolako Iñaki solasean ikusiko ditugu. Erresuma eta amets galduen dantza eta Nafarroaren lau sasoinak ere taularatuak dituzte.

2. gertaldia: Nafarroaren konkista dorpea

Fernando erregea 1504an alargundu zen, eta Joana bere alabari zegokion Gaztelako koroaren jabe egin nahi izan zuen, baina Korteko nobleziak kontra egin zion. Urte bat beranduago Foix-eko Germaine frantsesarekin ezkondu zen, eta haren izenean, 1512an, Nafarroa konkistatu zuen, Albreteko Joan III.a eta Foix-eko Katalina errege eta erregina zirela. Bere erresuma birkonkistatzen saiatu zen Albreteko Joan, baina alferrik egin zitzaion, eta 1516an hil zen etsituta. Bigarren gertaldi hau ibiliko da eta Xiberoko artzainak ikusiko ditugu eszenatokian, 1512an Albako dukeak Iruñea menperatu zueneko eszena ere izanzen da eta Joanen seme Henri II.a erregeak herritarrekin erreinua berreskuratzeke deia egin zuela ere irudikatuko dute. Bozaten agoteak biltzen hasi zireneko eszena ere badu zati honek.

4. gertaldia: Nafarroa, betikoa

Azkeneko atal honetan gaur egungo Nafarroaz ariko dira eta kanta, dantza eta poesiaren bidez. Honetan ere Xiberoko artzainak ikusiko ditugu, Agosti Xaho eta Antonio Abadiaren arteko ikustaldia ere bai, Amaiurko herrian oroitarria altxatu zuteneko uea gogoratuko da, baita Baigorriko Nafarroaren Eguna ere. Gaur egun, orduko gazteluaren arrastoak ageri dira, Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketa lanei esker. Baina hori baino lehen, 1922an amaiurtarrek Nafarroako independentziaren alde borrokatu zuten aldeko monolitoa paratu zuten. 1931n botoa egin zuten eta 1982an berriz paratu. 2007az geroztik, Pello Iraizozen harrizko eskultura ere hor dago, *Aberri Askearen alde jendea libre jaiki* dioena.



tu zuela erresuma. Horretarako amaiurtar eta baztandarrez gain, Nafarroa Garaia eta Beherea, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoatik etorritako ehun lagun inguruk parte hartuko dute ikuskizunean. Gazteluaren magalean antzetzuko dute eta lau zatiedo gertalditan banatuta. Ikuskizuna 21:00-etan hasiko bada ere, 20:00etan desfilea eginen dute parte hartzaileek eta horrez gain, egun berean, hainbat ekitaldi izanzen dira: 10:00etatik goiti ordu bisita gidatuak gaztelura, artisauek, musika karraketan, arratsaldez haurrentzako animazioa eta tailerrak eta egun osoan jateko eta edateko ostatuak. Hau guztia prestatzen



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Kike Otaegi eta Juan Mari Aleman uztailaren 21eko ikuskizuna prestatzen dabilta burubelarri.

Mauleko Gazteluaren Lagunak Elkartearekin elkarlanean ari da Gaztelu Elkarte, eta hala, agorri-laren 10ean eta 11n ikuskizun bera eskainiko dute Mauleko gazteluan. Ikuskizunerako sarrerak

Internetez eros daitezke: www.ticketmaster.es web orrian. Amaiur, Arizkun, Elizondo eta Erratzun ere paratuko dituzte salgai. 1.200-1.500 lagunendako tokia aurreikusia dute.

IKUSKIZUNEAN PARTE HARTUKO DUTENAK

Behazkane (Kompany Beritza)	
Koordinazioa:	Jean-Dominique Espil
Sorkuntza:	Pier Paul Berzaitz
Ikerketa:	Elena Phagaburu
Jantziak:	Claire Uthurralt eta Mauleko dendariak
Koreografia:	Edu Muruamendiarez
Txukunketa eta musika zuzendaritza:	Karlos Gimenez
Bataila txukunketa:	
Jean Pierre Errekart eta Joël Saint-Mezard	
Bataila musikak:	Karlos Gimenez
Dantzariak:	Amaiur Dantza Taldea , Xiberotarrak , Aukeran (Donostia)
Kantariak:	Amaiurko Gaztelu Taldea , Xiberoko Zohardia eta Artzainak
Bakarlariak:	Audrey Carrique , Kattalin Indaburu , Arantxa Irazusta , Isabelle Jaury , Magali Zubillaga , Mixel Arotxe eta Petti
Bertsolaria:	Ametz Arzallus
Antzerkilariak:	Beñat Fontan , Peio Larre eta Baztango aktoreak
Teknika eta argiak:	Jose Luis Zabala eta Ezeiza anaiak



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Zorionekoak

Edozein pertsonaren ilusioa izan ohi da beti, loteria tokatzea; bizitzan dituen helburu material desberdinak gauzatzeko, hobeki bizitzeko...

Loteria desberdin ugari ezagutzen ditugu (gabonetako 'potolotik' abiatuta, bonolotoa, itsuei laguntza ematen diena...).

Loteria bai, batek dio, ez baduzu jokutzen, ez zaizu tokatuko.

Loteria guztiak ez dira zorionekoak.

Badira loteria batzuk, txartelik erosi gabe ere tokatzen direnak eta gaur egunean, familia gehientsuenetan zoritxarrez aurkitzen ditugunak: langabezia edo minbizia»

Loteria bai, batek dio, ez baduzu jokutzen, ez zaizu tokatuko.
Loteria guztiak ez dira zorionekoak.
Badira loteria batzuk, txartelik erosi gabe ere tokatzen direnak eta gaur egunean, familia gehientsuenetan zoritxarrez aurkitzen ditugunak: langabezia edo minbizia.
Zure etxean tokatu al zaizu horrelako loteriarik? Ez??
Ba zorionekoa!!

Ezpala

Aitor AROTZENA

1512: Haien ametsa gurea da

Batzuentzat konkista odoltsua izan zena, anxio baketsu gisara aurkezten dute bertzeek. Ez gara orain Nafarroa erresuma izatera itzultzea eskatzen hasiko, toki gehienetan(?) erregeak desagertu direlako. Ez gara duela 500 urte bezala inguruko herrialdeekin gudan hasiko lur-zati baten eske. Baina iragana ezagutuz, etorkizunean zer izan nahi dugun erabakitze eskubidea zor zaigu.

Nabarmentzekoak



Patxiku ANDUEZA
Doneztebeko txupnazioa

35 urte eman ditu albinte lanean, joan den urteko azaroaren 25ean, 62 urte egin zituen egunean jubilatuz zen arte. Aurtan, Doneztebeko Sanpedroetako lehen suziria piztu zuen.



Jon JAUNARENA
Bigarren mailako txapela

Ceciliorekin batera binaka egin zuen bezalaxe, banaka ere bigarren mailako edo pro-mozio txapelketako txapeldun suertatu da leitzarra. 22-16 irabazi zion Ezkurdiari finalean.



Aimar OLAIZOLA
Buruz buruko hirugarrena

San Juan eguneko finalean 22-7 irabazi zion goizuetarrak Irujori, buruz buruko hirugarren txapela lortuz. Binakako bi eta lau t'erdiko bos-teen, hamar txapel handi baditu. Bada zerbait.

Atzera begira → 2003.07.17 / TTIPI-TTAPA 354. zbk



Sarako Pottokaren Eguna

1996an hasi ziren Pottokaren Eguna ospatzen Saran. Konkurtso nazionala izanik, Euskal Herriko eta Frantzia osoko ehun behor inguru biltzen ziren: «Jujatze-ko baduzu nahikoa», zioen Battitte Laborde, Pottoka Elkarteko antolatzaileetako batek. Elkarte hau ez zen berria, 1970ean sortu baitzen Paul Dutournier Sarako auzapeza zenaren lanari esker. Euskal Herriko zaldi arraza hau ez galtzea eta indartzea izan zen elkartearen xedea. «Pottokak, ttikia eta fierra izateaz gain, bazka gutti galdegiten du», zioen Labordek. Saltzeko pintoa erraxago izan arren, «potoka xuxenez hamarretatik bederatzitan gaitain iluna da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Nola bukatuko da hau?

Mikel RODRIGUEZ

Aspalditik aditzen ari gara garai zailetan bizi garela, inoiz baino lan gehiago egiteko ordua dela, egoerari buelta eman nahi badiogu. Baina batek galdetzen dio bere buruari: nola ailegatu gara honetara? Zer gertatu da? Gure gaitasunen gaintetik bizi izan garela erraten digute, ez geneukan dirua gastatu dugula, eta horregatik ari garela orain miserian erortzen. Denok. Beraz, errua kolektiboa da, eta erru bera dute langileak eta enpresariak, pobreak eta aberatsak, herritarrak eta boteretsuak. Mezu horretan txertatu nahi digute lehenbiziko gezurra. Krisi ekonomikoa denok sortu dugu, eta, gainera, ekaitz bat edo haizete bat bezain fenomeno naturala da. Baina aberatsek eta boteretsuek badakite zein den irtenbidea, eta, kasualitatez, pobreagoen bizitza errazten duten zerbitzuak ezabatzean dago gakoa. Eta, horregatik, batek kasualitate horiek denak ikusten ditu, zer nori kenduta nor ateratzen den irabazle ikusten du, eta pentsatzen du krisia ez dela denok sortua, eta ez dela gauza naturala. Ondorioztatzen du XX. mendearen bigarren erdialdean herrialde kapitalistetan borroka gogorak egon zirela umilenen eskubideak defendatzeko, eta, elite politiko-ekonomikoa garaitzea lortu ez zuten arren, horiek zenbait eskubide bermatu

behar izan zituzten boterea ez galtzeko. Eta konspirazio baten teoriari sinetsiz gero, orain buelta heldu dela ikusten dugu. Miseria ekarri digute gure bizitzara. Umilena miseriak aberatsena azkarrago bihurtzen du, eta Ronald Reaganek eta Margaret Thatcherrek ireki zuten bidean sakontzeko aukera dute orain: aberatsago, eta pobrea gero eta pobreago. Ekonomia gehiegizko pribatizazioak ekarri gaitu honetara, gobernuen, alderdi politiko handien, nazioarteko agentzien eta multinazionalen bulegoetan kontu handiarekin diseinatutako estrategiak, ez historiaren ziklo natural batek. Eta, gainera, soluzioa pribatizazio horretan sakontzea dela sinestarazi nahi digute. Garai are zailagoak ditugu aitzinetik. Herritarren pazientziak muga bat izan ohi du. Boteretsuek badakite hori, eta horregatik ari dira kanpaina mediatiko gogorak egiten...»

«Garai are zailagoak ditugu aitzinetik. Herritarren pazientziak muga bat izan ohi du. Boteretsuek badakite hori eta horregatik ari dira kanpaina mediatiko gogorak egiten...»

Aurtengo uda ez dator batere lasai

Juainas PAUL ARZAK

Aurtengo uda ez dator batere lasai. Tradizionaltzat har daiteke –maiz hala izan delako– urtaro hau ziria sartzeko erabiltzea. Uzta, bestak eta oporrak –bakoitzak dagokiona har dezaladistraitzeko erabili eta konturatu-orduko-egina-dago garaia bihurtu dute, goikoek, aunitzetan. Antzeko zerbait heldu zaigu.

Alor askotan, seguraski, eta luze begira bereziki kaltegarria izan daiteken gure seme-alaben munduan. Hezkuntzan.

Sekula ez naiz profeta ona izan, baino oraingo honetan, nire irudin, bide ona daramat. Nafarroan, hezkuntza maila guztietan, publikoaren ahuleria eta pribatuaren babesa –katoliko konfesionala baldin bada, bereziki– bilatzen dute, lortzen ari dira, hein handi batean, *betikoek*... Publikoa trabatuz, desornituz, taldeko ikasle kopuruak handituz, irakasle kopuruak guttituduz, dakigula, desantolakuntzan sartu dute... eta orain dator udako giroa. Zer ez dute aldatuko? Irailean nola topatuko dugu garraioaren kuota? Jangelarik egonen ote dira? Zein ikasleentzat? Zenbatean? Behar bereziak dituztenek? Orduategia?

Erantzun beltzak egon daitezke batzuentzat, inportantziarik gabekoak besteentzat. Ongi dago! Garrantzirik ematen ez diozuenek bertan behera utzi hau irakurtzeari. Ez du merezi! Besteekin ari naiz.

Ezin dut erantzun garbirik eman, nire esku ez baitago. Susmoak dira, eta arras ezkorak izanen dira *haiek* 'aurkariak' desantolatuak topatzen bagaituzte. Nahitaezko baldintzak dira. Garbi hitz eginez: sakabanatuak, dudatiak, noraezean harrapatuz gero, besta galanta. Burutik pasa ez zaizun hori ere gauzatuko dute, murrizketen alde. Gurasoei dagokie, ordea, elkartzea, beharren moldaketa eztabaidatu, finkatu eta aldarrikatzea. Gurasoei, dudarik gabe, beraiek dutelako *goiko-betiko-haiei* ikara pixka bat sortzeko gaitasun bakarra: botoa. Ez ufaka hasi! Jakin, badakit batere erraza ez dela baina hori da, izatekotan eta elkarturik, jokoan jar dezakegun gako bakarra. Uda indar eta hausnartzeko erabili. Indarra beharko duzu datorren ekaitzari aurre egiteko. Hausnarketa galanta, berriz, hain ohikoa dugun *elkar-muturka-aritzeari* konponketa bilatzeko. Jai dugu, bestela.

«Uzta, bestak eta oporrak –bakoitzak dagokiona har dezala– distraitzeko erabili eta konturatu-orduko-egina-dago garaia bihurtu dute, goikoek, aunitzetan. Antzeko zerbait heldu zaigu. Alor askotan, seguraski, eta luze begira bereziki kaltegarria izan daiteken gure seme-alaben munduan. Hezkuntzan»

Irakurleak mintzo

Bi alarde nola bateratu?

Ainara MAIA URROTZ

Mutikoari abanikoa gustatzen zaio, eta nes-kari, ordea, danborra jo-tzea; edo alderantziz, beharbada; edo erabat bestelako gauzak, hala nola neskari futbolearen jolastea, eta mutilari ba-leta dantzatzea.

Horrek piztu dit arreta pasa den Irungo San Martzial besta handiko ekainaren 30eko alardeak goizeko 8etan: aizkolariz jantzitako muti-ko txikia abanikoarekin agurtzen eta kantineraz beztitutako neskatikoa, berriz, danborra jotzen. Horrek piztu dit lokartu-rik nuen argi gorria ene barneko emakumearen gorputzean, eta oroita-razi zergatik, noiz eta nola hasi ginen Irunen bi alarde ospatzen.

Duela hamasei urte emakume batzuk barnetik bizitu nahi zuten Irungo jaietako egun handia kantinera izan gabe, eta erabaki zuten eskopeta harturik alardean parte hartu nahi zutelara, baina ez zieten utzi iskanbila eta borroka artean. Jai tristeak izan ziren 1996 hartakoak, eta nik ez nuen ulertzen zergatik horrenbeste min eta sufrimendu.

Nik bi alardetako jendea eta lagunak txalotu ditut, eta miretsi. Ez dut alardetik barnetik bizi, baina kanpotik, begi kliska berezi bat jaso nuen ustekabearen mutil batengandik alarde

parekidearen barneal-detik, eta maitemindu, irribarre lotsati bat piztu zidan itxaropen ahul batez, baina ez dut ilusio faltsurik egin nahi berriro.

Nik ez dut ulertzen zertarako orain bi alarde Irunen, eta ene bihotzak ez du ulertzen muturreko jarrerarik. Era berean ez dut ulertzen nolatan adiskidetasun inkondizional bati kondizioak jar diezaiokeen bi adiskidetakoa batek eta besteak umil-umil onartu bere adiskide-minaren baldintzak. Baina nik nire lagun on poeta batetatik dena eman nuen eta ematen dut, amore eman dut nirean.

Era horretan ere, alarde batekoek nahiz beste-koek amore eman behar-ko lukete euren eskakizunetan hurbilpen baten mesedetan, bateratze aldera eta herria bildu dadin. Izan ere muturreko egoerak ez baitira onak inorentzat.

Gerra galdu edo irabazi, inporta duena da bukatzea. Beharbada irabaztea hobe; izan ere, Irun eta behe Bidasoa galdu ondoren, gaztelarren eta frantziarren arteko borrokan, Nafarroako Erreinuaren Amaiurko azken gotorlekua suntsitu baitzuten 1522. urtean gaztelarrek, eta horrekin batera Nafarroako errege-erregin euskaldunek Frantziako lurraldera erbesteratu behar izan zuten.

Horregatik guztiagatik, maitasunagatik, bota ditzagun muturreko jarrerak eta hurbil gaituzen irundarrok. Bil gai-



Bota bertsoa

Kotte PLAZA (Elizondoko bertso eskola) • Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

Baztandarren Biltzarra

Santioak heldu aurretik dugun egun haundia gogora ze, baztandarren biltzarra baino besta hobeik al dago ba? askok karrozan lana egiten pasata zenbat denbora ta beste batzuk azken orduan ezin gehiago aztora. Gona gainean jantzi mandarra eta zapia lepora galtza urdin, alkandora zapinoa hankan gora parrandarako gogoa hartu ta goazen Elizondora hogeitabian mundu guztia baztandarra izango da.

Hamabost herri elkartu eta denok batera disfruta antolakuntzai eskerrak eman beti guztia lotuta urtero-urtero Elizondora karroza pila helduta mila mozorro, mila istori bakoitzak bere burruka umore ona eta algarra guztia zihurtatuta musika, jana, zurruta gero gaua ezin buka egun haundia, ospakizuna bailara ardatz hartuta ta hala izaten segi dezala Baztanek merexi du ta.

tezen euskaldunok, eta adiskidetu gaitezen adiskide minak eta Oarso-bidasoako nire kuadrila magiko maitea uda honetan. Hori da ene ametsa, hori ene utopia.

Erasorik ez erantzunik gabe!

Baztango Bilgune Feminista

Gaurkoan, emakumeon kontrako erasoez solastu nahi dugu, azken aldirian Elizondoko herrian emandako hainbat egoera salatzeke eta hausnarketari bide emateko.

Bizi garen sistema patriarkalean, ttikitatik emakume edo gizon izateagatik rol zehatz batzuetan hezten gaituzte,

modu berean, rol hauen hierarkizazioa ematen delarik: genero maskulinoaren femeniaren aitzinean gailentzen da. Botere harreman hauek egiturazkoak dira, eta beraz, bizitzako arlo aunitzetan ematen dira: ekonomian, kulturean, osasunean, harremanetan, komunikazioan, hezkuntzan, politikan, familian...

Negu honetan, otsail-apirila bitartean, bakarrik zaiten emakume batzuk jarraituak izan dira larunbat arratsetan Elizondon. Honen inguruan gezur eta zurrumuru aunitz hedatu da herrian, honekin pertsona desberdinak minduz. Uste dugu horrelako egoera delikatu baten aitzinean kontu handiz eta errespetuz jokatzeko ezinbertzeko dela 'morboa' alde batera utziz.

Hau gertaera zehatz bat da, baina, momentua aprobetxatu nahi du-

gu gertakari hau eta gu-re eskualdean forma aunitzetan ematen den biolentzia matxista salatzeke. Honen aitzinean emakumeok bildu, hausnartu, prestatu eta indartu behar gara: autodefentsa feminista!

Honen haritik jakinarazi nahi dugu Baztanen emakume talde feminista bat sortu dugula eta elkarlanerako zein laguntzeko prest gaudela, baita emakumeok egunerokotasunean jasaten dugun edozein jarrera sexistak salatzeke ere. Aipatu ere, Baztango Udalean Berdintasun Batzorde bat lanean ari dela.

Bizi ditugun egoera hauetan emakumeok ez gaude bakarrik! Emakume bat erasotzen dutenean guztiok gara erasotutak! Hortaz, garrantzitsua da elkartzeko, solastea, elkarbanatzea eta antolatzea!

Borroka dezagun elkarrekin!!!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali behar dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Ez nuen ideiarik ere nola grabatzen den film bat, baina sei hilabetez etxean giltzapetu nintzen, asko irakurri nuen, Goenkaleko teknikariei aholkua eskatu nien eta urratsa ematea erabaki nuen. Ez dakit emaitza ona lortuko dudan, egunen batean zinema- edo telebistara ailegatuko naizen, edo eskoletan proiektatuko den. Baina pozik gelditu naiz *Parle vu euskera* filma zuzenduta».

Xabier PERURENA
Leitzako aktore eta harakina
D. NOTICIAS, 2012.07.02

«Krisi hau arras ongi heldu zaigu. Udalak dirurik gabe daude, eta Aspe eta Asegarceko partidak kontratatzeke diru mordo behar denez, gurekin ibiltzen dira, merkeagoak garela (..) Parranda baztertua daukat, pixka bat; adin kontua izanen da, eta ez da lehen bezala. Egia da gustura egoten garela hor barna afaltzen edo trago batzuk hartzen, baina ez da lehengo gauza bera».

Mikel GOÑI
Ornoz-Mugairiko pilotaria
BERRIA, 2012.07.01

11 galdera labur

Arantzan sortutako elgorriagarra ala Elgorriagan bizi den arantzarra?

Arantzan sortutakoa eta Elgorrin bizi dena, baina argi daukana bietan jende on aunitz ezagutu duena.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Familiarekin egon, lagunekin musika aditu, bizikletan ibili edo paseatu eta denbora izatean liburu bat irakurri.

Zinegotzi lanetan ala atabala jotzen moldatzen zara hobekien?


Momentuz atabala jotzen, denborarekin bietan espero dut.

Atta atabalaria zenuen, zu ere bai.

Seme edo alabak badute afiziorik?

Momentuz ez, baina nork daki. Alaba trikitixa ikasten ari da eta uste dut bakoitzak gustuko duelakoz egin behar duela, ez amak edo attak egiten duelakoz.

Elgorriagako Udalak ez omen du zorrik bankuekin. Zein da sekretua?



Hori aitzineko borts zinegotziei galdetu beharko zaie. Tanto hori nik apuntatzea ez litzateke bizkoi izan.

Mattin LARRALDE → Elgorriagako zinegotzia

Zortea daukat orain borts horietako laurekin nagoelako eta hala ikasten ahal dut.

Zer du Elgorriagak Arantzak ez duena? Eta alderantziz?

Elgorrik balnearioa eta Arantzak baserriak edo eskola bertan.

Elgorriagako bestetatik gehien gustatzen zaizuna, zer da?

Haurren eguna eta zikiro eguna.

Nolakoak heldu dira aurten bestak?

Urterokoak bezala. Jendeak behar du giroan sartua egon, arazoak atzendum eta lau egun horiek jendearekin egonez, besta giroa eginez.

Nola ikusten duzu Elgorriagaren etorkizuna?

Nahiz eta orokorrean gauzak beltz ikusten diren krisi honekin, aitzinera begiratu, pentsatu nahi nuke lurra jo dugula eta hemendik aitzinera hobeki joanen dela. Amets egitea libre da.

Berriemaile lanetan ere fin moldatzen zara. Denbora aunitz hartzen dizu?

Orain denbora pixka bat eta hasieran nahiko denbora.

Uda honetan gustura eginen zenukeen planen bat?

Bizikletan ibili, oporretan joan, Elgorrin eta Arantzan besta egin eta nahi dudan jendearekin egon, azkenean ahalik eta gusturana egon.

elika
Dietetikoa eta zuzendaritza

- Alkateratze dietetikoa
- Nutziberritas dietetikoa
- Dietetikoa laguntza emateko
- Dietetikoa laguntza emateko
- Dietetikoa laguntza emateko
- Dietetikoa laguntza emateko
- Dietetikoa laguntza emateko

www.elikabera.com

Karsuk

Muebles de cocina
Mobilier de cuisine
Sukaldekoko altxariak

Karlos Pontzer Saraz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Erpresa berrizuzendutarako sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedientiak
- Bidegaitasun planak eta sumentuak

www.artekari.com

LESAKA: Siltzio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BUREATA: La Yiba, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

KOXKONTA Jabetza

Haberreko eta asleberreko merendi, korta, eskaintzarik berekin, jantzerietarako berkiak...

Tel: 948 627 519 • 948 627 503 • 889 801 657
Olsanga autoa, LESAKA

GIZARTEA

GIZARTEA → 13 URTEREN ONDOTIK

Udalbiltza berrantolatzeke deia egin dute eskualdeko zenbait hautetsik

Udalbiltzaren oinarriak jarriko dituen talde eragilean eskualdeko hiru ordezkari

TTIPI-TTAPA

Espainiako Audientzia Nazionalak Udalbiltza auziko kideak absolutu zituenetik urte eta erdi pasatu denean, Udalbiltza berrantolatzeke asmoak aitzinera segitzen du. Martxoaren 31n jatorri politiko anitza duten Euskal Herriko zazpi herrialdeetako 26 alkate zein zinegotziak egin zuten berrantola-



ARGAZKIA: PATXIKU IRISARRI

Bera, Baztan, Bertizarana, Lesaka eta Iturengo hautetsiek agerraldia egin zuten Amaiurren.

tzeke proposamena, Aitor Etxarri eta Imanol Artola, Leitza eta Arantzako zinegotziak tartean zirela. Eta atxikimendu

kanpainarekin segitzen dute.

Eskualdeko hainbat hautetsik egin du bat ekinmen honekin: Bildu, Na-

Bai 2011 edota independenteek, erraterako. Horretarako deia ere egin zuten zenbait hautetsik joan den hilabetean

Amaiurko gazteluaren oroitarrian egindako agerraldian, «proiektu honetan sinisten badute bederen, beraien ize-na eman dezaten» gonbidatuz.

Ekainaren 30ean, berri, Udalbiltza berrantolatzeke deia egiteaz gain, Udalbiltza berriaren oinarriak jarriko dituen talde eragilean osatu zuten Iruñean. Oraingoz, hamazazpi lagunek osatzen dute taldea eta tartean daude Maite Iturre Baztango zinegotzia, Oier Eizmendi Leitza alkatea eta Ur Algero Are-soko alkatea. Atxikimendua eman dutenak, berri, 1.100 hautetsi dira. Internetez egin daiteke.

BERTSOLARITZA

HEZKUNTZA → NAFARROAKO GOBERNUAK DIRU PARTIDA KENDUKO DU

Ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko programa bertan behera utzi du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa bertan behera uztea erabaki du. Nafarroako Bertsotzale Elkartetik azaldu dutenez, «orain dela bi aste, telefonodei baten bitartez, hurrengo ikasturteetik aitzinera egitasmoak ez duela diru finantzaziorik izanen jakinarazi zuten, horretarako bideratutako partida desagertu behar zelako». Gaineratu dutenez, «Bertsotzale Elkar-

teak eta Nafarroako Gobernuak 2011ko udan hiru urtetarako sinatu zuten kontratua deuseztatu du Hezkuntza Sailak».

Ikasturte honetan Nafarroako 31 ikastetxetako 1.100 ikasle inguruk parte hartu dute programan. Trukean, Gobernuak 48.000 euro bideratu ditu Bertsotzale Elkartera, «soilik programaren heren bat finantzatzeko, gainerakoa udal eta mankomunitateen ekarpenari esker finantzatu da». Eskualde-

ko ikastetxeen kasuan, Baztan Ikastola, Elizondoko San Francisco Jabier, Doneztebeko San Migel, Almandozko eskola, Berako Ricardo Barroja, Goizuetako Xaltoa eta Leitza Eskola Eskoletako 168 ikasle landu dute programa. Baina hainbat herritan txandaka egiten denez, hurrengo urtean berez, Ziga, Igantzi eta Arantzako eskolei tokatuko litzaieke.

1997an paratu zen abian *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa, Na-

farroako Dereduko ikastetxe publikoetan. Hala, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek urritik maiatzera 30 orduko ikastaroa hartu izan dute.

Bertsotzale Elkartetik adierazi dutenez, «bertsogintzaren oinarriko ezagupenak eta teknikak ikasteko balio izateaz gain, programak bestelako onura aunitz ekarri ditu ikasleentzat: geletan euskara erabiltzeko modu ezin egokiaroa da, hizkuntzaren al-

derdi jostagarria erakusten die, haiena ez den rol bat hartzen eta ondokoa entzuten ikasten dute, ahozkotasanaren garrantziaz jabetzen dira...».

Erabakia dela eta, Bertsotzale Elkarteak, «harridura, kezka eta haserrea» agertu ditu eta Hezkuntza Sailari, «beharrezkoa, onuragarria eta errentagarria den *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa diruz laguntzen segitzeko» eskatu dio, «iaz sinatutako kontratua betez».

ITUREN, ELGORRIAGA eta ELIZONDOko bestak 2012
uztailaren 13tik 16ra eta uztailaren 24tik 29ra



ELGORRIAGAKO UDALAK

besta zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei





ALTXUNEA ERRETEGIA
IREKITA
Central energetikoa, igarapen energetikoa,
besta energetikoa eta besta energetikoa
ABUZTUAN EGUNERO IREKITA
Kortxeak: 27 - ITUREN
T. 948 450 410



Tresanea
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
Kontzeju Karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287
info@tresanea.com | www.tresanea.com



Iturengo Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
iturendar eta
bisitari guztiei



ITURENGO

bestak 2012

EGITARAUA

Uztailak 13 ortzirala

17:00 pailazoak herriko plazan, lbintzaren eskutik. **19:00** Herriko dantzarien saioa. **20:00** txupinazoa eta kalejira herriko musikari eta buruhandiekin. **21:30** Afaria Altxunea erretegia, lbintzak antolatua. **00:00-04:00** Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Uztailak 14 larunbata

10:00 Diana. **11:00-13:00** Serigrafia tailerra eta haur joku tradizionalak Gazte Asanbladaren eskutik. Puzgarriak. **14:00** Gazte bazkaria. **16:30** Gazte jokuak. **18:00** pintxo lehiaketa, txokolatada eta zingar jatea. **20:00-21:30** dantzaldia GARRAXI taldearekin. **00:30** NORTE APACHE eta KARENKA taldeen emanaldia. **Ondotik** dantzaldia GARRAXI taldearekin.

Uztailak 15 igandea

10:00 Diana. **11:00** puzgarriak. **12:30** Herri kirolak. **17:30** Gorritiren animaliak eta mus txapelketa. **19:00** tortilla txapelketa (bakoitzak bere tresnak ekarri, osagaiak udalak jarriko ditu) eta postre lehiaketa (bakoitzak etxean prestatu bere bandeja). Barrikotea eta apo jokoa. **20:30** Aire ahizpen kantaldia. **23:00-02:00** dantzaldia GABENARA taldearekin.

Uztailak 16 astelehena

10:00 Diana. **10:30** plater tiroketa. **11:00** Puzgarriak haurrentzat. **12:00** pilota txapelketako finalak. **14:00** herri bazkaria Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. **20:00-21:30** dantzaldia AIERRIK taldearekin. **00:00-04:00** dantzaldia AIERRIK taldearekin.




BEROTZA

ITURGIN

Errafaldea Industrialdea:
31745 Aurtiz - Ituren (Na)
Tel.: 948450469 - 620884443
www.berotza.es - Email: info@berotza.es

ENERGIA BERRITAGARRIAK:
- FOTONIK SARRIA
- TERMIKO
- GEOTERMA
- AEROTERMA
- BIOMASA
- PELLETA, EGURREKO
- ESTUFAN eta
- HIDROESTUFAN
- PELLETA, BURUJA,
- ZERRAMTZA, EGURRA,
- ZEPALAK, BIRIETA,
- GAS eta GASOLIOZKO
- BALDARNA KOMBINATUAK

KLIMATIZAZIOA:
- ITURGITZA
- ELEKTRIZITATEA
- AUDITORIA ENERGETIKOAK
- PELLETA BANATZAILA,
- ZAKURTAN eta GRANELAN
- GILDABEH RENOVE,
- PLANAREN LUDUNTZAILA,
- HAZARROAK
- GOBERNUAREN
- INSTALAZIOAK PUNTATZU
- LERNAIZATU eta
- LAGUNTZEN TRAMITAZIOA

ENERGIA BERRITAGARRIEN LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA IREKITA



ELGORRIAGAKO bestak 2012

EGITARAUA

Uztailak 25 asteazkena SANTIAGO EGUNA

10:30 Argi Soinu eta diana txistulariekin. **11:30** Santiago Apostoluaren omenezko Meza nagusia. **12:30** Euskal dantzak, dantzari txikien eskutik. Ondotik aperitiboa. **17:00** Magia Asier Kidamen eskutik. **18:00** patata tortilla lehiaketa. Beti bezala udalak banatuko ditu osagaiak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia SANTXOTENArekin.

Uztailak 27 ortzirala

17:00 Herriko haurrentzat krosa. **18:00** Haurrentzat eskalatzeko rokodromoa. **20:00** Txupinazoa eta kalejira trikitixarekin. **21:00** Zopak Hilarion jatetxean. **00:00-03:30** dantzaldia BIXENTErekin.

Uztailak 28 larunbata HAURREN EGUNA

10:00 Diana trikitixarekin. **10:00** Haurrentzat puzgarriak. **12:00** haur jokoak eta aurpegi margoketa. **14:00** Haurrentzat bazkaria gurasoek antolatuta, elkartean. **16:00** Mus txapelketa. **20:00** Merendu-afaria herritar guzientzat. **20:00-22:00 eta 00:30-04:00** musika AIERRIK taldearekin.

Uztailak 29 igandea ZIKIRO JATE EGUNA

10:00 Diana trikitixarekin. **12:00** toka txapelketa. **14:00** bazkaria, zikiro jatea SANTXOTENA akordioi jotzailearekin. **Arratsaldez eta gauetz** musika SANTXOTENArekin. Eta bestak ongi akitzeko... Gaixoa Ni!

EIDER
Astearte eta osteguna: 09:00 - 13:30
Astelehena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbata: Gaias
Komplexo, 6 | TUFREN | T. 630 633 445

Herriko Ostalua
Zerbitzu guztiak zure zerbitzuan
Zerbitzuak eta beste
zerbitzuak zure
zerbitzuan.
San Pedro, 1 - ELGORRIAGA - 687 018 969

ELGORRIAGA
BALNEARIOA ELGORRIAGA
Lorionak!
Erretaldean s/4 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 60 45 | www.balnearioelgorriaga.com

**ELGORRIAGAKO
UDALAK**
*besta zoriontsuak
opa dishizae
herritar
eta bisitari gazteiei*



Tel: 948 58 00 25
Kris
ileapaindegia
Elizondoko, 14 • 48100 ELIZONDO

Belzunequi
DESDE 1947
Jaime Urrutia 14 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

LA BAZTANESA S.A.
ELIZONDO
Tel/Fax: 948 580 129
IRUÑEA
Tel: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com

ETXERO ARATZEAR
ZAMAIL
GANADERIA PROPIA
Santiago, 56B - beheak
31700 ELIZONDO
Tel. 948 452 486

Albaitaritzta
www.albaitaritzta.com
Tel.: 948 500 980
Materiala
Burtin
Haziak
Osagarri mineralak
Bibote eta arzetanondako erresak
Zabai eta denbortzatzaileak
Albaitack
www.albaitack.com
Tel.: 948 506 169
ALBAIKIDE
Tel.: 902 169 169
www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua

ELIZONDOKO
bestak 2012

Mikel JAIMERENA | Jaimerena Ileapaindegikoa

«Errekurtso guti duen jendeari ilea apaintzeko aukera eman nahi diogu doan»

34 urte ditu Mikel Jaimerena Elizondoko pelukeroak. Maite arrebarekin eta Haizea Errandonearekin batera kudeatzen du Jaimerena ileapaindegia. Aita eta osabak gizezkoendako ileapaindegia zuten, baina azkeneko hamabi urteetan emakume nahiz gizasemeek erabiltzen ahal dute.

Uztailaren 3an, Bidelagun elkartearen bidez ileapaindegian eginen duten kanpainaren berri eman zuten. Lan orduetatik kanpo eta doan, errekurtsu guttien duen jendeari ilea mozteko eta apaintzeko aukera emanen diote, hilabeteko lehenbiziko astearteetan. **«Hainbertze urtez hemengo jendeari esker bizitzen ari gara –aipatu digu Mikelek– eta okurritu zitzaigun zerbait egiten ahal genuela hori konpentsatzeko, gaur egun bizi dugun momentu txarra dela eta gaizki pasatzen ari den jendea laguntzen ahal genuela eta Bidelagun elkartearekin solastu eta adostu genuen kanpaina hau abiatzea. Azkenean, hilabetean egun bat beraiendako lanean arituko gara, lan ordu normalak akitu eta pare bat orduz, doan.»**

Pertsona hauek ileapaindegiko zerbitzu guztiak eskura izanen dituztela garbi utzi nahi du Jaimerenak: **«Bertze edozein bezero bezala hartuko ditugu eta nahi duten hura eginen diegu. Normalean 20:00etan ixten dugu, baina ordu horretatik aitzinera datorren jendea hartuko dugu. Nahi duenak ilea moztu, moztuko diogu; kolorea eman nahi duenak kolorea eman, orraztu... Beraientzako ere, momentu txar hori arintzeko eta pittat alaitzeko modua izaten ahal da ileapaindegitik guapo-guapo ateratzea. Bidelagun elkartearen bidez bideratuko dute jendea. Guk bi orduz lau gizon eta bizpahiru emakume hartzen ahal ditugula erran genien eta eurek bideratuko dute jendea.»**

Mikel Jaimerenarentzat elkartasuna adierazteko modu bat da eskaintza hau, **«gure-tako laguntza emateko modu bat da, zerbait emozionala, laguntza emanez ongi sentitu nahi dugu. Hilabetean bi ordu gehiago aritzea bertzerik ez da guretako eta horrekin laguntzen ahal badugu eta jendea pixko bat alaitsuago ikusi, satisfakzione bat da»**, jakinarazi digu. Noski, gaur egungo egoera ileapaindegian ere somatzen dute eta lehen baino bakanago hurbiltzen da jendea. **«Gauden momentuan denean somatzen da jautsiera –erran digu pelukeroak–, eta gurean ere bai. Ez da lehengo alaitasunik. Lehen ilea luzatzen hasi orduko etortzen zen jendea mozteta eta orain luzeago uzten du. Emozionalki ere geldiago gaude denak, ez dago lehenagoko ilusionea eta hori guk ere somatzen dugu. Jendeak beldurra du, ez da bertzerik aditzen, guzuzak okerragora doazela... eta orduan sakelari gehixe-**

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Abiarazketa
- Astelehenetik ostirara bitarteko bitarteko bitarteko
- Eza-erantzukizuna
- Baita eta Abiarazketa
- Auzoak eta erakundeak
- Erreserba eta bitarteko bitarteko bitarteko
- Gauderak
- Baita eta Abiarazketa
- Gauderak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Maite Jaimerena, Haizea Errandonea eta Mikel Jaimerena, ileapaindegian.

go begirutzen dio». Dena den, besta aitzineko egunak eta orokorrean, udaberri-uda partean lan gehiagoko tenorea izaten da ileapaindegian. **«Bai, bestak hurbiltzen direnean somatzen dugu eta komunioneak direla, uda partean ezkontzak eta gehiago izaten dira eta jendeak okasione berezi horietan nahi izaten du ilea apaindu. Hori nabaritzen dugu»**, onartu du Mikelek. Halere, bestetarako orrazkera edo korte berezirik egiteko ohiturarik ez dagoela pentsatzen du, **«denetarik bada, baina bereziki bestetan ez da gehiago izaten. Ausartzen dena korte edo kolore espezialekin beti atrebizten da, ez du bestetara esperatzen. Hori pertsonaren araberakoa da»**. Pertsona bakoitzaren gauzarik politenak ateratzen saiatzen direla ere erran digu Jaimerena, **«bezeroaren aurpegia estudiatzen dugu eta ahalik eta ile-mozketa edo kolore jakin batekin, bakoitzaren ezaugarri errendimendurik gehiena ateratzen saiatzen gara»**. Besta bezperan lan gehiago egitea egokitzen bazaie ere, bestetan itxi eta Santioetan murgiltzeko aukera izaten du Mikel Jaimerena. Zer den gehien gustatzen zaiona? **«Lagunekin elkartzea, bazkari-afariak, aperitibo hartzea... Egunez eta gaez disfrutatzen saiatzen gara. Egunaren arabera aperitibora ateratzen zara, gero igual bazkaria eta arratsaldean segitzen duzu. Bertze batzuetan igual bakarrik arratsean ateratzen zara... Normalean frango xaguxaharra izaten naiz, baina adinarekin hasten zara pittanaka eguneko gauzak ere ikusten eta parte hartzen»**. Baztandarren Biltzarra ere arras besta polita iruditzen zaio, **«ez dut karrozarik egiten, baina egun polita da. Goizetik karrozak ikusi, giro berezia izaten da eta baztandar guztiak elkartzen dituen besta ederra da. Santiago bestak ere politik dira, beraz biek in geldituko nintzake»**, adierazi digu Jaimerena.

Gonzalez anaiak
Burdina eta aluminioa
Gonzalez anaiak
Elizondo, 21
Tfnoa: 948 550 237
ELIZONDO

BIDEGAIN
ARRAINDEGIA
ELIZONDO - T. 948 580 496
DONGZTEBE - T. 948 456 188

ESKISAROI
JATETXEA
T. 948 580 033
Zaingo Uribia - ELIZONDO

JAIMERENA
PELUQUEROS
ogipaindegia
T. 948 581 373
Santiago, 19 - ELIZONDO

TXARTELAK (20 unke)
Karbolina berezia 400gr. + koloretan = BEZ berriz
500 92€
Billete 3artek
1000 berriz 72€ - 2000 berriz 88€ - 1000 berriz 114€
Arduyuetza, 19 - EDOAKAR - 948 835 448
kulturan@ttipi.net - www.ttipi.net

ferreteria
Quevedo

Babesa eta esertasuna goziaren gainetik.

- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...

Santiago 31 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 234
Faxa: 948 581 210

SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA | KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK | ERABILTAKO NEKAZAL TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA

NEW HOLLAND
AGRIA

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

ONGI PASA BESTAK

Instalazio
elektrikoak

Komponkatak

**ANGEL TRANTXE
ELEKTRIZISTA**

T. 948 452 248 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

BAZTANESA
BARRIKADORA

ONGI PASA BESTAKI
Edariak, izozkia, garbakeriak, pentsuak...
Barraketa eskuziboz. EGUNEROKO OGIA

Berakoetxeen Gortzia, 3 | ELIZONDO
T. 948 580 305 | 948 980 138

ANTHONIA
BARRAKETA

27 Ingalatza, Elizondo 31100
The ground floor contains 1100 sqm and 17
rooms. 112 sqm are used for restaurant.

ONGI PASA BESTAKI

Barraketa Berrak, 16, Elizondo • 948 581 907 • 948 581 851
barraketa@antonia.com • www.antonia.com

elicetxe
suministrazio elektrikoak

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel: 948 581 285 - Fax: 948 452 329
Santago, 97 Elizondo | ELIZONDO

BARATZERIA • URDAITEKIA • ARRAINDEGIA

Galarregi
Supermerkatua

Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta likoreetan

Santago, 13 • ELIZONDO • Tlf: 948 580 026

URREGINE
Emili Hernaiz

JANTZI
UDAKO BILDUMA
BERRIA ETA
KOLORETSUA

948 580 834
Jantzi Urregine, 20
ELIZONDO

DATUCELAY

Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketa
Mekanika • Elektrizitatea
Gasen aztertzailak • ITV-rako prestakuntza

**IBILGAILU KLASE GUZTIEN
KONPONKETA**

ONGI PASA BESTAK

Santago, 90 • ELIZONDO • Tel. 948 580 225

**MARIA
MILAGROS
ELGEZUA**
ABOHATUA

Laister
948 580 1800
helbide honetan:
Santago Urteak, 27 •
31700 ELIZONDO

ONGI PASA BESTAKI

Telefono: 317000
3170000000
Telefono: 948 580 1800
Telefono: 948 580 1800

LANITZEGAN
PARTIDULARIARI

Malkorra

Txokolatas irrakim egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia

Santago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

DC BALLARENA CONSTRUCCIONES, S.L.

ERREKONSTRUKZIOEN ENBUNTZA ETA ERREFORMAK
BILBUNTZA, ELEKTROINSTALAZIOAK, KALZIFAKZIOA, AIRU-EGONKETA

Santago, 60 beheak • ELIZONDO
ballarena@telefonos.es | Tel./Fax: 948 452 305
Mug. 647 688 988 - 647 688 962

Baztango
FRUTAK eta BARAZKIAK
FRUTAS Y VERDURAS

FRUTAK eta BARAZKIAK

ONGI PASA BESTAKI!

Santago, 27 (Iturburuaren aldean)
948 580 858
ELIZONDO

esarte

Santago 83 B bajo
31700 Elizondo
T. 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

EGITARAUA

Uztailak 24 asteartea **BEZPERA**

12:00 Txupinazioa eta Baztan-zopak Herriko plazan. Eskola eta Ikastolako haurrek Santioen inguruko marrazkiak egin zituzten. Aukeratua izan den marrazkiaren egileak botako du txupinazioa: Miren Zubikoa Eraso. **Ondotik** Konpartsarekin itzulia. **16:00** haurrendako margoaldia eta merendue Plazan. **18:00** Haurren Herri Krosa. **19:00** Helduen Herri Krosa. Antolatzailea: Baztango Lasterketa Taldea. **19:30** Karrikadantza Konpartsa, txistulariak, gaitariak, txaranga... **20:00** Salbea elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacar-en zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Felix Txoperena eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntzarekin. **Ondotik** karrikadantza Elizatik Fco. Joaquin Iriarte erresidentziara. **20:30** Arratsaldeko Txupinazioa eta Txistorrada Plazan, lanetik atera berriek direnek aukera izan dezaten. **20:30** Munduko plateren dasaketa Plazan. Jatorri aunitzetako jakiak, jatorri aunitzetako herritarrek eginak. **21:00** Kontzertua POTTOKArekin Plazan. **00:00** Dantzaldia MAKALArekin Plazan.

Uztailak 25 asteazkena **SANTIAGO EGUNA**

09:30 Argi Soinuak. **10:30** Karrikadantza. **11:30** Meza Nagusia Elizan. Elizondoko Koralak, Isabel Lacar-en zuzendaritzapean eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntzaz *Misa de Eslava* eskainiko du. **12:30** Karrikadantzantza Plazarat Elizatik. **12:30** Mutildantzak plazan. **13:00** Luntxa plazan. **13:30** Karrikadantza. **18:00** Jokuan Baztan Berrin eta Erlategin, gazteek eskainiak. Adinaren arabera: ume eta gurasoendako jokuak, Altxorren bila eta Ginkana. **19:00** Bonba japonesak Baztan Berrin haurrendako. **19:30** bertso saio haundia plazan: Jon Maia, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Sustrai Colina. **21:00** dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutildantzak. **23:00** su artifizialak Juanikotena pirotekniaren eskutik. **23:30** MIGEL ANJEL Y EL MARIATXI DE LA CANTINA plazan. **01:00** dantzaldia JALISKOrekin plazan.




ESTIBALIZ
ESTETIKA ZENTRUA
Kalea: 14 ELIZONDOKO
948 581 340

Peeling intensiboa **39€**
+ lifting tratamendua

Gorputz esfoliazioa **29€**
+ presoterapia

Kabilazioa **29€**
+ presoterapia
+ plataforma bibratzailea

Eskaintzaren epea: 2012ko abuztuaren 1etik 20ra



Idoia Ordeza
KAPARREREA

kaparrerea | Modak zerbitzua | Barria, barnera
Buru garbitzeo bulak, elizatu marroi, eslemaekin

Tel: 948 580 350 | Plaza: 1, 1. planta | ELIZONDO
http://www.idoiaordeza.com | www.idoiaordeza.com



Maite Petirena

Segurantzaren eta Inbertsioaren Espertza **Allianz**

Tel: 948 452 394
Nafarroa Plaza 1 | 41700 Elorrio



FOTO MENA ELIZONDO

www.fotomena.com | Tel: 948 581 333 | www.fotomena.com



EGUZKI-ALDE **GOIZALDE**
ostatua

ASTEBURUETAN
MENUA

ONGI PASA BESTAK!

Santiago, 43 · ELIZONDO
Tel. 948 581 442

Jaime Urrutia, 8 · ELIZONDO
Tel. 948 581334

ALMACO BAZTAN GRUP GANTIA

Komunerako behar duzun
guztia / burdindegia /
laneko arropa / pintura /
eraikuntzarako materiala
makinariaren alokairua
ekonomikak / estufak
zeramika / parketa / ateak



KALITATE HAUNDIKO ETA GARBITU
DATTEKEEN KOLORETAKO PINTURA
BERE XUKADERAREKIN

Errepide nagusia, Elizondo

Tei. 948 580 104 Fax. 948 581 857

POTTOKI



**Haurrendako
behar duzun guztia**



Baztanberri Plaza. 3 - behea | ELIZONDO

T. 948 581 983 | info@pottoki.com | www.pottoki.com

Zein polita den haurra izatea!!



Pottoki Haurrendako behar duzun guztia

Uztailak 26 ortzeguna PILOTAREN EGUNA ETA GAZTE EGUNA

09:30 Argi soinuak **11:00** Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa. **11:00-14:00** Puzgarriak igerilekuan. Igerilekurako sarrera denendako musutruk ordutegi horretan. **12:00** Elizondoko II. Pilota Torneoko finala. **14:00** kuadrillen bazkaria Merkatuko Plazako gorapetan **16:00** haurrendako tailerrak Iriarte pilotalekuan. **17:30** pilota partidak Baztango izarrekin. Pala: Ibargarai-Aierbe/Altadill-Garzia. Erremontea profesionalen artean. Esku pilota: Mikel Goñi-Eulate/Eugi-Goñi III. **18:00** Ginkana. Froga eta jostetak erreka jautsieran. Ez da errekontzirik egin beharrik. **19:30** Baztan Zopak Txokoton Pirrinek eskainiak. **20:30** dantzaldia TRIKIDANTZekin. **21:00** Dantza Herrikoiak Ziga Plazan. **22:00** Mutildantzak. **23:00** Kaskezuren kontzertua Ilargiko gorapetan. **00:00** dantzaldia TRIKIDANTZekin. **06:00** Zinger jatea Merkatuko Plazan.

Uztailak 27 ortziralra HAUR, AITATXI ETA AMATXIEN EGUNA

09:30 argi soinuak Beartzunen. **10:00** bizikleta martxa plazatik Beartzunera, adin guztietarako. Itzalargikobordan gosaria eta haurrak bertaraino joan daitezke. **10:00** Gosari herrikoa Berron. Ondotik, itzulia Fanfarre Mi-Farekin. **11:00** Erraldoi eta buruhaundiekin ibilaldia. **11:30** haurrendako antzerkia plazan. **12:30** Recreo de Elizondo musika bandaren emaldia Mariano Izeta plazan (euriarekin Arizkunenean). **13:00** aitatxi-amatxi guztiendako bazkaria adinekoen egoitzan. **16:00** Elizondoko III. Mus txapelketa Xalbador karrikan, Fal-farak elkartek antolatua. **17:00** haurrendako herri kirolak Iriarte pilotalekuan. **18:00** Txokolatada plazan. **19:00** bonba japonesak plazan. **19:30** bertso poteoa Gaztetxetik hasita Aiala Martin eta Beñat Gaztelumendirekin. **20:00** elkarretaratzea *Euskal Preso Politiko eta Errefuxatuen Eskubideen Defentsan*, Txozna Batzordeak antolatua. **20:30** haurrendako Karaokea plazan. **21:00** dantza herrikoiak Ziga plazan. **21:00** brindisa eta afaria errepre-saliatuen alde. **22:00** Mutildantzak. **23:30** dantzaldia SANTXOTENArekin Ziga Plazan. **23:30** Metarock: Leihotikan, Itziarren Semeak eta Tirri&Tery. Gau osoan, sentsibilizatorako eta sustantzien analisirako puntua egonen da plaza inguruan.



ongi pasa bestak!

Oskariz anaiak

ongi pasa bestak!

Teléfono: 948 432 255 - 419 406 300

Madrilgoa - ELIZONDO

ongi pasa bestak!

BICLAM

ileapaindegia

ongi pasa bestak!

Braulio Iriarte, 58 • ELIZONDO • T. 948 581 874

AXULAR

Elizondoko, Txak, erremontatuta, plazarrean, jantzeria, zerbait, zerbait eta...
 Hala ere, ez da...
 Hala ere, ez da...



Santiago • ELIZONDO • T. 948 581 507

E
Z
K
O
N
T
Z
A
R



Zaldúa

Elizondo - Oroszteke

WWW.zaldua.com

ARIZKUN BAZTAN



URBANIZATUTAKO LUR EREMUEN

SALMENTA

66.000€-tik hasita

500m²-tik hasita

Proyecto de Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Bori, 6 - behea
 31700 Elizondo
 Tel: 948 580 344
 info@lindutx.com
 www.lindutx.com
 ongi pasa bestak!

Hargitxel Enstehantzek, S.L.

arteka 
 arkitektura - enpresa arkitektura
 (Garaia 1990-1995)
 Tel. 948 000010 | Plaza Dr. Sarriena 1-1. A
 Fax 948 452434 | 31700 Elizondo Nafarroa
 info@artekabaztan.com

SOBRINO
 pintxoak ostafua
 bakatak plater konbinatuak
 Santiago - ELIZONDO
 948580123
BESTAK

zapatarri 
 Bena kaleratzen da
 Tel: 948 36 52 92 - hizkuntza@gmail.com
 Plaza/Plaza (Barrutia) 12
 31700 Elizondo - Nafarroa

KARRIKA
 ONGI PASA BESTAK!
 Jaime Urutia, 11 • ELIZONDO
 948 581 278

Ongi pasa bestak!
libreria nafarpress
 liburudenda
 EBOKATU ZURE TESTU LIBURURAK
 Jaime Urutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

Bizitea
 ONGI PASA BESTAK!
 Tel: 948 580 220 | Santiago, 12 • ELIZONDO

Dia 
 Santiaño, 60 | ELIZONDO | T. 948 580 453

SALDIASKO
 olindegia
 egurrezko labea

 Olasoa etxea
 T. 948615046
 SALDIAS

MAÑONEA AGENTZIA
 aseguruak
 ONGI PASA BESTAK!

 Brandia Irujo, 9
 ELIZONDO
 T. 948 581 132
GENERALI GROUP

Suteia-Zaldaiñ

instalazioak
IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK
ONGI PASA BESTAK!
 Santiago, 71
 31700 ELIZONDO | NAFARROA
 T. 948 580 166 | F. 948 452 557
 M. 619 424 999 | 649 699 820



Mayi Juanikotena, suziriak pizteko prest, duela bi urteko txupinazoan.

Mayi JUANIKOTENA | Elizondoko piroteknikoa

«Errege Kabalgatatik bonba batzuk gorde eta hasi ginen Santioetan botatzen»

Elizondoko Santioetako egitarau zabalak hainbat ekitaldi aipagarri ditu. Horieta bat, berezia, Santio eguneko su artifizialak dira. Bertze herrietan ere izaten dira suak, baina Elizondon bertako batek, Mayi Juanikotena prestatzen ditu aspaldiko urteetan. «**Piroteknia deitzea soberaxko da**», aipatu digu 65 urteko elizondarrak.

Duela urte saila, Errege kabalgatarekin hasi zen Juanikotena. «**Orduan, mutikoak ginela, 75 mm.ko diametroa zuten bonba batzuk agertzen hasi ziren, bazooka moduko lan-zadera batzuekin botatzen zirenak. Gu baino handiago batek botatzen zituen San Pedro mendian eta guk bengala batzuk pizten genituen, Erregeak heldu zirela adierazteko. Handik La Mecara jaitsi eta handik abiatzen zen Kabalgata... Bonba haiek aunitz balio zuten eta bat edo berte botatzen hasi ginen. 8-10 ekartzen nituen eta bakarren bat gordetzen nuen Santioetarako, Txokoto inguruan botatzeko. Alkateari gustatu zitzaion eta ordaintzen zuenez, gaur egun 30 bat botatzen ditugu, ez gehiago**», aipatu digu. Pixkanaka trukoak ere ikasten direla aipatu digu Juanikotena, «**bat bertzearekin lotu, zeruan kasik batera lehertzen dira eta argi ezberdinak lortzen dira**». Diametro ttikiagoko suziriak dituzten kaja batzuk pizten dituzte orai, «**bat biztu eta 30 igual batera ateratzen dira. Lehengo bonba haiek baino arrisku ttikiagoa dute, baina sua tartean denean, beti bada arrisku pittat**».

Orai, «**erretiratzeko ordua**» dela ere uste du Mayik eta Jabi Gomezen esku utzi du arduraren gehiena. Baina pirotekniaz gain, zikiroa prestatzen ere urtetan aritu da, «**pixko bat laguntzen bertzerik ez**», umil aipatu digunez. Baina Iruñeko Sanferminetako entzierroan ere ateratu du urteetan, «**orai ez, erdi maingu nabil, aldakatik operatua bainago eta ezin dut laster egin eta orai espaloitik begiratzen dut... kantatu pittat eta zezenak pasatzen ikusi**».

Elizondon gaur egun ez da betzurik izaten, baina ez du horren falta somatzen, «**denborarekin paso egiten duzu**», dio Juanikotena. Hori bai, bestetan pilota partidak ikustea da gehien gustatzen zaiona. Mayik erran digunez, «**aurten ere gustora ikusiko ditut Mikel Goñi, Eugi, Fernando Goñi... lehen mailakoak ekartzea arras garesti ateratzen da eta hauek ere partida politik eta borrokatuak egiten dituzte**».

Larunbat
artezaldetan
irakia

VIRGILIO

5%10

Santiaño, 37 - ELIZONDO
948 580 309

MEPKEALDIA

BAZTAN
Ferreteria

Pintura | Kristalak | Treeneria
Arztegiko gauzak | Opariak

Santiaño, 79 - Indusbidua
ELIZONDO • T. 948 580 423

COCINAS RISTER

T. 948 45 26 10
Jaure Alruña, 3 ELIZONDO

«Berehala erabaki eta Berrabiatu»

Natura Elvea

Santiaño, 17 | ELIZONDO | T. 948 580 303

Elkagai ekologikoa | Sanitabelarrik
Produktu naturalak | Kosmetika naturala
Naturapara berrabiatu | Pisu-terapiak
Zapata naturalak | Liburuak
Bizi-koasmetika

TRATAMENTUAK

- Alergiak
- Mahatsa-dietak
- Ansietatea
- Artrosia
- Defentsak
- Kolesterolia
- Diabetesa
- Hekea
- Zelulazioa
- Kolesterolia
- Menopausia
- Giltzurruna
- Dietetika
- Orgastiboa
- Hemorroideak
- Hormonala
- Imunologikoa
- Nerbio-sistema
- Nutrisioa
- Hezurrezkoa-Muskulorra-Artikularra
- Arnasaketa
- Tentsioa
- Triptura
- Gernua
- Aromaterapia
- Antioxidatzailea
- Bach loreak

*Natura Elvea gurekin 1999an ezagutzeko
Elizondoko*

GOÑI
harategia

ONGI PASA BESTAKI

Mendiakute, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

www.laborra.com

LABORRA ARKITEKTOA

T. 948 580 122
Santiago, 54 - 1^o - ELIZONDO

ONGI PASA BESTAKI

Beatriz
argaltze sistema
sistema de dietas

Santiago, 53 - ELIZONDO
948 580 263

ARGALTZE SISTEMA BERRIENA
GRASA ELIMINATU ETA GORPUTZA TONIFIKATU

Erretzak lehenengo kateko kuxkako sistema

Alergia eta elikagaien intolerantziaren azterketa. Hasierako fitxa **DOAN**

UDAKO PROMOZIOAK

ELIZONDOKO
bestak 2012

Uztailak 28 larunbata HERRIAREN EGUNA

09:30 argi soinuak. **11:00** erraldoi eta buruhaundien ibilaldia. **11:00** Munduko XV. Kanika txapelketa Eliza atarian. **12:00** puzgarriak eta kars Laxoako pilotalekuan. **13:30** Gaztetxearen VIII. urteurreneko bazkaria Merkatuko Plazako gorapean. **Ondotik** Mantala-No kantaldia, Gaztetxeak antolatua. **14:30** Zikiro jatea ikastolako parkean. Ondotik joku batzuk. **16:00** Puzgarriak eta kars Laxoako pilotalekuan. **17:00** La Que Tu Me Haces konpainiaren eskutik *Orgamen* antzezlanaren finala Laxoa Plazan. Emakumezkoen Euskal Herriko txingira txapelketa eta gizonezkoen Nafarroako koxkor biltze txapelketa ere jokatu dira. Euria eginen balu Iriarte pilotalekuan. **20:30** dantzaldia GARRAXI taldearekin. **21:00** Kontzertuak Gaztetxean. **21:00** dantza herrikoiak Foruen Plazan. **22:00** Mutildantzak. **00:00** Giza-jua Ni eta kalejira. **00:00** Dantzaldia GARRAXIrekin.

Uztailak 29 igandea

11:00 Erraldioen eta Buruhaundien ibilaldia. **18:00** Behi KK, Xorroxin Irratiak antolatua. **20:30** Kantaldia plazan.



ARKUPE
Gozotegia • Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta zuria.
Tabletak, bonboliak, trufak, txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak,
pastak, miniaturak, bolloak, ...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruñea - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com | www.arkupegozotegia.com

UDALA → AZPIEGITURAK

Bi aste iraunen dute Legia karrika moldatzeko lanek

Makurren dauden zatiak konponduko dira

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 4an hasi ziren Legia karrikan zola moldatzeko lanak eta 15 bat egun iraunen dutela iragarri du enpresak. Makurren dauden zatiak konponduko dira. Udalak badaki hori ez dela karrikak behar duen behin betiko soluzioa, «baina oraingoz hori da egiten ahal duguna», dio.

Legia 21etik Foruen Plaza bitarte ariko dira eta egoerak eskatuta, lehenengo markatutako eremuak zulatuko dira. Behin zulatuta, lanak bukatu arte ezin izanen da hortik autoz pasatu. Kanttonberriko bidegurutzean moztuko da autoz pasatzeko aukera. Salbuespen bakarra Legia 19, 21 eta 23 etxetarraino hurbiltzeko aukera izanen da, bizilagunak bakarrik eta kontuan izan behar da denentzako to-

kirik ez dela izanen. Kasu horretan ere Txepetxaren parean autoak leerroan aparkatzea proposatu du Udalak. Tarte horretan dauden zaborrontziak ere kendu eta Rozas parera eta Foruen Plazara eramanen dira.

Doako parkimetroa Altzateko plazan

Txandakako aparkatzeak baimenduz doako parkimetroa paratu du Udalak Altzateko plazan. Mugikortasun Planaren baitan proposatutako neurria da eta denden ordutegian, gehienez ordubetez aparka daiteke Altzateko plazan, eta hori albintek kontrolatuko dute. Araua betetzen ez duenari, hasieran, ohartarazi egingen zaio, baina gerora, isuna paratuko zaio. Autoa egun osoan Altzateko plazan uzteko ohitura saihesteko hartu da neurria eta Marisol Taberna alkateak bertze aparkalekuak badirela oroitarazi du: Matzada, Toki Ona, Itzea...

Bestetako azal irabazlea

Hamar parte-hartzaileen artean, Mikel Telletxea Gagok egindako lana aukeratu dute herritarrak bozketa parte-hartzailean. Bigarren postuan Lorea Zaldua eta Ander Rodriguezen lana gelditu da eta hau bestetako programaren kontrazalean agertuko da.



ARGAZKIA: JOKIN APEZETXEA

Gaztelaniako eskolak etorkinei

Kontxi Iñarga eta Santiago Maia boluntarioen lanari esker, Elkarrizan taldeak gaztelaniako alfabetatze eskolak eskaini ditu ikasturte honetan. Hainbat etorkinek parte hartu dute saio hauetan, irailetik ekainera, astean bi egunez Ricardo Baroja eskolan elkartuz. Elkarrizan taldeak eta zerbitzu honetan parte hartu dutenek eskerrak eman nahi izan dizkiete eskolari, bi gela uzteagatik, baita boluntarioei ere. Irailean berriz ere zerbitzua martxan paratu nahi dute eta interesatuek 948 635036ra dei dezakete edo ssb@lesaka.net-era idatzi.



ARGAZKIA: RICARDO BAROJA IKASTETXEA

Oporrak heldu den ikasturtera arte

Irakasle eta ikasleak udako oporretan egonen dira honezkero. Baina oporrak hartu aitzinetik, ikasturteari bukaera emateko jaialdiak egin ohi dituzte. Ricardo Baroja eskolan, adibidez, ekainaren 21ean ikuskizun ederra antolatu zuten ikasle, irakasle eta gurasoentzako. Ordukoa da argazkia.



Land Roverrak badu jabea

Ikastolaren ikasturte bukarako bestarekin batera, Land Roverra eta honen atoiaren zozketa egin zuen Labiaga Ikastolak ekainaren 15ean. 1.279 zenbakiarekin, Hondarribira joan da Land Roverra, Pipermina enpresako bazkideek erosi baitzuten boleto sariduna.

Alzheimerrekin herri solidario

Udalak bere kezka agertu du «lehen mailakoa den arazo honen aitzinean, eta hortaz, Alzheimerrekin herri solida-

riotzat» jo du herria, ahobatez mozioa onartuz.

Dantza ikastaroa

Gure Txokoa Dantza Taldeak helduentzako dantza ikastaroa paratu du martxan. Uztailaren

5ean hasi ziren, eta aste honetan segituko dute: hilaren 10, 12, 17, 19 eta 26an. Eztegarra frontoian elkartzen dira, 20:00etan. Fandangoa, Arin-Arina, Zortziko, Muxikoak eta Zazpi jauzi ikasiko dituzte.

LESAKA

KULTURA → BAZTAN, MALERREKA ETA BIDASOA

Etxalarko Elizagoien ahizpak nagusitu dira eskualdeko XV. trikitixa txapelketan

Ttikien kategorian Mattin Lopez eta Ane Renaud herritarrak garaile

Aitor AROTZENA

Baztan, Malerreka eta Bidasoako XV. Trikitixa txapelketa jokatu zen uztailaren 1ean, Lesakako Trikitixa taldeak udalaren laguntzaz antolatuta.

13 urtetik goitiko gazteen kategorian borts bikote aritu ziren, Etxalarko Itsaso Elizagoien eta Irune Elizagoien ahizpak suertatu ziren garaile, Maria Lasa eta Garazi Oteg gipuzkoarren aitzinetik.

Ttikien kategorian, berriz, 13 bikote aritu ziren eta Lesakako Mattin Lopez eta Ane Renaud suertatu ziren irabazle. Bigarren saria Amaia Lasaga eta Josune Ramirez lesakarrak lortu zuten, hirugarrena Aiala Mitxeo eta Ane Yanci igantziarrek, laugarrena Amaia Taberna eta Olaia Urdangarin lesakarrak eta bosgarrena Etxalarko Ainhoa Te-

lletxea eta Aritz Irazokik.

Arkupe jaialdia

Ikasturte bukaerako jaialdia egin zuen Arkupe pilotazale elkarteak Sanferminen aitzineko larunbatean. Pilota partiden ondotik, txapel bana emanaz omenaldia egin zitzaizen azken urteotan pilota irakasle izan diren Iñaki Arretxea eta Tomas Otxotekori.

Ikastolako ikasleak sarituak

Nafarroako Gobernuak bigarren urtez antolatutako *Zer da zuretzat basoa* obra plastikoan lehiaketan, lehen eta hirugarren sariak lortu dituzte Tantirumairu ikastolako ikasleek.

LHko lehen saria, 5. eta 6. mailako Kattalin Odriozola, Uxue Mesa, Leire Igoa eta Irantz Goienetxek lortu dute, Bi argazki makina digital eskuratu dituzte, bat klasearentzat eta bertzea M^a Luisa Etxeberria tutorearentzat. LHko hirugarren saria, berriz, hirugarren mailako Manex Ramosek lortu du eta hemen ere saria klase guziarentzat da, argazki kamera digitala.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

600 bidaiarik gozatu zuten Musika Bandaren hegaldiaz


Ikusmina piztu zuen ekainaren 30erako Musika Bandak iragarria zuen kontzertuak. Hasi baino ordubete lehenagotik esperoan zegoen jendea Eskoltetikiko aparkalekuan sartzeko eta 400 lagunentzako toki egokitu baldin bazen ere, azkenean 600 bat lagun sartu ziren emanaldiaz gozatzera. Euskal Herria, Afrika, Mexiko, Kuba, Austria, Argentina, Estatu Batuak edo Errusiako musika aditzez gain, bertako janariak dastatu eta dantzak ikusteko aukera izan zen.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Etxeen Gida aurkeztu du Euskara Batzordeak

Gure etxeak euskaraz, euskara gure etxea Lesakako Etxeen gida euskara erabiltzeko akuilu gisara aurkeztu zuen Euskara Batzordeak San Juan bezperako Euskaraz Bai egunean. Goizeko dianen ondotik, Euskaraz Bizikletan ibilaldian, Tellegik duela 50 urte arte teilak eta adreiluak nola egiten zituzten ikasi zuten, Biurgaraiko kixulabea eta ardi-ixtegia ikusi eta Baxilio Etxebesteren erakusketak harrigarri bixitatu zituzten. Arratsaldean, Garaikomendiko bideko eta Bittiriako Plazako etxeei izenak jarri zitzaizkien eta Abesbatzaren eta akordeolariaren emanaldiaren ondotik, sua piztu zuen Xabier Ariztegik. Berrikuntza gisara, plaza inguruan paratutako mahaietan hainbat lagunek afaldu zuten.



UDA → TURISMOA

Udan bisita gidatuak izanen dira herrian eta usategietan

Patxiku Irisarri eta Laura Elizagoienek eginen dituzte gida lanak

Iruñe eta Itsaso

Bisita gidatuak eginen dira udahonetan ere. Herrian barna, Patxiku Irisarri eskainiko ditu uztailean eta abuztuan. Asteleheneretik larunbaterara, eguerdiko 12etan abiatuko dira bisitak herri sarrerako aparkalekutik, plazan akautzeko. 3 euro gostako da eta 20 lagunetik goitiko taldeak bada, bi euro. Norbaitek bisita arratsaldean egin nahiko balu, 637 466107-ra deitu beharko du.

Eta usategietan, Laura Elizagoien ibiliko da. Guttierrez 10 pertsonako taldeentzat izanen da. 600 urte baino gehiago dituen eta oraindik bizirik mantentzen den sare bidezko uso ehiza tradizionalaren prozesua

ezagutzeko aukera izanen da. Pertsonako bi euro kostako da. Aitzinetik erreserba egin behar da (690 267756).

Trikitixa txapelketa

Uztailaren 1ean, Baztan, Malerreka eta Bidasoko XV. Trikitixa Txapelketa jokatu zen. Ttikien mailan, 13 bikotetik 5 herrikoak ziren eta lehenengo aldiz parte hartu zuten txapelketa batean: Olaia Iturria eta Rafaela Gomes, Igone Arozena eta Janire Telletxea, Uxue Iturria eta Leire Iribarren, Martxel Larraza eta Eduarda Gomes eta Ainhoa Telletxea eta Aritz Irazoki. Urduritasunaz aparte, denek saio bikaina egin zuten, eta aipatzekoa Ainhoa Telletxea eta Aritz Irazokik lortutako bosgarren postua. Gazteetan, Itsaso eta Iruñe Elizagoienek txapela ekarri zuten.

Igeriketa ikastaroa

Igeriketa ikastaroa es-



ARGAZKIA: JONE BIZENTE

Udaleku irekiak

Uztailaren 2tik 27ra izanen dira udaleku irekiak. 4 begirale izanen dira: Maitane Altzuguren, Oihana Mitxelena, Jon Irazoki eta Jone Bizente. Hainbat ekimen eginen dituzte; eguraldiak laguntzen badu igerilekuetara joan, ermitara eskurtsioa, eskulanak, sukaldaritza tailerra, dantza, antzerkia... Dudarik gabe, ez dute aspertzeko astirik izanen eta primeran pasako dute.



ARGAZKIAK: AMAIA ZELAIETA

Uda hasierako ekitaldiak

Urte Berri On Amona! filmarekin hasi ziren udako ekitaldiak. Jende andana bildu zen frontoian ekainaren 22ko gauean. Ondoko egunean, Sanjuan sua izan zen plazan. Hagitz arrakastatsua izan zen; 75 bat lagun bildu baitziren berendu-afaria egitera eta ondotik, bertze hainbat gehiago su gainetik salto egitera. Hurrengo asteburuko Zugarramurdiko antzerki taldearen *Akelarre* obra ere jendetsua izan zen. Gainera, herriko lau antzezle aritu ziren: Koldo, Unai, Janire eta Daria.

kainiko da uztailaren 16tik 27ra eta apuntatzeko

azken eguna ortziral hau, uztailak 13, izanen da.

Informazio gehiago 948 635465era deituta.

MERKEALDIA Martutzak-en

- Berokiak, jakak, txamarrak...: -%30, -%40
- Galtzak: bat -%20 | bi -%30
- Kamisetak: bat -%20 | bi -%30
- Soinekoak eta ganak: -%30, -%50
- Jertseak eta txoketak: -%30, -%50
- Haurren arropa: bat -%10 | bi -%20 | hiru -%30

Bidasoa, 12 | BERA • 948 631 425

IGANTZI

TXIRRINDULARITZA → AURTEN BIGARREN ALDIZ

Xabi Telletxearen omenezko BTT jaitsiera larunbatean egingen da

Euskadiko Openerako puntuagarria izanen da

Joxean ORTEGA/TTIPI-TTAPA

Xabi Telletxea zena gogoan, aurten ere BTT edo mendi bizikleta jaitsiera antolatu du Biltoki Elkarteak. Larunbat honetan, uztailak 14, egingen da eta aurtengoa bigarren aldia izanen da. Aipatzekoa da Nafarroako Txapelketa izanen dela eta gisa berean, Euskadiko Openerako puntuagarria izanen dela.

Goizean entrenamenduak egingen dira, 09:00etatik 13:00etara. Eta lehen txanda edo manga 15:00etan hasiko da.

Kultura Batzordea

Aurtengo Sanmigelak prestatzen hasia da Kultura Batzordea. Dagoeneko bilera batzuk egin ditu eta programaren lehen zirriborroa egin da. Uztailaren 17an, asteartea, 19:30ean Herriko Etxean egingen den


bilera irekian zehaztasun guztiak azalduko dira eta behin betiko programa bertaratuaren artean diseinatuko da.

Aurten gainera, betizuen kontua solastu beharra dago, Nafarroako Gobernuak ateratako lege berriaren arabera, ekintza honetarako dagoen itxitura aldatu be-

harko litzatekeelako eta diru dezente denez, zalantzakoa da aurten betizuak izatea. Dena den, honen inguruko erabakia aipatutako bilera irekian erabakiko denez, jendea animatzeko deia egin du Kultura Batzordeak, «horrela guztion iritzia kontutan hartu ahal izateko. Edozein

ideia dela ere, ongietorria izanen da eta ekintza berriren bat bururatu gero, zalantzarik ez izan eta bilerara agertu!».

Bestetako programaren azalaren lehiaketako deialdia ere laster egingen du, lanak aurkezteko azken eguna abuztuaren 10a izanen baita. Beraz, artistak lanean hasi!



UTZITAKO ARGAZKIA

Tolosako Anza Memoriala irabazi du Beñat Txoperenak

Afizionatuen mailako lehenbiziko garaipen handia lortu zuen Beñat Txoperena txirrindulariak ekainaren 24an Tolosako Jose Manuel Anza Memorialean. Euskadiko Txirrindularitza Federazioak 23 urtez beheitiko txirrindularientzat antolatzen duen Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izan zen proba eta Txoperena bikain moldatu zen 116 kilometroko lasterketa irabazteko. Gainera, mendiko sailkapena ere irabazi zuen. Hori baino lehen, Espainiako 23 urtez beheitiko txapelketan parte hartu zuen Bejar-en (Salamanca), Nafarroako selekzioarekin. Ongi ibili zen, 13. izan baitzen errepideko proban eta 21. erlojuaren kontrakoan.

TXIRRINDULARITZA

La Miguel Indurain martxa uztailaren 21ean egingen da

TTIPI-TTAPA

Beratarr Txirrindularitza Taldeak antolatutako La Miguel Indurain zikloturista ibilaldiaren 21. edizioa uztailaren 21ean egingen da Beran eta azkeneko urteetako ohitura 113 eta 186 kilometroko bi ibilbide izanen dira aukeran. Luzekoak 08:30ean abiatuko dira eta laburrekoak 09:00etan. Iaz bezala, izenemateak Internetez egin beharko dira (www.laindurain.com). Dortsalak eta gainerako dokumentazioa, beriz, uztailaren 20an, 15:30etik 21:00etara eta egun berean, 06:30etik aitzinera biltzen ahal izanen dira. Bi ibilbidekoek Belate igoko dute errepide zaharretik eta Belatetik Arraizko Bentarajautsiko dira eta hor bereziko dira ibilbide luze eta laburrekoak. 250 laguntzaile ariko dira lanean.

Martiko
P.N. Casan, s/n.
31791 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625010 Fax: 948 625036
www.martiko.com

DENDA ORDUTEGIA:
asteheneretik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

okNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tel/Fax: 948 630 014
Kaittomberrí 12 - BERA

BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
BIDASOA - BIDASOA
T.F. 859 971 442
BERA

ERANDONKA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

AISIALDIA → AURTEN LEHENBIZIKO ALDIZ

24 orduko futbito txapelketa antolatatu du Gazte Asanbladak hilaren 27 eta 28rako

Uztailaren 22a baino lehen eman behar da izena

Nerea ALTZURI

Arantza Rocken aldeko txapelketa berezia antolatatu du Gazte Asanbladak aurten lehenbiziko aldiz: 24 orduko futbito txapelketa. Uztailaren 27an eta 28an izanen da eta izena ematen lehenbizikoak diren hama-bi taldek parte hartuko dute txapelketan.

Talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko du izena ematean, baina sariak ere araberakoak izanen dira, potoloak: lehenbiziko talde sailkatuak 300 euro hartuko ditu, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Sari bereziak ere izanen dira, golegile nagusiari, atezain onenari eta txapelketako jokalaria onenari emanen zaizkienak.

Txapelketa uztailaren 27an, ortzirala, 18:00etan hasiko da eta finala, uztailaren 28an, larunbata, 18:00etan jokatu da. 697 318246 telefonora deituta eman behar da izena, uztailaren 22a baino lehen. Animzte!

Udal Informazioa

Herriko Etxetik etxetara udal informazioa ailegatu da. Jakina da, eta aldi honetako berrietan azaltzen den moduan, www.arantza.eu webgunean ere xehetasun guztiak ageri direla. Gainera,

aurten, informazio gehiago zintzilikatzen ari dira.

ZAKUR KAKA KARRIKETAN

Herri bazterretan gero eta zakur kaka gehiago ageri direnez, Udalak zakurren jabeek herriko karrikak garbi edukitzen laguntzeko eskaera egin die, guztion artean, herri ingurua polit edukitzeko.

AUZOLANAK

Udalak auzolanetako balantze positiboa egin du. Herriar guztiak eskertu ditu egin duten lanagatik eta bereziki, nahitaez auzolana egin beharrik ez dutenen lana, batez ere jubilatuen partehartzea eskertu du. Auzolaneko arauak zein diren ere oroitarazi du, aurten ere parte hartzea animatuz. Aldaketa baten berri ere eman du; Aien-tsako arduraduna, orain, Otsarrako Fernando da.

EHIZA KONTUAK

Udala hurrengo 10 urterarako ehiza barrutia berritzeko espedientea prestatzen ari da. Maiatzaren 4ko plenoan, Usua Kirol-Ehiztarien Elkarteari esleitzeko proposamena onartu eta baldintza plegua adostu zuen. Nafarroako Gobernuri dagokio, orain, onartzea.

Kinto bestak

1966tik 1970era jaiotako kinto besta antolatatu du Burladajateak uztailaren 21erako. Aferia izanen da eta apuntatu nahi duenak uztailaren 18a baino lehen eman behar du izena ostatuan.




ARGAZKIAK: AITZIBER ABASOLO ETA MAITERE PAGOLA

San Juan bezperan su gainean saltoka

San Juan bezperan, Euskal Herriko hainbat herritan bezala, suak egin ziren herrian. Guraso eta haurrek merendu-afaria egin zuten parkean eta gero, saltoka aritu ziren.

Ballekasko besta eguna uztailaren 21ean

Azken bi urteetan bezala, Beheko Pisu-tako bizilagunek auzoko bestak antolatu dituzte aurten ere. Uztailaren 21ean, Ballekasko bestak izanen dira, eta egitarau polita lotu dute horretarako. Herri sarrerako inguruari besta ukitua emanen zaio eta egun horretan ere, herritarrek giro ederrean pasako dute. 11:30ean altxaferua botako dute eta ondotik, dantzarien saioa izanen da. Gero, triki brindisa egingen dute. Bertatik mugitu gabe, bazkari herrikoa izanen da. Arratsaldean, haurrentzako jokoak eta Beñat Mitxelena herriko akordeoilariekin dantzaldia izanen dira. Bazkarirako txartelak herriko ostatueta salgai daude.



SUNBILLA

GIZARTEA → SAHARATIK SUNBILLARA

Salma eta Maimunak gure artean pasako dute uda hau ere

Abuztuaren 20ra arte Sunbillan egonen dira

Maider PETRIRENA

Ekainaren 21ean etorri ziren Salma eta Maimuna sahararrak berriz gure herrira eta aurtengo uda ere hemen pasako dute. Salma Izaskun Altzuriren etxera eta Maimuna Aintzane Agirrerenera etorri dira. Guztira hezortzi neska-mutiko etorri dira Sahararik gure eskualdera.

Abuztuaren 20ra bitarte egonen dira Sunbillan. Hagitz neska po-

litak eta jatorrak dira, argazkian ongi ikus daitekeen bezala, eta dagoeneko Sunbillara egokituak dira, ez baita etorri diren lehenbiziko aldia.

Doneztebeko krosa

Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak antolatuta, XXXIV. herri krosa egin zen ekainaren 24an eta kadeteen kategorian, Eneko Herrera herritarrak irabazi zuen. Lerro hauen bidez zorionak!

Igeriketa ikastaroa

Uztailaren 2an eman zitzaien igeriketa ikastaroei hasiera.



Aintzane, Maimuna, Izaskun eta Salma.

ARGAZKIA: IZASKUN ALTZURI



ARGAZKIA: ANA URROZ

Eskolako neska-mutikoan okin lanean

Ikasurtea ongi akitzeko, ekintza berezi bat egin zuten ekainaren 20an. Haur Hezkuntzakoak Oreberri okindegira joan eta madalenak eta ogia egin zituzten.



ARGAZKIA: RUBEN IRIGOIEN

Ikasurte bukaera

Ekainaren 21ean, azken eskola egunean, jaialdia egin zuten eskolako lagunek. Aitzinetik prestatutako kantak eskaini zituzten haurrek eta ondotik, pintxoak jan eta akituztat eman zuten ikasurtea. Orain, aprobeztatu eta disfrutatu udan!



ARGAZKIA: NATALIA ARRETXEA

Ludoteka abian

Bertze urte batez, hasi da ludoteka zerbitzua Natalia Arretxea hezitzailearekin.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukook eta fatxadak

tel. 666 235 466

948 631 218

Kanitonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

ASIALDIA → ERREKA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTA

Aste honetan hasi da neska-mutikoendako Udako Kirol Eskola

Abuztuaren 3ra arte astean hiru egunez elkartuko dira

TTIPI-TTAPA

Aurtengoarekin hamabigarren aldiz, Udako Kirol Eskola paratu du martxan Erreka Kirol Elkarteak, zonaldeko haur eta gazteendako irekia. Astelehen honetan has-tekoak ziren, eta abuztuaren 3ra bitarte, hainbat kirol landuz uda pasatzeko bertzeko modu bat eskainiko diete neska-mutikoei.

Astelehen, asteazken eta ortziraleko eskoletako frontoian eta kiroldegian izaten dira, 11:00-etatik 12:00etara talde batekoak, eta 12:00-etatik 13:00etara bertzeak. Bazkideendako prezioa 33 eurokoa da, eta 36koa gainerakoendako.

Mariezcurrrena podiumean

Europako kamioi lasterketa txapelketako laugarren proba jokatu zen ekaineko laugarren asteburuan Nogaron (Frantzia). Jabier Mariezcurrrena gidariarentzat eta Truck Navarra Competi-

cion taldearentzat bigarren proba izan zen Jaramakoaren ondotik. Asteburua ongi hasi ez bazen ere, bikain akitu zela erraten ahal da, podiumera igo baitzen. Lasterketa hirugarren postuan akitu zuen Mariezcurrrenak. Azkenean, gainera, komisarioek bigarren sartu zena zigortu zuten eta postu hori izan zen doneztebarrarentzat.

Merkataria

Nafarroako Merkatarien Federazioak bizi dugun egoera honi buelta ematearren martxan paratu duen kanpaina batean parte hartzea erabaki du Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak. Horretarako, elkarteko bazkide batzuek erakusle-ihoi aldaketa bat egitea erabaki dute. Ekimen honen bidez, baikortasuna zabaldu nahi da, aktibitate komertzialari bultzada bat eman eta saltokiak zein bezeroak mugitu daitezzen lortu, krisi ekonomikoari buelta emateko. Kanpainarekin bat egin duten komertzioek beraien eskaparrateetan kartelak paratu dituzte eta kanpainaren lema daraman poltsak banatuko dituzte.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Bestak giro ederrean

Azken 35 urteotan albinte izan den Patxiku Anduezak botatako txupinazoarekin hasi ziren lau eguneko bestak. Bezperako ekitaldien ondotik, San Pedro Eguna etorri zen, eta Gazte Burrenba Eguna eta Ttikien Udalen egunak segitu zuten gero. Lau egunez besta giroa izan da nagusi aurten ere.




ARGAZKIAK: ERREKA

Krosaren arrakasta

Eguraldi ederrarekin, 204 korrikalarik parte hartu zuten Sanpedro besten aitzinero igandean egin zen herri lasterketan. Erreka Elkarteak krosa antolatu duen 34. aldia izan da aurtengoa. Xehetasun gehiago kiroletako orrian irakurgai.





tinkaenergialak



Pellet eta egurrezko estufa eta kalderak

Lurreko suak

Eguzki plakak

Haize errota

Tximinil garbiketak

**ESTUDIOAK, AURREKONTUAK
INSTALAZIOAK
ETA DIRU-LAGUNTZEN
TRAMITAZIOAK
KONPROMISORIK GABE**

Mendiñueta, 88 ELIZONDO
948 452 772
607 631 881 | 637 895 032
tinka@tinkaenergialak.com
www.tinkaenergialak.com



- Energia Berriztagarrien sistemak: banakota, salmenta eta instalazioak
- Makina-erremintendako batona berrak
- Produktuen katalogoa: www.garbithek.com

Vega de Egurkiz, 29 behe
20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 048 773
garbithek@garbithek.com

Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzen deialdia atera du

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA IRAILAREN 21ean AMAITUKO DA

1,2 milioi partikular eta enpresen-dako eta bertze 112.500 euro toki erakundeentzako

Partikularrek eta enpresek gauzatuko dituzten ekimeneratako 1,2 milioi euro bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak 2012an,

eta bertze 112.500 euro toki-erakundeek sustatutako instalazioetarako. Ekainaren 16an argitaratu zen diru-laguntzen deialdi hau (Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 119. zenbakia) eta eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean akabatuko da.



Eguzki plaka termikoak

INSTALAZIO BERRIAK LAGUNTZEKO ETA ZAHARRAK BERRITZEKO

Zehazki honetarako: eguzki energia (termikoa eta fotoboltaikoa), energia eolikoan, biomasan eta geotermian instalazio berriak laguntzeko eta zaharrak berritzeko. Ezin dute diru-laguntzarik eskatu energia produkzioko enpresek eta Ogasuna edo Gizar-te Segurantzarekin zorrak dituztenak.



Eguzki plaka fotoboltaikoa

DIRUZLAGUNDUKO DIREN INSTALAZIOAK

- Eguzki-energia termikoa. **Laguntza: inbertsioaren %30-50** artean.
- Eguzki-energia fotoboltaikoa. **Laguntza: inbertsioaren %10-30** artean.
- Energia eoliko. **Laguntza: inbertsioaren %10-30** artean.
- Biomasa etxeetako. **Laguntza: inbertsioaren %20-40** artean.
- Biomasa industrial. **Laguntza: inbertsioaren %25a**.
- Geotermia. **Laguntza: inbertsioaren %20a**.



BERRIA!!

Berriztagarria
Kalbiosa

Martin Urrutia, 52
ORRNOZ MUGAIRI
Tfnos: 628 225 477
kalbiosa@gmail.com

BIOMASA
Pellet, egurra, ezpala
estufak eta kalderak

* dirulaguntzen tramitazioa

EGUR-KALDERA
% 90eko errendimendua
gasifikazio sistema

Laguntzarria - Instalaziarria

GOIENBURU

Goienburu karrika, 10
ARANTZA
Tfnos: 600 902 723
goienburu@goienburu.es

GUTIENEKO INBERTSIOAK DIRU-LAGUNTZA ESKURATZEKO

Instalazioetan gutieneko inbertsioa: **1.500 euro** (BEZ gabe). Kasu guztietan, diseinu eta ingeniari-tzako gastu finantziagarriak ezin izanen du gairiditu kostu osoaren %10a. Eguzki-energia termikoko ikuskaritza kasuetan (20m² baino tikiagoak direnean), gutieneko inbertsioa 1.000 eurokoa izan da.



Biomasa (etxeetako edo industrialia)

ZALANTZAK ETA ARGIBIDEAK

Tramitazioan zalantzarik izanez gero, hona hemen kontakturako bide batzuk:

Tel. 848 42 55 15 mirisarri@cein.es / Tel. 848 42 76 47 cinchuss@navarra.es

SUMINISTROS YANCI
30 urteko esperientzia
ITURGINTZA eta BEROKUNTZA ENERJIA BERRIZTAGARRIAK
 Berriztagarriak, instalazioak eta mantentzeak

BIOMASA
 BEROTERMIA
 GEOTERMIA
 EGUZKI ENERJIA TERMIKOA
 ITERNIBIDE ENERJIAK
 BERRAZ

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa
 Dirulaguntzak tramitatzeko bitartekariak
 Zabaldea Industrialdea, 2 - BERRITZA
948 580 109 **TATANO**



Energia eolikoa

Ekindarra
 ENERJIA BERRIZTAGARRIAK
 EGURGINTZA ETA OINTZARTEKARIEN ENERJIA

SOLVIS
 www.ekindarra.com
 info@ekindarra.com
 941 65 206 32 20
 31700 Bera

ESIP
 Energia Berriztagarrien Instalazioa eta Ingeniaritza

Eguzki-energia termikoa
 - Kantsumoko ura berotzeko
 - Berogailuak - Igerilekuekako ura berotzeko

Eguzki-energia fotoboltaikoa eta haize-energia
 - Eteer batentzat elektrifikatzeko
 - Sare nagusiari elektrotzuzuzun sartzeko

Biomasa - Pelletak galdarak

ALTSASU - Inasa Industrialdea, 4 pabiloia
 www.esipsolar.com info@esipsolar.com
 Mug: 609.74.52.25



Geotermia

EKAIN TALDEA S.L.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAKUNTZA, IKERKETA ETA PROIEKTUAK

www.ekain-taldea.com
 Amasotarreri, 8 - OREETA-ERRETERIA (Guzkoa)
 Tfnoak: 941 34 05 09 - 948 70 22 80
 Faxa: 941 34 05 09
 e-mail: ekain@ekain-taldea.com

CRI SOL

EZPALAK, PELLET ETA EGUR GALDARAK

PUNTAKO MARKAK JARTZEN DITUGU ATARRAMENOU HANDIAK ETA AMORTIZAZIO AZKARRAK LORTZEKO

AGURTETSE DORA DARAMAGU BERRITZETA ETA IZU BERRI LANTZAN

Tfnoa: 948 971 316 / 948 767 615

CRI SOL
 Pl. Euzkadiaren 105, 425
 31194 AESTI, NAVARRA
 www.cri-sol.com

ITUREN

UDALA → URTERO BEZALA

Bi langile kontratatu ditu Udalak uda honetan herriko lanetan aritzeko

Probak egin ondotik, Iker Berregi eta Aberri Untxalo ari dira lanean

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala aurten ere, uda ailegatzearekin, langileak kontratatu ditu Udalak herriko lanetarako. Proba ba-

tzuk egin ditu eta horiek gainditu ondotik, Iker Berregi eta Aberri Untxalo izanen dira aurten lan horiek eginen dituztenak. Udako hilabeteetan bideak garbitzen, pintatzen eta bertze lanetan ariko dira.

Aurrekontua

722.067,87 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2012rako. Api-

rilaren 26an eman zion behin behineko onepena eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean publikatu eta jendaurrean egon zen epean ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Hala, orain behin betikoa da aurrekontua.

Bestetako kartela

Aurten lehenbiziko aldiz, bestak iragarriko dituen kartelaren lehia-

keta egin zuen Udalak, eta hiru lan aurkeztu ziren. Jende aitzinean erakusketa batean paratu zituzten eta herritarren botoak batuz, Torororen kartela izan da txapelduna. Zorionak!

Erasun lehengusuak aizkoran

Iruñean ospatzen ari diren sanferminetan,

egunero Foru Plazan herri kirol saioak egiten ari dira eta bi herritar aritzekoak dira.

Alde batetik, Ander Erasun uztailaren 8an egitekoa zen Nafarroako Bikotekako Aizkolari Txapelketan aritzekoak zen eta uztailaren 14an, berriz, III. mailako Aizkora Txapelketako kanporaketan ariko da Kenari Erasun.

Trikidantzek egin du Nafarroa Oinezeko kanta

Kolore&hitz lelopean, Zizur Txikiko San Fermin Ikastolak antolatuta eginen da aurten Nafarroa Oinez besta, urriaren 21ean. Bada, Nafarroa Oinezeko kanta Trikidantz taldeak egin du. Abestiaren hitza Julio Sotorena da, San Fermin Ikastolako ikasle ohia eta Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapeldunarena, eta musika Trikidantzek paratu dio. Ikastolak lehiaketa bat egin zuen, eta herriko taldearen abestia izan zen aukeratua. Kanta horretan, Trikidantz taldeko kideez gain, Skatu taldeko Eneko, Axier eta Ibanek tronboi, saxofoi eta tronpetekin euren ukitua eman diote, Ainara Mindegiak bere ahotsa paratu du eta Luismi Gartziak batera. Erran, gisa berean, Nafarroa Oinezeko bideoklipan ere parte hartu dutela Arkaitz Mindegia eta Birjina Mariezkurrena taldekideek. www.nafarroaoinez.net webgunetik jaitsi daiteke kanta.



ARGAZKIA: ZALDUA

Gazteek Sendotza egin dute

Joan den ekainaren 30ean, Ituren, Aurtitz eta Zubietako gazteek Sendotza egin zuten San Martin elizan. Ondotik, denek elkarrekin afaria eta besta paregabea egin zuten.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

zalain
FITNESS - DESHONORANTE

Zalain autoa zig
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

zalain

Ostargi optika

%5^{eska} DESKONTUA
produktu guztietan

Haga bearteka

UDAKO FESTAK → ABUZTUAREN 14TIK 18RA

Amabirjinetako programa prestatzen hasia da Festa Batzordea

lazko aurrekontuaren beretsua izanen da

Fermin ETXEKOLONEA

Oraindik hilabetegelditzen bada ere, Amabirjin fiestetako programa lantzen ari da Udaleko Festa Batzordea eta dagoeneko bilera batzuk eginak ditu. Aurreko urteetan bezala, abuztuaren 14tik 18ra izanen dira eta etorriko diren musika taldeen artean, Trikidantz, Astiazaran anaiak, Bixente akordeoilaria, Aierrik herriko taldea eta Gabe-nara leitzarrak daude. Horiek baieztatuak dira.

Orokorrean, aurreko urteetakoaren berdint-sua izanen da egitaraua, baina beharbada berrikuntzen bat edo beste ere izanen da. Aurrerago argituko ditugu xehetasunak. Aurrekontua ere iazkoaren beretsua izanen da. 9.000 euroren azpitik ibili ohi da fiesten aurrekontua eta musika taldeek sortzen dute gastu haundiena. Dena den, aurtengo aurrekontua oraindik ez da zehaztua.

Sei gaztetxoren Sendotza

Herriko sei gaztek egin dute aurtien Sendotza. Zubietarrak bakarrik egiteko gutxi zirela-eta, iturendar eta



ARGAZKIA: AMAIA OTXANDORENA

San Juan Bezperan su gainean saltoka eta dantzan

Giro ederrean joan zen aurtengo San Juan bezpera. Haurrak sua egiteko etxez- etxe kartoiak biltzen aritu ziren aurretik, eta egun berean, sua egin baino lehen, azken urteotan bezala, berendu-afaria egin zen plazan, bakoitzak bere jatekoa eramanez. 30 haurretik goiti bildu ziren eta 40 bat heldu ere izanen ziren. Ondotik, sua egin zen, haurrendako lehenbizi eta helduendako gauerdian. Plazako su haundiaz gain, etxe atarietan ere nonahi ikusi ziren suak. 00:00etan ezkil jotzea ere egin zen, eta soinurik ere ez zen falta izan, su inguruan dantzan ibiltzeko. Saldiasen ere fiestak izaki, batzuk harat joan ziren gero.

aurtiztarrekin batera egin dute Uxoia eta Joxean Elizaldek, Ane Ansok, Olaia Loiarrek, Karnele Santestebanek eta Unai Loiarrek. Iturengo berrietako argazkian aipatutako protagonistak ikusteko aukera duzue, Sendotza egin duten gainerakoe-kin batera.

Jaunarena txapel-dun

Jon Jaunarena pilotaria leitzarra badugu ere, Axun eta Antonio gurasoak zubietarrak ditu eta bigarren mailako pilota txapelketa irabazi duen honetan, zorionak eman nahi dizkiogu hemendik ere, bai

Joni, bai Axun eta Antoniori eta bai Bittori eta Engraxi amatxiei ere.

Aurkidiko lanak

Bi zatitan egiten ari dira Aurkidiko pistan egin beharreko lanak, eta joan den astean hasi zen Sasoi enpresa-gelditzen den kilometro-erdian lanean.



MERCHE
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capelettimercheirun.com

ELGORRIAGA

EHIZA → DENBORALDIA PRESTATZEN

Ehiza barrutiko lehendakari berria Iñigo izanen da

Ordezkarri berriak izendatu dituzte

Mattin LARRALDE

Ehiza denboraldia prestatzen hasi dira ehiztariak. Dagoeneko bilerak egiten hasiak dira eta ordezkariak aldatu dituzte. Herriko koto-ko lehendakaria zen Kiko atera da eta Iñigo sartu da. Horretaz aparte, egun berean hiru herrietako ordezkaria berri- zuten eta aurten Elgorriagako tokatzen de-

nez, Klaudiori egokitu zaio ardura hori.

Auzolanerako deia

Herriko bestak hurbiltzen ari direla eta, aste bat lehenagotik auzolan bat egiteko deialdia egin da. Urtero bezala, goizeko 8etarako egina da hitzordua udaletxe atarian biltzeko. Hortik bakoitza bere lekura joanen da.

Bestak

Aurtengo bestetako egitaraua aldizkariko gehiagarian irakur daiteke.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Ehiztariak denboraldia prestatzen ari dira.



Langileak

Hiru langile hartu ditu Udalak eta Gizarte Zerbitzuetatik bertze bat bideratu dute. Euren lanak herrian ikusten hasi dira; udaletxea eta kultur etxea margotu dituzte, errota eta ingurua garbitu eta datorren hilabetetan hainbat leku mol- datuko dituzte.

SALDIAS

PESTAK → SANJOANEN ERREPASOA

Txarrak kanpora, onak barnera

Heldu den urtean ere etorriko dira sanjoanak, eta belarrak

Markel LIZASOAIN

Elorri adarrak daude atean, etxeak zaintzen, San Joan egunaz geroz -tik. Batzuek, beharbada, erramua ere paratzen izanen dute, oraindik.

Pesta aurrean, belarrak egiten aritu zen jendea, abaila, aro onatokatu baitzen. Eta akitu ere belarrari buelta ematen akitu du, astelehenarekin, herri bazkarira joan

ez zenak. Banka herrian, berriz, belar guziak eginak, nonbait, hamar lagun etorri baitziren handik honaino bazkaltzera; hamar bankar, eta ez hamar frantses, askok ohitura duten bezala, Izpegiko lepoa pasatu eta bertan baitago Banka, Baigorritik 8 kilometro- ra, Leon Etxekoloneari galdetu bestela. Kantu politak eman zituzten, bazkalondoan, trikitilari- rik lagunduta, eta asko bizitu zuten giroa.

Igandean, lan handiak egin zituzten aizkolari- rik, eta berotu ederra hartuta, Erasunek irabazi zion, hondarreko



ARGAZKIA: MAITERE ESKUDERO

Urroztarrak, zubietarrak, eratsundarrak eta ornoztarrak aritu dira saldistarrekin, txapelketan. Jende franko bildu da apiriletik hona partidak ikustera, eta, lehen aldian izan- da den-dena ongi atera ez bada ere, kontent egoteko moduan dira antolatzaileak.

tronkoan, Larretxeari. Arratsaldean, pilotan ziren ari beharrak, binaka eta lau t'erdian. Binaka, Lopetxeneakoak eta Mariezkurrenak irabazi zuten, eta lau t'erdian, Bendoiro eratsundarrak.

San Joan bezperan ere, buruz buru aritu ziren, aizkoran; Saralegik

irabazi Kañamaresei. Muese- an, Arretxeako aita- semeak gelditu ziren beste guzien gainetik. Horietaz gainera, haurren jokoak egin zituzten larunbatean. Bi edo hiru urte dira zenbait ama berriz hasi zirela haurren jokoak prestatzen, eta a ze fantasia ibiltzen du-

ten haurrek! Arratsean, Triki Hots lasartearrak etorri ziren jotzera.

Ortziralean hasi ziren pestak. Lehenik, palatxapelketako finala izandu zen; anaien arteko partida, eta atzenez, Juane- nea anaientzat pernilak. Ondotik, zopak jatea, eta dantzaldia Modestorekin.

GIZARTEA → EHIZA

Usategien enkantea abuztuaren 11ko eguerdian egingen da

Zortzi frontetan dauden 70 usategi aterako dira enkantera

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Bi urtetarako usategien aprobetxamendua enkante publikoan erabakitzeko deialdia egin du Udalak. Abuztuaren 11n, larunbatarekin, egingen da enkantea, 12:00etan.

Zortzi frontetan banatuta, 70 usategi aterako dira enkanteran.

Lehenbiziko frontean, Golbai izenekoa, hamaika usategi daude eta hasierako prezioa 27.000 eurotan finkatu du Udalak. Bigarrenean, Uztalakordan, zortzi usategi daude eta hasierako prezioa 10.500 eurokoa izanen da. Hi-

rugarren frontean, Bida-korin, hamaika usategi daude eta 8.250 eurotan finkatu du Udalak hasierako prezioa. Laugarrenean, Labeagan, bederatzi usategi daude eta 4.000 eurokoa da hasierako prezioa. Bosgarrenean, Bidasostan, hamar usategi daude eta 4.500 eurokoa izanen da hasierako prezioa. Seigarrenean, Txarutan, zazpi usategi daude eta 5.250 eurotan finkatu dute hasierako prezioa. Zazpigarrenean, Ubedon, sei usategi daude eta 1.000 eurokoa da hasierako prezioa eta zortzigarrenean, Argibelen, 8 usategi daude eta 1.500 eurokoa izanen da hasierako prezioa.

Enkante honen baldintza-agiria jendearen eskura dago idazka-ritzan.



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI

Haurren udako aisialdia

Parkean dela edo igerilekuan dela, denborapasarako aukera ederra dute neska-mutikoek udan. Igerilekuan, ikasteko aukera ere badute, dagoeneko martxan baitaude igeriketa ikastaroak. Uztailaren 2an hasi eta uztailaren 31ra bitarte izanen dira, guztira 16 egun izanen dituzte igeri egiten ikasteko. Ikastaroa ematen ari den monitorea, berriz, Joseba da eta klaseak astelehen, asteazken, ortzegun eta ortzi-ralelan ematen ditu. Egun bakoitzean bi ordu eskaintzen ditu, ordu erdiko ikastaroen eginez. Horrenbestez, lau talde ari dira eguneko, eta talde bakoitzean 5-6 haur. Haur bakoitzak eguneko bi euro ordaindu behar ditu eta ikastaro osoa 32 euro kostatzen da. Arrakasta haundia izan du ikastaro honek, haurrak hagitz kontent hasi dira, eta dagoeneko 25 haurrek izena eman dute. Honekin lotuta, igerilekura joateko animatu nahi zaituztegu, ederki pasatzeko aukera izanen baituzue.

zatoz gurekin

Kostaldera

<p>costa dourada calafell</p> <p>H. Solimar *** Mantimendu-erdia 22€ <small>11€</small> hasita</p>	<p>costa de la luz el rampido</p> <p>H. Precise Golf el Rampido **** Mantimendu-erdia 30€ <small>15€</small> hasita</p>
<p>costa blanca benidorm</p> <p>H. Gala Placidia *** Mantimendu-erdia 41€ <small>20€</small> hasita</p>	<p>costa del sol benalmádena</p> <p>H. San Fergan *** Mantimendu-erdia 26€ <small>13€</small> hasita</p>

22€ hasita

INFORMAZIOA
ETA ERRESERBA
Ertegiak eta zurrak
31900 PERMUTAZIOA
Tel: 948 821 000
Buzoi: Bona.izaskun@viboviajes.com

Lehen Viajes Iberia zena orain **vibo**

902 108 108 | viboviajes.com

EZKURRA

UDAKO FESTAK → PRESTAKETAK EGITEN

Aurreko urtekoaren antzekoa izanen da aurtengo festetako egitaraua

Abuztuko alean festetako programa kaleratuko dugu

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuko festetako programa prestatu du Udalak eta iazkoaren antzekoa izanen da. Aizkora apustuak, herri kirolak, mus txapelketa, pilota partidak eta frontoiko bazkaria izaten dira jende gehiena erakartzen duten ekitaldiak. Musika taldeen dantzaldiak, ordea, garestienak izan arren, ez dute publiko askorik izaten. Joan den urtean, adibidez, musika jotzen ari zen talde batek alde egitea erabaki

zuen, inorez zegoela ikusita. Aipatzekoa da, krisi larri honen ondorioz, herri batzuetan festa egunak murriztu dituztela, baina Ezkurako Udala zorrik ez duen udaletako bat da eta hortaz, aurtent ez da murrizketarik izanen. Abuztuko lehen aldizkarian argitaratuko da festetako egitaraua.

Ehiztariak

Txantxagorri elkarteko ehiztariak uso denboraldia prestatzen hasi dira. Altak eta bajak emateko epea bukatu da eta ez da aldaketarik izan. Hurrengo urratsa urteko bilera egitea izanen da, kontuen berri eman eta auzolanez eta postuak prestatzeaz hitz egiteko.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA
Otorduak izaten dira festetan jende asko biltzen duten ekitaldietako batzuk.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mendi irteerak

Azken urte hauetako ohiturekin jarraituz, ekainaren 23an Perralekun egin zuten hitzordua zenbait herritarrek, handik Erakurri, Ezkain eta Iruñarrira (Eratsungo lur eremuan) igotzeko. Lau orduko bidean lainoa izan zuten lagun argazkian ikus daitekeen bezala, eta ondotik, Barranka osatutuan elkartu ziren hurrengo urtean berriz elkartzeko hitz emanez.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Artista berriak

Diotenez, herri guztietan izaten dira abilitade bereziak dituzten pertsonak. Eta horixe da Jaime Lasarteren kasua. Denbora librean ezaugarri desberdinak dituzten bastoiak egiten ditu. Herritar batzuk bere lanak ostatuan jartzeko animatu dute, baten bat saltzen duen ikusteko.



BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → EHIZA

Usategien enkante publikoa abuztuaren 11n

Lau eremutako usategiak aterako dira enkantera



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIA ETA ARANTXA ITURRALDE

TTIPI-TTAPA

Usategien aprobe-txamendua enkantera atera du Udalak, lau urterako. Lau eremutako usategiak izanen dira, eta guztira 45 ehiza postu izanen dira. Enkantea, berriz, udaletxean egingen da abuztuaren 11n, larunbatarekin, 11:00etan.

Aieletako usategiak sei ehiza postu ditu eta honen hasierako prezioa 12.000 eurotan finkatu du Udalak; Ameztiko inguruan zortzi ehiza postu dira eta hauen hasierako prezioa 9.000 eurokoa izanen da; Lotzabiango usategiak guztira hamazazpi ehiza postu ditu eta eremu honen hasierako prezioa 10.000 eurokoa izanen da. Uztakortako usategian, azkenik, hamalau postu daude eta honen hasierako prezioa 10.500 eurotan hartzatu du Udalak.

Enkantean parte hartzeko, lizitatzailleek hasierako prezioaren %5 utzi beharko dute alde aurretik, behin-behineko fidantza gisa. Gora jotzeko postura, berriz, 100 eurokoa izanen da.

Baldintza agiria Herriko Etxean eskura daiteke, idazkaritzako ordutegian. Informazio gehiagorako 948 450864 telefonora dei daitezke edo udala@labaien.org era idatzi.

Ovniak espazioan

eta Nafarroako Gazte Txartel ofiziala Rural Kutxan

Gauza bakiltza bere lekuan. Eta orain, Nafarroako Gazte Txartel ofiziala **DOHAINIK** eskatzeko toki bakarra Nafarroako Rural Kutxa da. **14 eta 30 urte bitarte** baldin badituzu, zator gura bulegoetara eta ateratzezu probetxua bere abantaila guztiei:

- 1** Oribaitik 10.000 euro baino gehiago erosten baduzu, %5 erabat irabazten duzu.
- 2** Oribaitik 10.000 euro baino gehiago erosten baduzu, %5 erabat irabazten duzu.
- 3** Oribaitik 10.000 euro baino gehiago erosten baduzu, %5 erabat irabazten duzu.
- 4** Oribaitik 10.000 euro baino gehiago erosten baduzu, %5 erabat irabazten duzu.
- 5** Oribaitik 10.000 euro baino gehiago erosten baduzu, %5 erabat irabazten duzu.

00

NAFARROAKO RURAL KUTXA

Nafarroako Gobernua

ARANO

UDAKO FESTAK → SANTIOAK UZTAILAREN 21EAN ETA 22AN, ETA 25ETIK 29RA

Santio Egunaren aurreko asteburuan ere ekitaldi ugari

Santio Egunean botako da jaiak ofizialki hasteko itxaferoa

TTIPI-TTAPA

Aurtengo Santio festak ere ez dira motz geldituko, aurreko asteburuan ere ekitaldi asko izanen dira eta Santio egunetik aurrera gehiago.

LARUNBATA, UZTAILAK 21

- 12:00etan hasita egun osoan Nafarroako konkistaren erakusketa.
- 18:00: pala txapelketako finalak.
- 20:00: 1512-2012 Nafarroari buruzko hitzaldia Xabi Kuetto herriko historialariarekin.

IGANDEA, UZTAILAK 22

- Egurditik aurrera, kotoxe zaharren igoera.

ASTEAZKENA, UZTAILAK 25, SANTIO EGUNA

- 11:00: meza
- 12:00: itxaferoa.
- Bonba japoniarrak eta buru haundiak.
- 18:00: herri kirolak. Aizkolariak Atutxa eta Nazabal eta 5 metroko egurrekin Felix Etxeberria. Harriarekin, *Izeta II.a* ariko da.
- 19:00: Arano-Goizuetateko arteko pilota partida. Aranotik Huizi-Lizeaga eta Goizuetatik Apezetxea-Narbarate.
- 21:30: ilargipeko zinea.
- Afal garaian, TAPIA eta LETURIA.

OSTEGUNA, UZTAILAK 26, SAN JOAKIN ETA SANTA ANA

- 11:00: meza.
- Gero: hamaiketakoa.
- 13:00: afizionatuen pi-



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Aurten ere herriko sagardo eta produktuak probatzeko aukera izanen da.

- lota partida. Esnal-San Sebastian, Ojuel-Go - rrotxategiren aurka.
- 14:00: jubilatuen bazkaria, Imanol Lazkano eta Xabier Legarretarekin.
- Ondoren: TRIKIBELTZ.

OSTIRALA, UZTAILAK 27

- 18:00: artisau azoka.
- 19:00: feria. Tortilla txapelketa eta sagardo eta produktuen probaketa.
- 22:00: XXX. mustxapelketa San Roken.
- 23:00: Dj Jo ta txo!

LARUNBATA, UZTAILAK 28 NAFARROAREN EGUNA

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da plazan.
- Goizean dultzaineroak.
- 14:00: arkume jatea.
- Ondoren Imanol Kamio eta Eñaut Agirrerekin kantu saioa.
- 19:30: bertsolariak. Agin Rezola, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Unai Agirre.
- Afal ondoan, erromeria GOZO-GOZOarekin.

IGANDEA, UZTAILAK 29

- 10:00: meza.
- 10:30: umeen partida. Mujika-Apezetxea eta Altsua- Apezetxea.
- Segidan: Aranoko eta



ARGAZKIA ETA TESTUA: AINHOA ANSA

Su gainean saltoka

Ume zein ez hain umeek ederki pasatu zuten aparkalekuan sanjuanetarako egindako su gainetik salto egiten.

- Goizuetako dantzariak.
- 15:30: puzgarriak eta ume jolasak.
- 18:30: txokolatada.
- 19:00: umeentzat Arno ganadutegiko aziendak.
- Festak bukatzeko IZER eta ALABIER.

MENDIALDEA

Hondakinen bereizketaz azalpenak ematen ari dira etxez-etxe

TTIPI-TTAPA

Birziklapenaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egiten ari da Mendialdea Mankomunitatea Arano, Areso, Goizuetate eta Leitza, hondakinak ongi bereizteak duen garrantzia erakusteko. Langabezia dauden bi lagun kontratatu dira eta uztailaren 6az geroztik, etxez-etxe dabilta zaborren bereizketaren azalpenak emanez eta galderak eginez: 09:30etik 13:30era eta 15:00-etatik 18:00etara. Gaiakoko bilketa hasi zenetik urteak pasatu badira ere, 2010era arte ez zen osatu, enbaseen edukiontzia orduan paratu baitzen. Tarte honetan, Mankomunitateak balantze ona egin du, «urte batean enbaseen bilketa bikoiztu dela» esanez. 2010ean 54,55 tona bildu ziren eta ia 101,44. «Honek 200 tona CO2 isurtzea galderazi du».

Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

ATZERA BEGIRA → KULTURA

Berreskuratu diren Frankismo garaiko antzerkien datu gehiago bildu nahi dira

Datu gehiago bilduta zerbait egin nahi da azarorako

TTIPI-TTAPA

UEMA Eguna zela eta hasi ziren bazterrak mugitzen, Frankismo garaian euskara bultzatzeko laguntzak bazirela eta herrian antzerki talde bat bazela jakin zenean. Eta orain bai, Frankismo garaiko euskarazko antzerkiak berreskuratu direla ere esan daiteke eta orduko aktore gehienak oraindik garai hartako istorioak kontatzeko moduan dira. Izaskun Bakerok zinegotziak eman dizkigu xehetasunak.

Milagros Barrenetxekoa, Marikarmen Bibianona, Arantxa Berroeta, Antton Berroeta, Axun Maiokoa, Maritxu Txokoa, Marianjeles Artzan-

goa, Pablo Miranda, Xebeino Berroeta... Horiek izan ziren aktore lanetan aritu zirenetakoak, eta atzean, antzektokiaz eta makillajeaz arduratzen beste talde bat ere aritzen zen.

Eta orain, urte batzuk pasatu direnenan, saioetako argazkiak eta gidoiak berreskuratu dira, azken hauen bertsio originalak Barrenetxeko Milagrosen gorderik izan dituelako.

Bi antzerkiren datuak lortu dira. 1959an Antonio Amundarinek idatzitako *Usteiñat, ya lo creo* da horietako bat. Etxeetara zerbitzatzera joaten ziren emakumeen istorioak kontatzen ditu eta emakumezkoak ziren aktore guztiak. *Aberatsak olaxe egiten* 1962ko abuztuaren 19ko Euskararen Egunean estreinatuta zuten, On Saturnino orduko apezak egina.



IZASKUN BAKEROK UTZITAKO ARGAZKIAK

Aberatsak olaxe egiten antzerkiko unea goian, eta protagonistak behean.

Karmen bezperako festa igandean

Urteetan galduta egon ondotik, iaz berreskuratutako Karmen bezperako ospakizunak aurten ez du hutsik egingen. Sanjuan bezperan bezala, igandean, uztailak 15, su gainean saltoka ibiltzeko aukera izanen da. Hori baino lehen, jendea afaltzeko bilduko da plazan, eta 21:00etan egin dute hitzordua. Udalak sagardoa eta ardoa eskainiko dizkie biltzen direnei eta mahaia ere paratuko ditu. Jatekoa norberak eraman beharko du. 22:30 aldera piztuko da sua. Eguraldi onarekin plazan egingen dira ekitaldiak eta txarrarekin frontoian.

Gainera, Vianako Printzea erakundeak dirulaguntza eman zion antzerki honi, eta horri esker, Goizuetan ez ezik, kanpoan barna ere ibili ziren antzezlana eskainiz: Iturenen, Donezteben, Iruñeko Gaiarre antzokian, Betelun... Maintemindu den mutil gazte baten istorioak kontatzen ditu.

Orain, datu gehiago bildu nahi dituztela adierazi digu Bakerok, Azarako Kulturalean zerbait egi-

teko. Baina «ametsa antzerki horietako bat mar txan paratzea izanen litzateke», gaineratu digu.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Salaberriaren beste bat

Aimar Olaizolak bezala, profesionaletan hamar txapel irabaziko dituen beste goizuetarik izanen den ala ez dakigu, baina herriko pilotari gaztetxoak fin dabilzala, hori bai baieztatu daitekeela. Bi final jokatu zituen Iker Salaberriak ekainaren 24an. Lehena Erreterian, Alberdi azpeitiarra lagun zuela, eta 18-15eko emaitzarekin galdu zuten. Eguneko beste partida bi orduren buruan jokatu zuen Salaberriak Lizarran, argazkian ageri den Burlatako Josu Eskirozekin bikotea osatuz. Aldi honetan, 18-1 irabazi zuten Gipuzkoako bikotearen kontra.



ARGAZKIA: MARI JOSE NARBARTE

San Juan bezperan, izpiritu txarrak uxatuz

San Juan Eguna bezperan, su gainean salto batzuk egiteko aukera izan zen.

LEITZA

GIZARTEA → ELKARTASUN EKIMENA

Sahararen aldeko indoor bizikleta topaketa egingen da uztailaren 28an

Izen-ematea uztailaren 24a baino lehen egin behar da

JM BARRIOLA

Elkartasuna eta kirola uztartuz, Saharari elkartasuna adierazteko ekimena antolatu du Saharar Herriarekiko Elkartasun Taldeak: indoor bizikleta topaketa. Uztailaren 28an egingen da plazan, eta 16:00etatik aurrera 35 minutuko lau saio egingen dira: 16:00etan, 16:40an, 17:20an eta azkena 18:00etan.

Izen-ematea hilaren 24a baino lehen egin behar da, 649 552 368ra deituz. Ruben Kaballero, Nerea Gartzia, Angel Serrano eta Buxy Kortajarena izanen dira monitorea, eta prezioak hauek: saio bat egitekotan 10 euro, bi saioekin 12 euro, hiru saioekin 14 euro eta laurekin 16 euro.



ARGAZKIA: PABLO FEO

San Juan bezperako jaia jendetsua

Aurten San Juan bezperako afaria jendetsua izan zen, larunbatarekin tokatu baitzen. 1.200 lagunentzako mahaiak eta aulkiak jarri eta gehienak bete ziren. Ondoren, suak piztu ziren eta parranda ederra joan zen.

Igogailua eskolan

Erleta ikastetxean igogailua jartzeko asmoak aspaldikoak ziren eta azkenean aurrera aterako dira. Horrela, muga arkitonikoak gainditzeko aurrerapauso garrantzitsua egingen da, azken solairuan egokitutako gelak erabili ahalko dira ikasle guztiak eraikin berdinean kokatzeko bidea erraztuz. Lanak udan egin behar dira umeak ez dardenean eta horregatik prozedura guztia azkartu egin da eta epeak oso estuak izan dira. Hiru enpresa aurkeztu ziren eta eskaintza merkeena Gorritz enpresak aurkeztu zuenez, berari esleitu zaio lana, 106.288,68 eurotan (BEZ barne)

Kanflanka finalean

Igandean, hilak 15, gure herrian jokatu den Euskal Herriko Segatxa-pelketako finalean izanen da Jon Kanflanka herritarra. 12:00etan hasiko da.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Osasunean egin nahi dituzten murrizketen aurka jende asko

Leitza bizirik, murrizketarik ez lelopean 620 herritar baino gehiago bildu ziren plazan ekainaren 22an. Osasunbidetik egin nahi dituzten murrizketak salatuz, gure herrirako aurreikusituzten zerbitzuen gutxitzeak bertan behera uzteko eskatuz.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Autopista elektrikoaren inguruan

Dirudienez, autopista elektrikoa egiteko asmoak aurrera doaz, nahiz eta jendea oso kezkatuta egon. Eta afektatutako udalen aurkako posturari muzin egingez. Hurrengo urratsa nondik pasako den zehaztea izanen da. Proiektuaren kontra kontzentrazioa egin zen ekainaren 23ko goizean.

Hondakinen inguruko kudeaketa



Mendialdeko Mankomunitateak ontzi berriak jarri ditu, zehazki bi Leitza, bat Goizuetan eta beste bat Lekunberrin. Hauetan arropa eta oinetakoak bota ahalko dira. Arekozubi ondoan jarri dute bat eta Amazabal auzoan beste bat. Bestetik, etxeetako hondakin arriskutsuen bilketa egin eta ondoren birtziklapena bideratzeko, puntu garbiak ezarriko dira. Leitza, Goizuetan eta Lekunberrin puntu garbi finko bana jarriko diren bitartean, Mankomunitateko gainontzeko herrietan hondakin arriskutsuen puntu mugikorak jarriko dira, furgoneta bat erosituz eta honen moldaketaren bitartez. Pilak eta fluoreszenteak biltzeko edukiontzi egokiak jartzeko asmoa ere badago. Guztia irailan jarriko da martxan. Horrez gain, langabeak kontratatu dira etxetz-etxe, hondakinen banaketaren inguruko galdeketa egin eta zuzen nola egin erakusteko. Bestalde, Nafarroako iparraldeko hautetsiekin batera Leitza eta Usurbilen izan ziren –argazkian–, hondakinen atez ateko bilketa nola egiten duten zuzenean ikusi eta esperientziatik ikasteko.

FESTAK → SANPEDROEN ERREPASOA

Urtetik urtera gero eta indar gutxiago dute sanpedroek

Jende gutxi ibili da eta gazteek ere ezin izan dute bildu

Juana Mari SAIZAR

San Pedro festak ospatu ziren herrian ekaineko azken asteburuan. Lagun Arteak antolatuta aurtengoan ere, baina esan behar da inauteriek indarra hartu duten bezala, sanpedroek galdu egin dutela. Jende oso gutxi ibili da herrian, gazteek ere ezin izan dute bildu.

Ea bada datorren urtean zer gertatzen den, aurtengoak horrela beharko dute jada. Hala ere, aipatu, herriko eta baserrietako eskeetan talde txikia ibili den arren, ibili diren gutxiak ederki pasatu dutela eta



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Sanpedroetan baserrian ibili diren gazteak Txuine baserrian.

festa ederrak bota ditzutela, ondoko argazkian ikusten den bezala.

Bi langile herriko lanetarako

Udalak kontratatutako

herriko langileak hasiak dira udako lanetan. Bi langile hartu dira udara partean herriko lanak egiteko, bata Jon Aranzeta leizarra da eta berarekin, laguntzaile bezala, Jose

Martin Onsalo aresoarra ariko da. Gogotsu hasi dira biak lanean, eta oraingoz kaleak garbitzen dabilta eta ondoren, herriko mantimendu-lanak egin beharko dituzte.

DATUA

2

LANGILE

kontratatuta dute Udalak udan herriko lanak egiteko. Jon Aranzeta leizarra da bat eta bere laguntzailea Jose Martin Onsalo herritarra.

Egur loteak

Sutarako egur loteak bota dituzte dagoeneko, kamioiak herriko etxeetara ekarri ditu eta banatuta geratu dira. Mendian botatzeko eskatu zutenek, berriz, bertan dituzte nahi dutenean bila joateko. Motozerren soinua nabari hazi da azken astean herrian. Jendeak badu nahiko lan orain!

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
udako merkealdia

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

BAZTAN

UDALA → FUNTZIONAMENDUAN ALDAKETAK

Bere bigarren buletina kaleratu du Gobernu Taldeak

Bide batez, udaleko ateak zabalik daudela adierazi du

TTIPI-TTAPA

Udal Gobernu osoa eta urtebetetera balorazioa egin zuten ekainean Udal Gobernu Taldeko ordezkariak prentsaurrekoan. Bigarren buletina ere kaleratu dute xehetasun gehiagorekin.

Batetik, aurrekontuak ditu hizpide. 2012rako 8.462.631 euroko aurrekontua onartu du: «iazkoa baino %4,7 handiagoa bada ere –aitzineko agintaldian inbertsioetarako utzitako diruagatik–, murrizketa gogorrik izan dira». Aurtengo aurrekontua egiterakoan, baldintza nagusi izan direla dio: «Nafarroako Gobernuaren bidegabeko mozketak eta Udalaren 8.348.607,56 milioi euroko zorra». Gobernuak gastu arrunterako udalari egin behar zion transferentzia 54.604 eurotan guttitu duela adierazi du, eta Udalak bere gain hartu behar izan duela gastua. Gisa berean, langile-funtzionarioen soldatik izozteko erabakia gehitu du. Bertzetik, Udalak duen zorra dela eta, Udalak inbertsioak egiteko mailegurik ezin duela eskatu gogoratu du. Aitzitik, gastu arrunta berantolatuta, 134.630 euro aurreztu direla dio Udal Gobernuak, eta horrek zerbitzu sozialak indartzeko baliabide ekonomikoak lortzea ahalbidetu

duela. Hala ere, gastu arruntean 97.245 euro murriztu omen dira.

Trabaturik dauden inbertsioez ere badihardu, lehentasunen arabera inbertsioak berrantolatu direla kontatuz: «premiagatik uholdeen kalteak konpontzeko lanak onartu dira eta behar sozialagatik herrietarat ura eraman ahal izatea eta pista batzuen moldaketa». Gaineratu du, «Udalak inbertsioak modu errealistatzen berrantolatu eta gero dauden sos pizarrekin lehentasuna dutenak egiteko, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ezin txarragoagatik ez duela lan horiek egiteko laguntzarik jasoko».

Piriniar arrazako behien feriaz ere ari da Gobernu Taldea, iazkoak 47.000 euroko gastua eragin zuela erranez. Kontuak oraino zuritu gabe daudela dio: «Aspina eta babesle gehienek beren partearen handiskoena ordaindu badute ere (3.700 euro falta oraino), Nafarroako Gobernuak ez du bere zatia (15.250 euro) ordaindu. Gainera, Amaiurko abuztuko ardiaren ferriako 3.675 euroak ere pagatu gabe ditu. Oraingoan, diru hori Udalak jarri behar izan du». Gisa berean, 2012ko aurrekontuetan feriak egiteko diru kopurua iazko 50.000 euroetatik aurtengo 25.000 tarat jautsi duela azaldu du, eta aurtengo 25.000 euro horiek iaz agindutako dirulaguntza ordaintzeko erabiliiko dituela. Feriak ez egitekoan, ardura Gobernuare-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Osasunbidearen murrizketen kontra protesta Oronoz-Mugairin

Ornoz-Mugairiko larraldietako puntua mantentzeko eskatuz eta *Osasuna herritarren eskubidea, murrizketarik ez!* lelopean, 80 lagun inguru elkartu ziren Oronozen ekainaren 30ean, zentroaren aitzinean. Juana Hualde alkateak kontzentrazioarako deia egin zuen baztandar guztiendako eta 30-45 minutuz elkarretaratuak egon ondotik, errepidea moztu zuten minutu batez, Guardia Zibilaren begiradapean.

Giltxaurdi enpresa publikorako gerentea kontratatu nahi du Udalak

Elizondoko Giltxaurdi enpresa publikoaren gerentea kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Eskaerak udaletxera bidali behar dira ortziral honetako, hilak 13, 14:00 baino lehen. Gerenteak Elizondon egiten du lan, lanaldi osoan eta ordainsariari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean kirol zerbitzuak eta ekipamenduak kudeatzen dituzten enpresen hitzarmen kolektiboaren arabera, lehenbiziko taldean sartuko da. Ikasketei dagokienez, goi mailako teknikari titulua, Unibertsitateko Titulua edo baliokidea behar du. Norbere autoa eta B klaseko gida baimena izatea ere eskatuko da. Hautaketa prozeduran, curriculumean prestakuntza espezifiko, esperientzia eta kirol instalazioei buruzko ezagutza baloratuko dira. Lehen hautaketa pasatu dutenei elkarrizketa egingen zaie eta Udaleko webgunearen bidez jakinaraziko zaie noiz eta non izanen den elkarrizketa. Eskaerak zuzenean aurkez daitezke udaletxean. Xehetasun gehiago www.baztangoudala.eu webgunean.

UDAL BOLETINA

«Udal Gobernuak bere lehenbiziko urtea betetez dagoen honetan, baztandar guztiak ahal bezain informaturik egon daitezkeen lanean jarraitzen du. Horregatik, gure bigarren Udal Boletina aurkezten dizuegu»

Udal Gobernu Taldea

na dela azpimarratu du.

Herrietako lan ttipiak aldizkatuz egiten ari direla ere ageri da buletinean: bide eta karriken mantentimendua, harri-lubetak, mendi lanak... Udal berriarekin gisa horretako 22 lan egin omen dira.

Nafarroako Gobernuaren murrizketak tarte-

ko, Elizondoko Frantzisko Jabier ikastetxeko lanetara Udalak ekarpen ekonomiko haundiagoa egin behar izan duela ere ageri da buletinean, baita Udal Plana idazteko prozesu parte hartzailea ere. Hiltegia arautegira moldatzeko lanak ere aipatu ditu, eta kultur jarduerak diruz laguntzeko eskabide bakarra aurkeztu behar dela oroitarazi du, eta laguntzak eskatzeko epea urte osoan irekia egonen dela.

Hirigintzako arau hausteengatik ere ohartarazi du. Etxean zernahi lan egin behar dela ere, baimena behar dela dio, eta baimena jaso arte ezin dela lanekin hasi, horrek isunak eta espediente irekiera ekartzen ahal ditue-

lako. Udalak, mahai gainerat etorri zaizkion espedienteak tramitatuko ditu, eta legea betearazi eta arau-hausteak jarraitzeko protokolo bat egingen duela iragarri du.

Giltxaurdi enpresa publiko batek kudeatzeko apustuaz ere mintzo da, eta osasun zerbitzuak murrizteko Gobernuaren asmoa ere kritikatu du.

Karriken garbiketaren antolatuta duela ere azaldu du Gobernu Taldeak: Elizondon hilabeteko lehen eta hirugarren astelehen eta astearteetan kenduko dira kartel eta pankartak eta hirugarren astelehen edo astearteetan mangera pasako da. Bertze herrietan hilabeteko lehen astean kenduko dituzte kartelak.

OSPAKIZUNAK → BAZTANDARREN BESTA HAUNDIA

Baztandarren Biltzarra Egunaren bezperan ere besta izanen da aurten

Amaiurko ikuskizunaren ondotik, ostatua, elektrotzaranga eta dantzaldia bezperan

TTIPI-TTAPA

Asteburu haundia izanen da uztailaren 21 eta 22koa Baztanen. Alde batetik, uztailaren 21ean Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoan *Haien ametsa gurea da* ikuskizuna prestatu duzte Amaiurren. Honen inguruko xehetasunak al-dizkariko 4. eta 5. orrian irakurriko dituzue. Eta bertetik, Baztandarren Biltzarra Elkarrekin ez du ekitaldirik gabe utzi nahi izan uztailaren 21a, eta Baztandarren Biltzarren bezperan eta egun haundian besta giroa nagusituko da.

UZTAILAK 21, LARUNBATA

- 22:00etatik aitzinera Baztandarren Biltzarren ostatua Elizondoko plazan eta Mukaki Elektrotzaragarekin kale animazioa.
- 00:30ean gaupasa Trikidantzen eskutik.

UZTAILAK 22, IGANDEA

- Egun osoan, eskoletako haurren marrazkien erakusketa.
- 10:00etan artisauen erakusketa Pedro Axular Karrikan.
- 11:00etan orga apainduen desfilea.

- 14:00etan Mutildantzak Elizondoko herriko plazan.
- 14:30ean herri bazkaria Merkatuko Zelaian. Bazkarirako txartelak saltzen uztailaren 18an 10:00etan hasiko dira egoitzan, eta bakoitzak 16 txartel (mahai bat) erosi ahalko ditu gehiezin. 20 euro balio ditu txartelak eta ezin da erreserbarik egin.
- Ondotik, bazkalondoko jaialdia.
- 18:00etan dantzaldia Trikidantzen eskutik Laxoako Frontoian.
- 20:00 dantzaldia Laiotzen eskutik Laxoako Frontoian.
- 01:00etan DJ-ak (Terry&Tery) Laxoako frontoiko Baztandarren Biltzarren ostatuan.

KARTEL ERAKUSKETA

Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketara aurkeztu ziren lanakikusgai izanen dira uztailaren 19ra arte. Arizkunean egonen dira, 18:00etatik 20:00etara.

Zigor-eskaera Ernesto Pratendako

Apirilaren 13an utzi zuten libre Ernesto Prat, baldintzapeko askatasunean 25.000 euroko fidantza ordainduta. Leerro hauek idazterakoan, ordea, Auzitegi Nazionalen egitekoa den epai-ketaren zain zegoen. Ekineko ustezko kidea izatea leporatuta, zortzi urteko espetxe zigorra eskatu du Fiskaltzak Pratendako. Baztango



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Baztandarrak Euskal Herriko Arpana Txapelketan

Andoni Irigoien aniztarrak eta Guillermo Etxenike iruritarrak Euskal Herriko Arpana Txapelketan parte hartu dute. Hilaren 1ean Usurbilen (Gipuzkoa) jokatu zen kanporaketan izan ziren bertze zazpi bikoterekin, baina ez zuten finalerako txartelik lortu.

Ekineko arduraduna izatea leporatzen diote, eta horregatik, zortzi urteko espetxe zigorraz gain, inhabilitazio berezia 8 urterako eta erabateko inhabilitazioa 16 urterako eskatzen du Fiskalak.

Gazte mailako aizkora txapelketa

Zigako Joxeantonio Etxeberria hirugarren izan da Euskal Herriko gazte mailako aizkora txapelketan. Uztailaren 1ean Usurbilen jokatu zen finala eta bortz aizkolariren artean, irabazlearengandik 3 minutu eta 17 segundora gelditu zen.

Oharra

Traste zaharren bilketa egiteko telefono berria da orain: 672 045734.



UTZITAKO ARGAZKIA

Santioetako kartel irabazlea

Iñaki Atxaren kartel honek iragarriko ditu uztailaren 24tik 28ra izanen diren Elizondoko Santioak. Egitaraua aldizkariaren erdiko gehigarrian aurkituko duzue.

Ba al zenekien...

Berriki banatu diren konpostontziekin, guztira 182 konpostontzi banatu dira Baztanen. Oraindik ere norbait animatzen bada, zerrenda berria betetzen ari dira eta izena emateko udaletxean jakinarazi behar da.

FANTXIKE

Jaime Urzua, 15 ELIZONDO 948 850 312
www.fantxike.com

BASERRITAR JANTZIETAN AUKERA ZABALA

BAZTAN

ABELTZAINZA → INBERTSIO BERRIAK

Hiltegia arautegirat moldatzeko 17.000 euro bideratuko ditu oraingoz Udalak

Orain arte hiltegiak jaso dituen isunak saihestu nahi dira moldaketa lanekin

TTIPI-TTAPA

Aitzineko Udalak Loizu hiltzearen kudeaketa berria esleitu zuen agintaldi honarrean. Eta oraingoz Udalak, hiltze arautegiaren eskakizunetara egokitzeko hainbat lan egin ditu. Oraingoz 17.000 euro bideratuko direla jakinarazi du Jon Elizetxe zinegotziak.

Egin beharreko lanak zehazteko Nafarroako Gobernu Osasun Publikoaren Institutuarekin bildu dira udal ordezkariak eta hala, hasteko, azienden sarbidea hobetzeko alaka edo txafiana egin da pareta

batean. Gisa berean, heia berriaren proiektua eta bertzelako lanen proiektua idazteko Udalak 1.500 eurotan ingeniaria kontratatu du.

Bertzalde, ur-araztegiaren sarea jarriko da, hegaztien hiltzetik ateratzen diren haragi hondarrak jan ez ditzaten. Gainerakoan, animalien tripetako kakak eta aziendak kamioietan eramaten direnean ekartzen dituzten azpikak eta gisakoak biltzeko ongarriendako lehorepea egingen da.

Aziendak hil aitzinean zorabiatzeko erabiltzen den tresneria ere berrituko da 2.500 eurotan eta azia hiltzeko (zerriak, ardiak eta bildotsak) ataka berezia egingen da, 3.000 eurotan. Heian urkazpelak ere paratuko dira, animalien ongizate saiiletik hala eskatu dutelako.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Murrizketei ezetz erran diete ehunka lagunek

Baztan-Bidasoaldeko hezkuntza komunitateko eragileek deituta, manifestazio jendetsua egin zen ekainaren 23an Elizondan. *Etorkizunaren alde, neurri murriztatzailek ez!* lemapean, 500 bat lagun bildu ziren. Gure inguruko gizarte eragilean 140 atxikimendu baino gehiago jaso zituen mobilizazio honek. Manifestazioaren ondotik, irakurritako adierazpenean aipatu zuten, Espainiako Gobernuak funtzio publikoaren inguruan hartu berri dituen neurrien aitzinean, bere desadostasuna adierazi nahi izan du hezkuntza komunitateak, «kalitateko zerbitzu publikoak ez dira bermatuko klaseko ratioak haundituz, osasun etxe txiki-tako zerbitzuak arriskuan jarritz, ezta bestelako neurri kaltegarriak aplikatuta ere». Orain arte Nafarroan etorkizunaren zutabe izan diren eta gizarte ongizatearen berme diren zerbitzu publikoak mantentzea ere aldarrikatu zuten eta horregatik eskatu zioten Nafarroako Gobernuari, «Nafarroak dituen eskumetan oinarriturik, ez ditzala indarrean jarri gobernu zentraletik hartutako erabakiak». Adierazpena akitzeko, «gure etorkizuna eta gizartearen ongizatea jokoan daudelako kalitateko zerbitzu publikoak zaindu behar ditugu», erran zuten hezkuntza komunitateko eledunek.

Moldaketa hauekin hiltze arautegirat moldatu bidenabar, «orain artio jasotzen zituen isunak saihestu nahi dira», azaldu digu Elizetxek. «Ondotik, hiltzearen gainean, lehen sektorea egituratzeko proiektu publiko enpresarial bat egiteko pausuak emanen dira».

HILTEGIAREN INGURUKO FOROA

Hiltzearen inguruan eztabaidatzeko foro bat osatzea proposatu du

Nekazaritza Batzordeak eta ekaineko aktan ageri denez, foro hori abuztuaren 8an egingen da, 20:00etan.



ARGAZKIA: ZALDUA

Jaunartzea Anizen

Ekainaren 17an Anizko Naiara Barrenetxek Lehen Jaunartzea egin zuen. Argazkian Ramon Apezetxea apezarekin ageri da.

APARAN, S.A.

BRINOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak.
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukaike mogleendakoak
- Pintura eta bernitzak
- Bamurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak: esku-erremintak, itabi.



Tel: 648 456 080
Fax: 348 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA → UPN-REN BULETINA

Udal Gobernuari hainbat kritika egin dizkio UPNk bere buletinean

Hirugarren boletina banatu du UPNk

TTIPI-TTAPA

Otsailetik ekainera birtarteko buletina atera du UPNk eta Udal Gobernuaren hainbat alderdi kritikatu ditu. Urtebete pasatu da Udal Gobernu berria osatu zenetik, eta horren harira, «alfarik galdu den urtea» izan dela iritzi dio UPNk, «Gobernu Taldekoek axolagabe segitzen dutela» erranez.

Aroztegiko proiektuaz dio, «berak ukatzen badu ere, Garbiñe Elizegi dela oraindik Aroztegia eta gero zer? plataformako presidentea. Plataformaren estatutuetan bera ageri da». Proiektua geldiarazteko nahi dituzten txostenak Udala ordaintzen ari dela salatzen du, «kalte-ordain garestiak pagatu behar izatearen arriskuan jartzen du alkateak Udala».

Udal komisio irekien gainean zera dio alderdi erreionalistak: «alditik aldira jende guttiago bildzen dute eta komisioetara, gai bakan batzuk eramaten dituzte soilik».

Magnaren proiektuaz ere ari da UPN: «alkatea ez da gauza izan bere betebeharrak legalak konpliztzeko eta oraindik ez dio igorri Kintoko Mankomunitateari Balleko Etxeak osoko bilkuran hartu zuen erabakia baimenduz Magnak eskatutako lurren desafekzioa». Ezke-

rrari, berriz, «beraien baztarrean Magnaren alde erabaki ondotik, orain isildu eta jakinaren gainean egonik ere, egoera hau lasai aski onartzen duela» leporatu dio.

Almandozko harrobia- ren gainean, «bertze inori onartuko ez zizkioten baldintza eta egoera batean lanean segitzea onartzea» egotzi dio Udal Gobernuari. Lanean hasteko udal baimenik ez duen harrobia dela dio.

Inbertsioez bere iritzia ere eman du: «Nafarroako Gobernuaren ehunka milaka euroko diru-laguntzak itzultzeko gauza den Udal Gobernu Taldea dugu, eta diru-laguntza horiei bizkarra eman eta nahiago du diru-laguntzarik gabeko bertze inbertsio batzuk egin». Beti «kalaka berdina» dutela dio UPNk: «zernahi dela errua Gobernuarena da».

Diru kontu batzuk ere ageri dira buletinean: «Udal Gobernu Taldeak dio ezin duela bere gain hartu 20.000 euroko gastua, azienda feria 'naziionala' egiteko. Hori bai, arazorik gabe bere gain hartzen ahal ditu bertze gastu batzuk, justifikatzeko zailak direnak. Lehen tasun kontua da».

Osasun Zerbitzuen harira, «Udalak kontatu nahi izan ez digunaz» ari da UPN. Gobernu Taldearen jokabidean, Garbiñe Elizegi buru duela, kezkarriak diren jarrerak daukela dio, «bere betebeharrak eta udal konpromisoaren aitzinetik pankar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pakita Carballo 2.000 euroren irabazlea

Bertan Gastatu Fite kanpainaren barne, 1.525 txartel osatu dira aurten, eta horien artean irabazlea Pakita Carballo elizondarra izan da. Berak izan du Bertaneko kide diren jate txex, ostatu, zerbitzu eta jendetan 2.000 euro gastatzeko aukera.



ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Xingar-jatea eta zinema Anizen

Aniztar andana bildu zen uztailaren 2an Udalak antolatutako *Chihiroren bidaia* pelikula ikustera eta horren aitzakian, aitzinetik, xingar jatea antolatu zen. Halere, pelikula akitzeaz zegoela aparailua hondatu eta ez zen bukaera ikusi ahal izan. Bildutakoak penaz joan ziren etxera bukaera ikusi gabe, baina teknologia berrien akatsa izan zela eta, bertze egunen batean bertze film bat ikusteko aukera izanen da.

ta jarriz. Afera politikoen aldarikapena bertze edozein helbururen gainera. Osasun Zerbitzuen inguruko informazioa «ez osoki eta arras manera manipulatu, beraien interesen arabera, gizartratzen ari direla», iritzi dio.

Duela urte batzuk saihesbide sarrera-irteeren zirkulazioa berrantolatzeko plan bat egin zela azaldu du UPNk, «saihesbidea ireki zuten momentuan plan hori indarrean egoten ahal zen, baldin eta arreta pizarren bat eman izan balitzaio». Duela hilabete batzuk, UPNk Elizondoko karraketan zirkulazioa berrantolatzeko bertze plan bat proposatu zuela ere badio buletinak. «Gai zirkulazio

komisiora eramane zutela erran ziguten, eta komisio horretara ez dute inoiz deitu, existitu ere ez baita existitzen».

Giltxaurdi kudeatzeko enpresa publikoaren aldeko apustua egin du Udal Gobernuak, eta UPNk «enpresa publikoaren estatutuei errekurtsioa sartu dio. Bere uestetan, «prozedura eta formazko akatsez gain, ez dira errespetatu ere egin, eta 'osoki diru publikoaren eginen den Udal Enpresa Publikoaren Proiektua' dioden dokumentuan onartezina dela iruditzen zaigun bertze arrazoi bat ere bada». Igerilekua kudeatzeko egin nahi den enpresa honen gibeletik «udaletxe paralelo» bat

ezkututzen da UPNrendako.

Udalaren gestioa ere aipatu du azken urteotako gestioarekin alderatuz: «udalbatzar kopuru haundieneko garaia (2008-2009) erreferentzia bezala hartuta, jarduera %62 murriztu da». Dioenez, «doblaturik da alkateak bakarrik hartutako erabakien kopurua, urte osoko udalbatzarretan tratatutako puntu kopuruarekin konparatuta».



BAZTAN

OSASUNA ETA KIROLA → HELDU DEN IKASTURTEAN

'Eskolara oinez, doike!' programa Amaiur eta Oronoz-Mugairin

Urrirako martxan paratu nahi da kanpaina

TTIPI-TTAPA

Eguneroko jardueri loturiko ariketa fisikoa gero eta guttiagotan egiten da, leku gehienetara kotxez joan ohi delako jendea edota haurrak eskolara kotxez eramaten dituelako. Horrek osasunean eragiten du eta horri erantzutera dator *Eskolara oinez, doike kanpaina!*

Eskolara oinez edo bizikletaz joateko kanpaina Amaiur eta Oronoz-Mugairin paratu nahi da martxan heldu den ikasturtean. 2009an Elizondon abiatu zen kanpaina eta joan den ikasturtean, Arraioz, Arizkun, Erratzu eta Iruritan landu da. Irail hasieran, berriaz, Oronoz-Mugairi eta Amaiur gehituko zaizkio ekimenari. Horretarako, ikasturte hasieran inkestak banatuko dira eskole-tako familien artean. Gisa berean, eskolan taile-rrak egiten dira eta gura-soei bilera batera deituko zaie. Urrirako eskolara oinez joateko kanpaina martxan egotea aurrerikusi da. Haurrak eskolara oinez eta bizikletaz modu autonomo batez joatea errazten eta bultzatzen duen ibilbide segurua da Eskolako Bidea eta bide hori segurua, osasuntsuago, atseginago eta erakargarria egin nahi da, umeak oinez eta bizikletaz joateko aukera eduki dezan.



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

Arizkungo sanjuanak

Ekainaren 22an hasitako bestak ederki akitu ziren ekainaren 25ean, Zikiro Egunean. Horiek eta San Juan bezpera eta San Juan Eguna ere umore ederrean joan ziren.



ARGAZKIAK: MAITE OTEIZA

Erratzuko sanpedroak

Besta eta kirola uztartuz, giro ederrean joan dira aurtengo Erratzuko sanpedroak.

BERTIZ

Amaiurko ikuskizunerako sarrerak zozketatuko ditu Bertizek

TTIPI-TTAPA

Produktu turistiko berriak garatzen segitzen du Bertizko Partzuergo Turistikoak. Ohar bidez adierazi duenez, azken urteotan bi produktu berri ditu esku artean. Batetik, laxoa zabalitzen ari da erakustaldiekin Oizen eta bertze modalitateak Urdazubin. Hala, Partzuergoaren web orriari pilotaren inguruko atal bat ireki dute. Bertzetik, hegaztien behaketa ere lantzen ari da, hegazti migratzaile eta basoan bizi diren behaketaren jardunaldiekin. Ekimen hau irailan egingen da hirugarrenez, Etxalar eta Bertizen. Sare sozialetan ere bere tokia egiten ari direla adierazi du Partzuergotik. Facebook, Twitter, Wikiloc, Forsquare, linkedin eta blogetan eskua sartu du, eta berriki, bere lehenbiziko zozketa prestatu du Facebooken: 10 sarrera zozketatuko ditu hilaren 21ean Nafarroako konkistaren urteurrena gozatu Amaiurren egingen den ikuskizunerako. Parte hartzeko Facebook eta Baztan-Bidasoko alojamentuen erreserba zentrala begiratu behar da.



ZUGARRAMURDI

KIROLA → AKELARRE ELKARTEAK ANTOLATUTA

24 lagunek eman dute pilota txapelketan parte hartzeko izena

Horietatik bakarra izanen da emakumezkoa

Koro eta Margari

24 lagun dira Akelarre Elkarteak antolatu duen binakako pala txapelketan parte hartuko dutenak. Izena eman dutenekin sei bikoteko bi talde egin dira, eta talde bakoitzeko lehenbiziko bikote sailkatuek bestetan, Andre Mari

Egunean, jostatuko dute finala.

Aipatzekoa da 24 lagun horien artean, neska bakarrak eman dela izena, baina hasierahasieratik jokalaria ona dela erakutsi du, lehenbiziko partida irabazi baitu.

FINALA

Bi talde osatu dira eta talde bakoitzeko lehenbiziko sailkatuek Andre Mari Egunean finala jokatuko dute.

Urdazubiko monasterioko erakusketa berriz zabalik

Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak izenburupean, urte batzuk baditu Urdazubiko monasterioan dagoen arte garaikidearen erakusketak, eta geroztik, jende aunitzek bisitatu du. Joan den urtean, adibidez, 10.000 lagunetik goitik ikusi zituzten erakusketa eta monasterioan dagoen museo ttikia. Aurten ere erakusketa ikusteko aukera zabalik dago eta eskulturagile eta margolarien hainbat lan ikusgai izanen dira abenduaren 31ra arte. Uda honetan egunero egonen da zabalik, 11:00etatik 20:00etara.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Seilaruak husteko merkatua

Arras merkatu bitxia antolatu zen gure herrian ekainaren azkeneko igandean. Bakoitzak etxean sobran zituen tresna, altzari, arropa, liburu, jostailu, musika... karrikarat atera eta han saltzeko aukera izan zuen. Bistan da ez zela negozioa egiteko afera bat, seilaruak husteko manera bat baizik. Hori dela eta, arras gauza pulitak arras prezio merkean hartzeko aukera izan zen: arropak hiru eurotan, musika DVDak euro batean, jostailuak bi eurotan... Frontoi zaharrea antolatu zen salmenta, eta interesatu guztiek han paratu zituzten beraien gauzak. Lehenbiziko aldia zenez, eta publizitate eskasa egina zenez, ez zen mugimenta haundirik izan, baina esperientzia pulita izan zen, eta errepikatzeko asmoa omen dute antolatzaileek.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Pilota desafioa Iker eta Juanoren artean

Ekainaren 30ean Iker eta Juanoren artean pilota partida desafioa jostatu zuten. 11:00etan hasi eta zeremonia haundiarekin egin zen (nahiz eta angelusa ahantzi omen zuten). Kaiet eta Klemen izan ziren botileroak, eta Alfredok epaile lanak bete zituen. 40-34 irabazi zuen Iñakok desafioa, eta aitzakia pulita izan zen denak elkarrekin bazkaltzera gateko.

Faktura orriak eta kartazalak

inprimitzen ditugu

ttipi-ttapa

Eskatu informazioa:

948 63 54 58
kulturrari@ttipi.net



fakturak / orriak
1.000 A4 → 86€
koloretan, 90 g. BEZ bane



kartazalak
1.000 ale → 107€
zuri beltzean BEZ bane

SENPERE

GIZARTEA → GENERO INDARKERIA

40 lagunek salatu dute Binta Keita emakumearen hilketa

Badira zonbait
hilabete
emakumea
Urguri auzoan
bizi zela bere
senarrarekin

DATUA

12

EMAKUMEZKO HIL
dira azken sei urte
hauetan Ipar Euskal
Herrian senar edo
bikotekide ohien eskutik.

Franck DOLOSOR

Ez ohiko biltzarra egin zen Herriko Etxearen aitzinean joan den uztailaren 4an. 40 lagun bildu ziren Binta Keita 42 urteko emakumearen hilketa salatzen. Egun batzuk lehenago jendarmeez hila atzeman zuten bere etxean, Urguri auzoan. Ondoa, 85 urteko senarra ere hila zen. Jendarmeen eta justizia sailerako arduradunen arabera, senarrak bere emaztea tiroz hil zuen lehenik eta gero bere buruzak bertze egin zuen arma berarekin. Badira bi hilabete ezkondu zirela, baina beren lagunek diote haserre al-

diak zituztela maiz. Iduz, hiru haurren amazena etxetik joan nahi izan zuen eta orduan gertatu zen hilketa. Bikotea Bordelekoa eta Senegalekoa zen jatorriz. Senarrak etxea erosi zuen duela zonbait urte Urguri auzoan eta badira zonbait hilabete emakumea ere hor bizi zela. Biak ezagutzen zituztenen artean harridura eta samina ageri zen joan diren egunetan.

Talde feministek salatu dute azken sei urteetan hamabi emakume hil direla senarren



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Herriko bestak zoragarriak

Jondoni Petrikariren bestak ederki iragan dira aurten ere besta komiteko 20 lagunei esker. Bortz egunez ez da girorik falta izan pilota plaza eta elizako plaza inguruetan. Herriko bestak momentu atsegina izaten dira beti urtean zehar ikusten ez diren lagunekin solas egiteko. Aurten, ekitaldi ederrez gozatu ahal izan da Vendeta, Izarrak edo Patxi eta Konpainia taldeekin, bertzeak bertze. Biba Senpereko gazteria eta heldu den urte arte!

edo bikotekide ohien eskutik Ipar Euskal Herrian. Talde hauen ustez, «hiltzaileek emazte horiek ukatu eta hil zituzten emazteen biziaren jabe zirelakoan». Sylviane Alaux eta Colette Capdevielle Lapurdiko bi diputatu berriei galdetu diete genero indarkeriaren kontrako lege bat proposatzea eta bozkatzea Parisko Asanblada Nazionalen.

Ekitaldiak nonahi

Herriko besten ondok, Amotzekoak ospatuko dira ondoko egunetan. Uztailaren 14an, Frantziako besta nazionala eta euskal ikurrinaren lehen agerraldiaren ospakizunaz gain, gaualdi ederra izanen da Amotzen Celtas Cortos taldeak kontzertua eskainiko baitu 22:30ean. Biharamunean, toki berean Pil Pil taldeko

amikuztarrak entzuteko parada izanen da.

Bertalde, gogoratu, gau guztiz ekitaldiak badirela udan: behi lasterketak igandetan, xixtera partidak astelehenean, euskal dantza ikusgarriak asteartetan, euskal indar jokoak ortzegunetan eta pilota joko desberdinen erakustaldiak ortziraletan. Aurten ere ez da aspertzeko astirik izanen, beraz.

MONTXO ОСТАТВА
ТАВЛІКО-БЕНДА

Tutur baristak | Gajotzekak | Pastak | Meroz elkarrekin
Egunerik 09:00etatik 02:30era | Zuzenekoak 7 km bitartekoa
ANIZAN-BITAN - URZAILU | 948 599 039

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

VENTA PEIO

AISIALDIA → BASERRIKO MERKATUA

Erositako produktuekin bazkaltzeko aukera izanen da igandean Baserriko Merkatuan

Haragia erretzeko ostatua muntatuko da plazan

Joana GUERENDIAIN

Igande honetan, uztailak 15, plazan baserriko merkatua egiten da hainbat ekoizleekin: haragia, barazkia, gasna... Ordura arte deus berririk ez, baina aurtengo bestak badu berezitasun bat, erositako produktuekin bertan bazkaltzeko aukera izanen baita. Haragia erretzeko edo hazietan gauza gehiago emateko ostatu bat muntatua izanen da. Bertako produktuak ezagutzeko eta momentu goxo

baten pasatzeko aukera izanen da.

Kantuak elizan

Uztailaren 20an, ortziralarekin, Saiberri eta Goraki taldeek kontzertua emanen dute elizan. Kanta emanaldia 21:30ean hasiko da. Goraki Donibane Lohizuneko abesbatza mistoa da, 1975ean osatua, eta gaur egun, 40 kantari biltzen ditu.

Pottoken besta

Urtero bezala, pottokaren lehiaketa antolatua izan da eta behorrrak aurkeztuak izanen dira. Aurten, uztailaren 21ean eginen da, egun osoan frontoian. Animazioak ere izanen dira, baita bazkari alaitu bat ere.



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

Bolondresak eskertuak

Eskoletako ikasturtea bukatu dela eta, Herriko Etxeak urte osoan haurtzaindegira haurrei etxeko lanak egiten laguntzera joan diren bolondresak eskertu nahi izan ditu. Laguntza hau haurtzaindegiko tenoreetan ematen zen, astelehen, astearte eta ostegunetan. Aldi oro bi pertsona joaten ziren, bat frantsesa egiteko eta bertzea euskara, eta gutti goitibeheiti, hiru eskoletako 10 bat haur biltzen ziren. Herriko Etxeak zintzur bustitze on batekin eskertu ditu.



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

Eskola publikoko ikusgarria

Joan den ekainaren 23an eskola publikoko haurrek ikusgarri biziki polita eman zuten. Zirkora eraman gintuzten; lehoiak, zaldiak, akrobatik eta ahantzi gabe pailazoak, denak hor ziren publikoa animatzeko. Bukatzeko denek elkarrekin *Maite zaitut* kanta kantatu zuten gitarra eta bibolinaz lagundurik. Txalo bero bat irakasleei eramandako lanarentzat eta haurrei ere bai!

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean erre,
goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ELBETEKO POSADA

%10^{eko} DESKONTUA
kartan, 30etik
gorako gastuan

11 Ogi txantala



EZKONTZAK

Julen Baleztena Iruretagoiena eta **Natalia Goñi Madariaga**, Eratsun eta Arantzakoa, ekainaren 30ean.
Christian Hirigoien eta **Marie Dumora**, ekainaren 29an Saran.
Gaizka Maritxalar Olagarai eta **Elena Muñoa Aginaga**, Lesakakoa eta Irungoa, ekainaren 23an Lesakan.
Mikel Ibarra eta **Marina Olai-zola Bidart**, Sunbillakoa eta Urdazubikoa, ekainaren 30ean Sunbillan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Amets Olaizola Telletxea, Goizuetakoa, ekainaren 17an.
Maren Olaizola Telletxea, Goizuetakoa, ekainaren 17an.
Urko Aleman Etxenike, Gartzaingoa, ekainaren 22an.
Iban Odeau Martinez, Sarakoa, ekainaren 10ean.
Imanol Urbistondo Agerre, Sarakoa, ekainaren 17an.
Jon Dagerre, Sarakoa, ekainaren 19an.
Luka Rojo Rodriguez, Lesakakoa, ekainaren 27an.
Erik Igoa Ansalas, Etxalarkoa, ekainaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Yvonne Labeque, Sarakoa, ekainaren 20an, 92 urte.
Marceline Andrée Lasaga, Sarakoa, ekainaren 21 ean, 65 urte.
Jose Otermin Saralegi, Aresokoa, ekainaren 21ean, 83 urte.
Luis Jimenez Elizalde, Amaiurkoa, ekainaren 22an, 76 urte.
Julian Jesus Ansalas Olandegi, Zugarramurdikoa, ekainaren 22an, 83 urte.
Florentino Sein Apeztegia, Arantzakoa, ekainaren 25ean, 69 urte.
Virginia Erlanz Saldias, Doneztebekoa, ekainaren 25ean, 100 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
 MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
 948581959 | 948637404

LEHUNGERRI | BERA (SAN JOSE) | LESANA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETTZA | BETEJUI
 DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUNA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
 - LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

HERRI KIROLAK → SEGA

Euskal Herriko Sega Txapelketako finala jokatu da igandean Leitzan

Jon Kanflanka
leitzarra
finalean
izanen da

tzan jokatu den Euskal Herriko Sega Txapelketako finalean ariko direnak. 12:00etan hasiko da saioa.

KANPORAKETAK ERRATZUN

TTIPI-TTAPA

Jon Kanflanka (Leizta, 31 urte), Mikel Alkorta (Donostia, Gipuzkoa; 41 urte), Juanjoxe Lizaso (Asteasu, Gipuzkoa; 51 urte) eta Jexuxmari Ormaetxea *Urki* (Orendain, Gipuzkoa; 36 urte). Lau segalari horiek izanen dira igande honetan, uztailak 15, Leiz-

Segalari hauek ekainaren 30ean Erratzuko Iñarbil auzoan jokatuako kanporaketetan lortu zuten finalerako txartela. Zazpi segalari aritu ziren lanean, eta bakoitza 30 minutuz aritu zen ahalik eta belar-kilo gehien ebakitzeko helburuarekin, txakun-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Jon Kanflanka leitzarrek Erratzun jokatuako kanporaketetan lortu zuen finalerako txartela. Finala herrian jokatu du igande honetan.

tasuna aintzat hartuta.

Lehen kanporaketan, Mikel Alkorta nagusitu zen, eta Jon Kanflanka bigarren izan zen. Gari Etxeberria (Amasa-Villabona, Gipuzkoa; 29 urte) hirugarren sailkatu zen. Bigarren kanporaketan lau segalari aritu ziren: Juan Joxe Lizaso izan zen bizkorrena eta

Jexuxmari Ormaetxea bigarren. Angel Maguregi (Artzentales, Bizkaia; 59 urte) eta Jon Intxaurre (Zeanuri, Bizkaia; 36 urte) izan ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren.

Sailkapen nagusian, Mikel Alkortak 1.537,5 belar-kilo ebaki zituen; Lizasok 1.482 belar-kilo,

Ormaetxeak 1.471,5 kilo eta Kanflankak 1.307 kilo. Horiek izanen dira igandean lehen ariko direnak. Gainerakoan, Maguregik 1.279 belar-kilo ebaki zituen Erratzun, Intxaurrek 1.196 kilo eta Etxeberriak 1.097 kilo. Azken hiru hauek finaletik kanpo gelditu dira.

SKEET OLINPIKOA → IAZ ERE TXAPELDUN

Nafarroako txapelketa eta Espainiako kopa irabazi ditu Itsaso Fagoaga lesakarrak

Europako txapelketan, aldiz, ez du ongi asmatu

mailara hurbildu zen, garaipena lortuz. Valentziako txapelketan bero handia egin zuen eta ondorioz, ez ziren marka handiegia egin. Txapelketa 75 platerera izan zen (25 platereko 3 serie) eta Itsaso Fagoagak 64 puskatu zituen, bere marka onenetik urruti.

Uztailaren 1ean, bertalde, Nafarroako Txapelketako bigarren zatia jokatu zuen eta Antonio Jabier Fagoaga aitaizan zuen aurkari nagusia. Antonio Jabier aitak lehen saiotik zeukan lau platereko abantailari buelta eman eta bigarren aldiz

Nafarroako Skeet Olinpiko txapelketa irabaztea lortu zuen Itsaso alabak Baldorban.

Haize handia ibili zen Baldorban eta tiralari gehienek normalean baino emaitza kaxkarragoak lortu zituzten bitartean, Itsasok bere mailan tiratzea lortu zuen. Azkenean, Itsaso izan zen Nafarroako txapelkun eta Antonio Jabier azpitxapelkun. Itsasok 50 plateretik 42 hautsi zituen txapelketaren bigarren fase honetan.

Espainiako Skeet Olinpiko Txapelketa, berri- berri, sanferminetan egi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako Skeet Olinpiko kopa Valentzian irabazi du Itsaso Fagoagak.

tekoa zen, baina urriragibeleratu dute.

Bertze aldetik, Itsaso Fagoaga eta Xagu bere zakurra hirugarren gelditu ziren Nafarroako bar-surde arrastoko txapel-

ketan eta horrek, uztailaren 14an Kantabrian jokatu den Espainiako txapelketan parte hartzeko eskubidea eman dio lesakar gazteari eta «ikasteko gogoz» doa.

TTIPI-TTAPA

Fin dabil Itsaso Fagoaga lesakarra Skeet Olinpikoan. Alde batetik, Espainiako Kopa irabaztea lortu du aurten ere eta horrez gain, Nafarroako Txapelketa ere irabazi du bigarren aldiz. Duela aste batzuk Europako txapelketan ez zuen ongi tiratu, baina Valentzian, Espainiako lehen, berri- berri ere bere

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO FEDERAZIOA

Iparraldeko Joko Torneoko hiru txapel eskualdeko kirolarientzako izan dira

Etxegarai txokorretan, Urrutia harriarekin eta Sein lastoarekin nagusitu dira

TTIPI-TTAPA

Iparraldeko Joko Torneoaren hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zen Burgin uztailaren 1ean, aitzinetik Iruñean eta Uhartan egin ondotik.

Txokor biltzen, hiru jardunaldi jokatu dira, baina puntuatzerakoan, bi denborarik onenak hartu dira kontuan. Horren arabera, Fernando Etxegarai beratarak irabazi du, Patxi Iratzoki igan-



ARGAZKIAK: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Etxegarai, Urrutia eta Sein Iparraldeko Joko Torneoa, ezkerretik eskuinera.

tziarra bigarren izan da eta Iñaki Telletxea elizondarra hirugarren. Eskualdeko gainerakoen artean, Andoni Lasaga etxalartarra seigarren izan da.

Lehen borts sailkatuak uztailaren 28an Elizondon jokatu den Nafarroako Txokor Biltze Txapelketan ariko dira. Harri-jasotzen, lehen bi

jardunaldietako altxaldiak hartu dira kontuan, eta Josetxo Urrutia leitzarrak irabazi du. Xabier Ariztegi etxalartarra izan da bigarren.

Lasto altxatzen, igantziarren arteko lehia izan da. Hiru jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz eta Karlos Sein nagusitu da. Arkaitz Retegegi eta Eneko Telletxea sailkatu diren bere ondorenik, hurrenez hurren.

Txingekin hiru jardunaldi jokatu dira baina puntuatzerakoan bi markarik onenak hartu dira kontuan. Eskualdeko ordezkari bakarra Josetxo Urrutia izan da eta honek Burgiko jardunaldian behintzat ez zuen parte hartu. Sailkapenean laugarren izan da leitzarra.

Zaku lasterketan ez da eskualdekorik izan eta ingude altxatze txapelketa ez da egin, kirolari faltagatik.

PILOTA → LESIO LARRIAK PASATU DITU

Hamargarrena Aimar Olaizolarentzat

Buruz Buruko hirugarren txapela jantzi du goizuetarrak

TTIPI-TTAPA | GOIZUETA

1998an debutatu zuen 18 urteko gazteak bere hamargarren txapela jantzi du 32 urterekin. Aimar Olaizola goizuetarrak historia egiten segitzen du eta Buruz Buruko txapela

hirugarren aldiz irabazi zuen ekainaren 24an Biliboko frontoian. Faberito argirik gabeko finala zen, teoriarik, Olaizola II.a eta Juan Martinez de Irujo iberoarraren arteko Buruz Buruko Txapelketakoa, baina partida, azkenean, ez zen lehiatua izan, Olaizolak erraz jantzi baitzuen txapela, 22-7 irabazita.

Irujok hasieran baino ez zion egin aurre Aimarri; goizuetarrak le-



ARGAZKIA: ROSA OLAIZOLA

Profesionalak hamar txapel irabazi ditu dagoeneko Aimar Olaizolak. Urte horietan guztietan, Asier anaia izan du botillero.

henbiziko lau tantoak egin bazituen ere, 5-7 jarri zen irabazten Iberoakoa. Handik aritzinera erabat nagusitu zen Olaizola. Partida bikaina jokatu zuen goizuetarrak, ezker paretan bilatuz eta joko azkarra

eginez. Nabarmenezkoa, gainera, lesioak izan dituela tartean eta ederki errekuiperatu dela. Belaunean lesio larria izan zuen duela bi urte eta besoko minez ere ibili da txapelketa honetan.

Buruz Buruko hirugarren hau bere hamargarren txapel du: banaka hiru (2005, 2007 eta 2012), binaka bertze bi (2008 eta 2011) eta lau t'erdian borts (2002, 2004, 2005, 2008 eta 2011) irabaziak baititu.

LASTERKETA → ERREKA ELKARTEAK ANTOLATUTA

204 korrikalari Doneztebeko XXXIV. krosan

Antonio Etxeberria nagusitu da gizonetan eta Maika Ariztegi emakumeetan

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

204 korrikalarik parte hartu zuten Doneztebe -ko Erreka elkarteak 34. urtez antolatutako herri lasterketan.

Maila bereziko 50 haur izan ziren lasterketa egiten lehenak. Gero, aurrebenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutikoen txanda izan zen. Hauen ondotik hasi zen proba nagusia.

Gizonezkoen senior kategorian, Antonio Etxeberria nagusitu zen, aitzoneko bi aldietan eta 2004an ere garaile izan zena. Alberto Revuelta gipuzkoarra bigarren izan zen eta Beste Iruñako Daniel Sanz hirugarren.

Emakumeetan, Maika Ariztegi iturendarrak irabazi zuen. Nekane Mendendez izan zen bigarren eta Maria Telletxea doneztebarra hirugarren.

Herriko korrikalarien artean, gizonezkoetan bertze behin, Xanti San Migelek irabazi zuen lehenbiziko doneztebarrendako zegoen saria. Herritarren podiuma Xabier Telletxea eta Fermin Oteizak osatu zuten eta



ARGAZKIAK: ERREKA

Gizonezkoen eta emakumezkoen podiumak.

emakumezkoetan, Maria Telletxeak jaso zuen ardo-lotea eta bere gibelatik, Miren Juanotena eta Leire Uterga helmugaratu ziren.

GAINERAKO SAILKAPENAK

- **Aurrebenjamin** neskek: lehen Saioa San Migel, bigarren Irai Arruiz eta hirugarren Naroa Itoiz. Mutikoetan; lehen Aitor Agesta, bigarren Marba Bengoetxea eta hirugarren Ekaitz San Martin.
- **Benjamin** neskek: le-

hena Marina Zabala, bigarren Anne Etxarte eta hirugarren Maialen Lizasoain. Mutikoetan: lehen Yera Galan, gero Asier Ayape eta hirugarren Xabier Apezetxea.

- **Alebin** neskek: Andrea Zabala nagusi, bigarren Izaro Aldabe eta Irati Oiaratzabal hirugarren. Mutiletan: Unai San Migel lehenbizi, bigarren Joseba Bengoetxea eta Aimar Jabalera hirugarren.
- **Infantil** neskek: lehen Alaitz Leache, biga-

ren Alaia Iribarren eta hirugarren Naxara Jaunsaras. Mutikoetan: Karlos Ostiz, Iñaki Maylin eta Oier Berasategi, hurrenez hurren.

- **Kadete** mutikoak: Eneko Herrera lehen, gero Julen Retegi eta ondotik, Andoni Lazkanotegi.

- **Jubenil** mutikoetan Iñaki San Migel lehen.

- **Beteranoetan** lehen Martin Orradre izan zen, bigarrena Oscar Ayape eta hirugarren Fernando Leache.

PILOTA → LESIO LARRIAK PASATU DITU

Bigarren mailako buruz burukoa ere irabazi du Jon Jaunarena leitzarrak

Bigarren mailako bere bigarren txapela jantzi du

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Duela bi hilabete inguru, bigarren mailako eskuz binakakoa Ceciliairekin irabazi ondotik, buruz burukoan ere nagusitza lortu du Jon Jaunarena leitzarrak, denboraldi bikaina borobilduz. Ekainaren 30ean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako final lehian 22-16 irabazi zion

Joseba Ezkurdiari. Jaunarenak Abel Barriola herritarra izan zuen botilero.

Partidaren lehenbiziko zatia oso parekatua izan zen, nahiz eta leitzarra 7-2 irabazten jarri. 7-6kora hurbildu zen Arbizukoa, baina berriz ere 10-6 aurreratu zen Jaunarena. Baina 0-5eko partzialarekin markagailuan aurretik jarri zen Ezkurdia. Hamaikana, hamabina, hamahiru eta hamalaua berdindu ondotik, nekea somatzen hasi zen Jaunarena eta bazirudien Arbizura-



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

Jon Jaunarena leitzarra txapela soinean, Ezkurdia ondoan duela.

ko bidea hartuko zuela txapelak. Baina ongi erre-

kuperatu zuen leitzarrak eta irabazten jarri zen.

Azkenean, txapela Leitzara ekarri zuen.

uztailak 12-uztailak 25

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kontzertuak**

SENPERE | 2012.07.14

Celtas Cortos taldearen emanaldia Amotzeko bestetan


Amotzeko besten barrenean hainbat emanaldi izanen dira, tartean Celtas Cortos taldeak kontzertua eskainiko du plazan larunbatean 22:30etik goiti.

Ikuskizunak

AMAIUR | 2012.07.21

«Amaiur 2012: Haien ametsa, gurea da»

Pier Paul Berzaitzen zuzendari -tzapean ikuskizun artistiko musikala eskainiko da 21:00etan. 20:00etan desfilea hasiko da eta goizez gaztelura bisita gidatuak.

Erakusketak

URDAZUBI | 2012.12.31 arte

Margoak eta eskulturak monastegiko kalostrepean

Euskal Herriko margolari eta eskulturgileen lanak ikusgai daude monastegiko kalostrepean. Udan egunero zabalik izanen da erakusketa.

ekoizleren produktuekin. Bertan bazkaltzeko aukera ere izanen da.

Ikastaroak

ELIZONDO

Thailandiako masaje ikastaroa

Uztailaren 4tik 16ra eginen da Thaiandiako masaje ikastaroa. Fresno eta Eguzkilore elkarteek antolatua.

Uztailaren 9an eta 16an aromaterapia eta haurrendako masajea. **Uztailaren 10ean** bikoteendako masajea.

BAZTAN

UEU 40. Udako ikastaroak

Uztailaren 17an Nafarroaren konkista berrikusten ikastaroa eskainiko da. 10:00-11:30 *Nafarroaren konkista eta gaztelar anexioa (1512-1515)* Roldan Jimenoren eskutik. 12:00-13:30 *Berreskuratze saioretatik Amaiurko gudura (1516-1521)* Joseba Asironen eskutik, Arizkunenean. 16:00-16:30 *Amaiurko gazteluaren indusketen azken emaitzak* Juan-txo Agirre Mauleonen eskutik Amaiurko Otsondo elkartearen. 16:30etik 17:30era, Amaiurko gazteluari bisita.

Ospakizunak

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra ekitaldiz gainezka

Uztailaren 21 eta 22an hainbat ekitaldi antolatu dira Baztandarren Biltzarren karreretara.

SARA

Pottokaren besta

Uztailaren 21ean pottoka lehiaketa eta animazioak egun osoan frontoian.

Erakusketak

ELIZONDO

Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa

Uztailaren 13tik 31ra Juan Carlos Olaetxearen margo erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenean.

Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketa

Uztailaren 6tik 19ra Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa izanen da Arizkunenean, 18:00etatik 20:00etara.

Tomas Sobrinorekin paisaia entzuten

Uztailaren 23tik irailaren 2ra Tomas Sobrinoren *Paisaia entzun* margo erakusketa ikusgai Arizkunenean 1. solairuan.

SENPERE

Xabi Oteroren 'Oihan hegalean' Larraldean

Uztailaren 6tik 29ra Xabi Oteroren *Oihan hegalean* 40 urteko argazki eta diseinu erakusketa ikusgai izanen da Larraldean, ortziral, larunbat eta igandetan, 16:00etatik 20:00etara.

ZUGARRAMURDI

Agurtzane Anduetzaren 'Nabarra' Museoan

Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra Agurtzane Anduetzaren *Nabarra* erakusketa eta haurrendako modelatze tailerrak izanen dira Sorginen Museoan.

URDAZUBI

Monastegiko kalostrepean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monastegiko kalostrepean *Euskal Herriko margo-*

gintzaren 50 urteak erakusketa. Udan, egunero zabalik 11:00etatik 20:00etara.

Kontzertuak

ARANTZA

Musika kubatarra Aterpen

Uztailaren 13an La Jodedera musika kubatarra Aterpen, 23:00etatik aitzinera.

SENPERE

Celtas Cortos taldea Amotzeko plazan

Uztailaren 14an Cel-

tas Cortos taldeak kontzertua eskainiko du Amotzeko plazan, 22:30etik aitzinera.

SARA

Saiberri eta Goraki taldeen kontzertua

Uztailaren 20an kontzertua emanen dute elizan Saiberri eta Goraki taldeek, 21:30ean.

Azokak

SARA

Baserriko merkatua

Uztailaren 15ean eginen da plazan, hainbat

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra uztailaren 21 eta 22an

Egun handia igandea izanen bada ere, bezperatik ostaturako ere izanen da. Egun handian, beti bezala orga apainduen desfile ikusgarria, eskulangileen erakusketa, Mutildantzak, bazkaria Merkatuzelaian, ondok jaialdia eta ilunabarrean Trikidantz eta Laiotz taldeekin dantzaldia edo Tirri&Tery DJak izanen dira.



Bestak

ARANO

Santiago bestak

Uztailaren 25etik 29ra
Santiago bestak. Aurreko asteburuan ere badira ekitaldiak. Xehetasunak 38. orrian.

ELIZONDO

Santiago bestak

Uztailaren 24tik 29ra
Santiago bestak. Xehetasunak 14. orrian.

ELGORRIAGA

Santiago bestak

Uztailaren 25etik 29ra
Santiago bestak. Xehetasunak 13. orrian.

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 13tik 16ra
herriko bestak. Xehetasunak 12. orrian.

GOIZUETA

Karmen Eguna

Uztailaren 15ean ospatuko da. Xehetasunak 39. orrian.

ARANTZA

Ballekasko bestak

Uztailaren 21ean ospatuko dira. Xehetasunak 27. orrian.

Zinema

BAZTAN

Udako zinema

Uztailaren 16an Lekarozko frontoian *Hiru mosketariak* filma ikusgai 22:00etan.

Uztailaren 23an

Arraiozko frontoian *Totoro auzokidea* filma ikusgai 22:00etan. Baztango Kultur Batzordeak antolatutako Udako zinea programazioa, 2012ko Arte eta Kultura egitarauaren barnean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Piraten olinpiadak
Txirlabeltzaren uhartean


MITXEL MURUA

JULEN TOKERO

Elkar, 2012

Aurki izango dira Munduko Piraten Olinpiadak, jakinarazi dio Patakon kapitainak bere tripulazioari. Txirlabeltzaren Uhartean jokatuko dira beti bezala, eta mundu osoko piratek hartuko dute parte. Patxijaik, baina, bertzelako ideiak ditu batzuetan, eta berak Olinpiadetan ez duela parte hartuko erraten du; lehiaketan berak irabazteko, ez du bertze guztiek galtzea nahi. Azkenean, Marimototsek erranen du zer egin: ez dira Olinpiadetara lehiatzera joanen, ongi pasatzera baizik. Pirritx, Porrotx, Marimotots eta hauen lagunak abenturak biltzen dituen bildumako azken alea aurkeztu du Katxi-porretak Elkar argitaletxearen bidez. Beti bezala, Mitxel Muruar zarauztarraren ipuinari, Julen Tokero ilustratzaileak paratu dizkio irudi alai eta koloretsuak, 6 urtetik goitikoentzat zuzendutako liburu honetan.

Musika




Surfusion

LOS GALERNA

Mauka Musikagintza,
2012

2008an Arrasateko The 5 Twisters, Foxy Boxxi, Lost Souls eta bertze musika talde batzuetan ibilitako zenbait musikaririk Los Galerna sortu zuten. Hasieran The Ventures, The Shadows eta antzeko klasikoen tamainako surf-rocka egiten zuten; eta kanta propioekin taldearen izen bereko disko txukuna karrikaratu zuten. Baina Los Galernaren helburua haratago zihoan; musika instrumentala egin arren, ahots gabe aunitz espresatu daitekeela eta, bide batez, surfaren alderdi apurtzaileen erakutsi nahi zuten. Oraingoan, taldekide bakoitzak daukan musika ibilbidea azaleratu du; eskarmentu handia hartu dute, eta orain arteko formazioari saxoa eta armonika gehitu dizkiote. Horren emaitza *Surfusion* diskoa da. Izenburuak laburbiltzen duen bezala, arrasatearrak gai izan dira surfari ukitu ganberroagoa emateko, estilo bertuosismotik parametro rockeroagoetara eramateko eta surfaren mantopean bertze hainbat estilori lekua egiteko.

Internet



Baztango bitxikeriak
eta istorioak

BAZTANGOHAIZEGOA.

WORDPRESS.COM

Baztango bitxikeri histerikoak... baita istorio, historikoak ere!!!. Halaxe aurkezten du Pello San Millanek Baztango Haizegoa bloga, Baztango istorioen eta kontu zaharren blog interesgarria. Elizondon sortu eta azken 10 urteetan Arizkunen bizi den San Millanek Baztanez eta baztandarrez ja ez zekiela-eta, «gure historia txikia, folklorea, kondairak, ipuinak, eta bitxikeriak» ezagutzeko asmoarekin hasi zen lanean, «eta ia horretan patu naizela, haizegoaren bidez lau haizetara zabaldu nahi ditut». Ederki hornitutako eta eguneratutako webgunea proposatzen du, hasierako orriko azken berri eta bitxikeriekin, *Agendarekin*, *Baztan argazkitan* saileko irudi zoragarriekin, *Bideoak* atalarekin (berezi zirrargarria Hertzainak-en *Aitormena* soinu-banda duela, 1913ko uholdeko argazkiekin osatutako bideoa) eta *Efemerideak* saila. Lan bikaina.

Nire aukera



Natalia REKARTE
Doneztebeko Kukuka dendakoa

«Banituen bortz urte liburu bat akitu gabe eta oporretan lortu dut azkenean»

Doneztebeko Kukuka dendakoa

Dendako eta Doneztebarrak elkarteko lanek uzten dioten denbora pixarra 5 eta 4 urteko alabekin ematen duela aipatu digu Natalia Rekarte donamariarrak. «Hori bai, egunero kafetxo bat hartzeko eta sudokua egiteko astia hartzen dut», dio. Mendian ibiltzea ere gustatzen zaio, «lehen federatuta ere nengoen eta Pirinioetan barna ibiltzen nintzen». Orain guttixeago ibiltzen bada ere, inguruko mendietara joatea gustatzen zaio. Ekainean oporretarako aste bat hartzen du familiarekin eta «Mediterraneo aldera joaten gara, eguraldi ona segurtatzeko». Abuztuan, berriz, hemen inguruan gelditzen dira: «Politeña hau da!». Australia edo Pekin ezagutzeko gustatuko litzaiok, baina «badakit ez dudala inoiz joan behar! Hurbilago ere konformatuko nintzen!», erran digu. Irakurtzeko zaletasuna bada, baina bazituen 5 urte liburu bat akitu gabe: «Aurten oporretan lortu dut *La casa de los amores imposibles* nobela leitzea eta gustora!».

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONOZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztatua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ELIZONDO. Maurizio Berekoetxean (eliza gibelan) pisua salgai. 2 logela eta bainugela, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Aparkatzeko plaza eta trastelekua. Igo-gailua aparkalekutik saibairaino. ☎628 544929.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXALAR. Promotorea-rengandik zuzenean estreinatu gabeko etxebizitzak salgai. Bi solairutako etxebizitzak, garajea eta kanpora ematen duen lorategiarekin. Prezio berriak. ☎629 443405.

IGANTZI. 70m²ko pisu berria salgai, 2 logela, egongela-sukaldea, bainugela, kalefakzioa, trastelekua eta marra garajea. Iksuegi ederrak eta oso lasaia. 162.000 euro. Errentarako ere aukera 400 eurotan. ☎670 218613.

IRUÑEA. Ospitale eta unibertsitate inguruan pisua salgai. Zaharberritu-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tako eraikinean. Berogailua eta igogailuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Prezioa: 120.000 euro negoziagarriak. ☎669 877943.

DONEZTEBE. Pisua salgai, egoera onean. Berogailuarekin eta trastelekuarekin. 85.000 eurotan, abudo erosteko. ☎607 978656.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LESAKA. Apartamentua errentan emateko irailetik ekainera. ☎948 637862 / 678 855056.

IRUÑEA. UPNAtik hurbil pisua errentan emateko. Lau lagun sartzen dira (3 logela). Mobleztatua, berokuntza zentrala, bizitzera sartzeko prest. ☎669 260192.

LEGASA. Pisua errentan

emateko, berritua eta mobleztatua. ☎677 089046.

IRUÑEA. San Fermin kalean, Zaragoza etorbidearekin eskina eginez, pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna dutzarekin, trastelekua, igogailua, berogailua eta argitsua. ☎680 638994.

IRUÑEA. Ikasleentzako pisu egokia errentan emateko, bi unibertsitateen artean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Argitsua eta zaratara gutxiarekin. Prezio interesgarria. ☎650 803955.



LESAKA. Logelak errentan emateko irailetik ekainera, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862/678 855056.

DONEZTEBE. 96m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Dena kanpo aldera. ☎699 798207.

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

IRUÑEA. 2 neska behar dira pisua osatzeko Arro-sadian. 200 euro (berogailua barne). Anima zaitetz! ☎620 747213.




LURRAK-ORUBEAK
salgai

BERA. Bi bizitzako etxe bat egiteko lur eremua salgai, herriaren ondoan. Urbanizatua. ☎677 592133.

LURRAK-ORUBEAK
errentan hartu

BAZTANEN EDO MALLERREKAN baserria lurra-ekin errentan hartu nahi da. ☎948 453301.

GARAJEAK-LOKALAK
salgai

ETXALAR. Harategia traspasatzen da. Edo gainontzean, hango tresneriak salgai (kamara, bitrina, pisua...). Gutti erabiliak eta egoera onean. ☎661 345637 / 687 863527.

GARAJEAK-LOKALAK
errentan emateko

LESAKA. Haizegua osatua errentan emateko,

BASERRIA DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA 	BEHIKIA 	
Zerrikumea (19 kilo): 41,00 € (=)	Aretze gizenak:	Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Zerri gizena 1,380 € kiloan. (=)	Idixkoak: €/kg. Kanal	Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Zerramak: 0,590€ Kg/bizirik. (=)	Extra 4,13 (=)	Aretze mestizoak: urruak 100,00 (=) idixkoak 210,00 (=)
	1.koa 3,83 (=)	Aretze nabarrak: urruak 110,00 (=) idixkoak 130,00 (=)
	2.koa 3,62 (=)	Zaldikoak: €/k Sortuberriak: 2,94/3,04 Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
	Urruak: €/kg. Kanal	Bildotsak: €/k 6-8 kilokoak: 7,00/7,10 8-10 kilokoak: 5,40/5,80
	Extra 4,19 (=)	
	1.koa 3,91 (=)	
	2.koa 3,84 (=)	

abuztuan lanean haste-ko prest. ☎677 594893.

LESKA. Albistur karrikan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

LANA eskariak

Zonaldeko (Etxalar) mutil batek **informatika ikastaroak** emanen lituzke, taldeka edo etxez etxe. Deitu konpromisorik gabe. ☎661 155056/ info@monoko.net.

Magisteritza eta pedagogia ikasketak dituen neska gazte batek udan **klase partikularrak** emanen lituzke. ☎630 741027.

Informatikan ingeniaria den mutil gazte bat lan bila dabil. Hizkuntzetan abila: euskara eta gaztelania ama-hizkuntza, ingelesa erdi mailakoa eta frantsesa eta alemana oinarrizko maila. ☎677 241571.

Neska gazte euskalduna euskara eta frantseko klaseak emateko prest dago, baita bertze klase partikularrak ere. ☎661 772065.

Emakume euskaldun bat edozein lanetan ariko litzateke: ostalaritzan, jende helduekin (emakumezkoekin ala gizonezkoekin), etxeak garbitzen... ☎664 545925.

Berako mutil bat sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetan ariko litzateke, esperientzia handiarekin. ☎657 409499.

Neska gazte euskalduna haurrak zainduko lituzke, ordutegi zabala. ☎661 772065.

Emakume euskaldun bat etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen ariko litzateke Lesakan. ☎948 637182.

Edozein **herritako jaieran tabernan** lan eginen nukeen neska bat naiz, 10 urte baino gehiagoko esperientziarekin. ☎620 747213.

Neska gazte euskaldu-

na haurrak zaintzen, etxeak garbitzen edo bertze edozein lanetan ariko litzateke uztaila eta abuztuan. ☎669 102860.

Esperientzia handiko Arantzako **igeltsero bat** eraikuntzarekin zerikusia duten lanak egiteko prest dago: erreformak, bainugelak, sukaldeak, etxebizitzak... ☎686 348355.

Emakume euskalduna prest dago lanean aritzeko Doneztebe inguruan, etxeetan orduka edo haurrak zaintzen. ☎699 798207.

Neska bat **ile-apaindegian** lanean aritzeko prest. ☎626 075373.

LANA eskaintzak

BERA. Jatetxe batean bazkalorduan esperientzia duten sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎948 631658.

Doneztebeko **janaridenda batean** bi hilabetez lanean aritzeko lagun bat behar da. Kutxan esperientzia bada hobe. ☎606 320038.

Asteburuetan **umeak zaintzen laguntzeko** neska bat behar da Azpeitian, gidabaimena duena. Luzera begira, astean zehar lan egiteko izanen litzateke, interna moduan. ☎615 749645.

ANIMALIAK oparitu

IGANTZI. Zakurkumeak oparitzeko, setter/spaniel arrazakoak (tamaina ttikikoak), 2 hilabete (arra eta emea). ☎678 024636.



Zakurkumeak oparitzeko, ama arratoi arrazakoa (tamainaz ttikia) eta oso politak. ☎629 417078.

LEITZA. 2 ardi zakurkume oparitzeko. Arrak eta 45 egun dituzte. ☎948 510224.

ANIMALIAK salgai

Bi ahari salgai, pintarriak. 15 hilabeteak. ☎618 962794.


Sabueso arrazako **zakurkume** emea salgai. 2 hilabeteak. 50 eurotan. ☎686 635304.



Border collie arrazako **zakurkumeak** salgai. Atta eta ama hagitz onak. ☎661 767027.

MOTORRAK salgai

Piaggio NRG2 scooter rra salgai, 50cc-koa. Egoera arras onean eta prezio negoziagarrian. ☎948 452119.



Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005ekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. 7.000 euro. ☎628572273.

Citroen Berlingo salgai. Egoera onean. 220.000 kilometro. ☎661 767027.

DENETARIK salerosketak

DONEZTEBE. 12 aulki rustiko salgai. Torneatuak. Gaztain zurarekin eginak. Telletxea altzari-dendan ikusgai, nahiz eta partikularrik izan. ☎646 799828.



ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Bigarren eskuko trikixa bere kaxarekin, gutti erabilia, salgai. ☎688 641354 (deitu 18:00etatik aitzinera).

Belar bola idorrak salgai. ☎660 393436.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / 699 461394.

Pareta egiteko harria

uztailako zk. saritua
8.071

Zonaldeko produktuekin osatutako lotea

Sarmak hilaren 31 baino lehen deitu behar du: Bortuzteko Hiru Hondakinen Mankomunitatea

948 63 52 54

salgai. 1.500 kiloko zakuetan pilatuak. ☎627 735113.

DENETARIK galdu-aurkituak

Argazki-kamara galdu da ekainaren 30ean Sunbillan, Marina eta Ibarra-aren ezkontzan, ustez, elizaren inguruan. Norbaitek aurkitzen badu deitu faporez. ☎699 635765.

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

Udal Kiroldegia

Partidua 1 % Tokiko DESKONTUA MATRIKULAN
2 partidua: 1.000€ MATRIKULA DOAN
2.000€ HILABETE BAT DOAN (ORDUTIAK 31 499€)

urtebetetzeak

Argazki soilak: **4€**; bikoitza: **8€**


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez




Elko, Nevadako **MITCHELL OWSLEY** Igoak 14 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Musu haundi bat.



MADDI LASARTE BARREDO Berako gure sorgintxo tiki honek lehen urtea beteko du uztailaren 17an. Zorionak familia, atata eta amaren partetik.



Lesakako **XIKER SEIN ARDANZA** gure xetel tikiak urtetxo bat bete du uztailaren 6an. Musu potoloena Berako familia eta aitako eta amaren partetik.




Berako **GEXAN SAN JUAN AROZENA** gure pottokok 3 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak eta 3 mugu haundi familiaren partetik.




Berako **AIALA SAN JUAN AROZENA** etxeko pinpirinak 6 urte beteko ditu abuztuaren 12an. Zorionak eta 6 mugu familia guztiaren partetik.



Urdazubiko **LEIANE** eta **OLAIA REMENTEGI ARIZTIK** ekainaren 11 eta 15ean 3 eta 5 urte bete dituzte eta **KAIET OTHEGUY REMENTEGI** ekainaren 27an 3 urte bete ditu. Zorionak gure bihurritxoiei eta 3 mugu pottolo-pottolo zuen familiaren partetik.



OIHAN LARRASOAIN URROZ, Urrozko txikitoak uztailaren 2an 2 urte bete ditu. Zorionak Iruñeko eta Urrozko familiaren partetik. Zuri gustatzen zaizun txokolatetzko bizkotxoarekin itzaliko ditugu kandelak. Musu potolo bat.



OIHAN LARRASOAIN URROZ gure bitxikitoak 2 urte bete ditu uztailaren 2an. Zorionak ama eta aitaren partetik. Berendu eder batekin ospatuko dugu. Musu potolo!



Sunbillako **IBAI PETIRENA GOROSTERRAZ** gure lehengusuak 2 urte beteko ditu abuztuaren 9an. Auniz urtez atautxi-amatxi, osaba-izebak eta Iraide eta Garaine lehengusinen partetik. Ongi gidatu autobusa eta ea noraino ailegatzen garen. Musu potolok!



IRENE ZELAIETA Sunbillako sukaldariak 30 urte beteko ditu uztailaren 12an. Auniz urtez eta zorionak ataren partetik. Agur.



LARRAITZ DOKOUTO SANTESTEBAN etxalartarrak urtea bete du uztailaren 6an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Arantzako **IRATI AZPIROZ ERRANDONEA** 7 urte beteko ditu uztailaren 7an. Zorionak eta ongi pasa zure aita, ama eta Beñat anaiaren partetik. 7 mugu eder eta segi orain bezala dantzan ikasten, preziosa. Ongi pasa oporrak.




Sunbillako **ENERITZ ITURRALDE EZKURRAK** 3 urte bete ditu uztailaren 10ean. Zorionak eta ongi pasa zure atautxi-amatxi, izeba-osaba, lehengusuak eta batez ere zure aita-amaren partetik. Musu haundi bat moxorkilo.



Sunbillako **MAREN IRIGOIEN ARRETXEAK** 2 urte beteko ditu uztailaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki Egoiren partetik. Muxux moñoña...




Lakuntzako **AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 3 urte beteko ditu uztailaren 27an. Musu pila-pila bat familia guztiaren partetik.



Zubietako **ENDIKA** eta **KARMELE SANTESTEBAN BENDIROK** uztailaren urteak beteko dituzte. **ENDIKAK** uztailaren 1ean 6 urte eta **KARMELEK** uztailaren 13an 13 urte. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki musu haundi bat Julenen partetik.



Zorionak **MIKEL** eta **MARINARI** Sunbillako gazteen eta bi familiaren partetik. Musu haundi bana eta zoriontsuak izan!



Legasako **NAHIA MARIÑELARENA ELIZALDEK** uztailaren 25ean urtea beteko du. Zorionak txikitina eta musu haundi bat aitako, amatxo eta berexiki Zubietako eta Uruguako atautxi-amaxien partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK** uztailaren 23an 7 urte beteko ditu. Zorionak gure indartsu tikiari eta muxuak aitaxi-amaxiren partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK** uztailaren 23an 7 urte beteko ditu. Zorionak, musu eta auniz urtez Arzallus eta Toñiren partetik. Noiz jango dugu kroketa...?



Sunbillako **IBAI PETIRENA GOROSTERRAZ** 2 urte beteko ditu abuztuaren 9an eta egun berexia izanen da bientzat. Auniz urtez eta paaaaaa potolo bat amatoren partetik. Hori berendu goxoa egin behar dugun egun horretan...

ttipi txartela harpidetza bano merkeagoa da

ttipi-ttapa aldirikara doan + 42 denetara deskontuak hamabostero zozketa zugarriak

40euro - 10euro = 30euro

325eko denetara zozketa zugarria

TTIPi-TTAPiaren urteko bustia 10 euro baino gutxiagoa da. TTIPi-TXARTELA bakoitzeko 32 denetara zozketa zugarriak dituzte. Zozketak Abuztuaren 15 aurreratu egunera.

AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK: Lakuntza / Lakuntza / Lakuntza / Lakuntza / Lakuntza
ARIZALDEK: Legasako / Legasako / Legasako / Legasako / Legasako
BENDIROK: Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako
BENDOIROK: Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako
ELIZALDEK: Legasako / Legasako / Legasako / Legasako / Legasako
ETXEBERRIA: Iruñeko / Iruñeko / Iruñeko / Iruñeko / Iruñeko
GOROSTERRAZ: Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako
IRIGOIEN: Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako
ITURRALDE: Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako
MARIÑELARENA: Legasako / Legasako / Legasako / Legasako / Legasako
MARINARI: Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako
MIKEL: Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako
OTHEGUY: Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko
PETIRENA: Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako
REMENTEGI: Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko
SANTESTEBAN: Lesakako / Lesakako / Lesakako / Lesakako / Lesakako
SAN JUAN AROZENA: Berako / Berako / Berako / Berako / Berako
SEIN ARDANZA: Lesakako / Lesakako / Lesakako / Lesakako / Lesakako
TXIKITOKIA: Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko / Urdazubiko
ZELAIETA: Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako / Sunbillako
ZORIONTSUAK: Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako / Zubietako

hemen agertu nahi duzu?

www.ttipi.net

4 urte betekoak
8 urte betekoak

Udako merkealdia koltxoietan

%25eko deskontuak

+ ginearri lapizatu
+ Edo apolo somierra

80	90	105	135	150	160	
190/	318€	318€	356€	438€	482€	514€

190ko luzera 200ekoak baino gutxiago

+ Urban kanapea



80	90	105	135	150	160	
190/	508€	514€	562€	676€	730€	798€

Taun kanapea gutxiago baino gutxiago

confortplus koltxoia



+ ordesa kanapea



80	90	105	135	150	160	
190/	592€	598€	648€	752€	808€	888€

+ master kanapea



80	90	105	135	135 zatiak	150	160	
190/	582€	590€	640€	754€	790€	838€	914€

Kanapea bakoitzeko 190ko luzera 200ekoak baino gutxiago

koltxoia viscodreams



Irakurle bakoitzeko termosenakion

80	90	105	135	150	
190/	166€	166€	189€	236€	262€

koltxoia termovisco



OPARIA
DURUAK BAZKONDETSATUAK

+ apolo somierra



Goazterako inguruetako irakurleak

80	90	105	135	150	
190/	302€	306€	362€	438€	476€

* 190ko luzera %5ean altxatuko da eta 200ekoak %10ean



Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkari musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

569. ALEKO IRABAZLEAK

zozketak

* "AMAIUR 2012" IKUSKIZUNERAKO

2 SARRERA

Ainhoa Berrueta Arburua | ETXALAR

* ARKUPE TXOKOLATE LOTEA

Ainhoa Etxebeste Arrotea | SUNBILLA

* TTARTTALO 2 LIBURU

(Instalazio hartzea + Tarifa laster irabazteko)

Maite Iturburuja Etxandi | ERRATZU

* BERAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA

Josu Apeztozia Erason | ITUREN

* AQUARIUM 2 SARRERA

Rafael Rotegi Iturbide | IGANTZI

* ONINART KAMISETA

Angel Garcia Etxandi | ELIZONDO



2 SARRERA, IKUSKIZUNA:
"Amaluru 2012. Haien ametsa gurea da"
Gaztelu Elkarte
2012-07-21 | Amaluru | 21:00etan



MARTIKO LOTEA
Martiko
www.martiko.com

deskontuak

FOTO-IRGAZKIRIK
GOIKO

BERA | %10 kopia digitaletan

JUAN J. PIKABEA

DONEZTEBE
%10. marka batzuetan ezik

MASTER

ALTZURI

LESACA | %5 etxetresnetan



KIRRIAK ZELAI

BERA | %5eko deskontua



BERA | %5 kontsultan



ZAPATADENDIA

LESACA | %10eko deskontua



KAMISETA BAT
Ondio ta punto
www.ondiotapunto.com

AQUARIVM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



BERAKO UDAL IGERILEKUA
2 SARRERA
Berako Udal Igerilekua
www.berakoudala.net



2 LIBURU
Erein Argitaletxea
www.erein.com

ttipi-ttapa

Anduetzeta 12. 31760 ETXALAR
Tel: 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net